

Euskarazko ikus-entzunezkoen egungo produkzioa

Ekoizpenaren, kontsumoaren
eta zabalkundearen azterketa
begirada kualitatiboa ardatz

Egilea: Eneko Iriondo

Zuzendaria: Joseba Ezeiza

Zergatik du euskarak hain presentzia txikia
ikus-entzunezkoetan?

«Izan edo ez izan. Hori da
ikus-entzunezkoen kontua»

«Serie potenteak egin behar dira
euskaraz, munduan egon nahi
badugu»

420511+L04H+Ln

1997XII
02675

Azaleko irudia: Vicente Iriondo

Multimedia Komunikazioa Masterra

Master Amaierako Lana

2021-2022 IKASTURTEA

Euskarazko ikus-entzunezkoen egungo produkzioa.

Ekoizpenaren, kontsumoaren eta zabalkundearen azterketa,
begirada kualitatiboa ardatz.

EGILEA: Eneko Iriondo Azpiri
ZUZENDARIA: Joseba Ezeiza Ramos



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Euskal Irrati Telebista

2022ko irailaren 7a

Euskarazko ikus-entzunezkoen egungo produkzioa.

Ekoizpenaren, kontsumoaren eta zabalkundearen azterketa,
begirada kualitatiboa ardatz.

Laburpena. Master Amaierako Lan honetan, euskarazko ikus-entzunezkoen egungo produkzioa aztertu da. Horretarako, lehenik, aurretik burututako zenbait ikerketa lan, txosten eta analisi aztertu eta landu dira. Bigarrenik, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleen artean inkesta zabaldu da horien ikus-entzunezkoen kontsumo interes, nahi eta beharrak ezagutzeko. Hirugarrenik, focus groupa egin da sektorean lan egiten duten profesional nahiz ikerlarien ikuspegi eta iritzi desberdinak kontrastatzeko. Laugarrenik, hainbat elkarrizketa egin dira sektoreko aditu eta profesionali, modu sakonagoan euren iritzia jasotzeko. Azkenik, ikerketa lana sektorearen inguruan maila politikoan erabakiak hartu dituen profesional batek aztertu du lanetik aipagarriak diren eta etorkizunera begira landu behar diren alorrak azpimarratzeko. Lehen hurbilketa honek zenbait konklusio baliagarri eskaini dizkigu, eta ikertzen jarraitzeko lan-lerro interesgarriak ere zabaldu dizkigu.

Hitz gakoak: Euskara; ikus-entzunezkoak; ekoizpena; kontsumoa; diru-laguntzak; zabalkundea.

Producción actual de audiovisuales en euskera.

Análisis de la producción, consumo y difusión
centrada en la mirada cualitativa.

Resumen. En este Trabajo Fin de Máster se ha analizado la producción actual de audiovisuales en euskera. Para ello, en primer lugar, se han analizado diversos trabajos de investigación, informes y análisis realizados con anterioridad. En segundo lugar, se ha difundido una encuesta entre el alumnado de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación de la UPV/EHU para conocer sus intereses, deseos y necesidades de consumo audiovisual. En tercer lugar, se ha realizado un focus group para contrastar las diferentes visiones y opiniones de los profesionales e investigadores que trabajan en el sector. En cuarto lugar, se han realizado varias entrevistas a expertos y profesionales del sector para recabar su opinión de forma más profunda. Por último, el trabajo de investigación ha sido analizado por un profesional que ha tomado decisiones a nivel político en torno al sector para incidir en las áreas que son destacables del trabajo y que hay que desarrollar de cara al futuro. Esta primera aproximación nos ha proporcionado algunas conclusiones útiles y nos ha abierto también líneas de trabajo interesantes para seguir investigando.

Palabras clave: Euskera; audiovisuales; producción; consumo; subvenciones; difusión.

Current audiovisual production in Basque.

Analysis of production, consumption and dissemination
with a qualitative approach.

Abstract. In this Master's Final Dissertation, the current production of audiovisuals in Basque has been analysed. In order to do this, first of all, various research works, reports and analysis carried out previously have been scrutinized. Secondly, a survey has been disseminated among the students of the Faculty of Social Sciences and Communication of the UPV/EHU to find out their interests, desires and needs for audiovisual consumption. Thirdly, a focus group has been held to contrast the different views and opinions of professionals and researchers working in the sector. Fourth, several interviews have been conducted with experts and professionals in the sector to gather their opinion in greater depth. Finally, the research work has been analysed by a professional who has taken decisions at the political level in the sector to highlight areas of the work that are noteworthy and need to be developed for the future. This first approach has provided us with some useful conclusions and has also opened up interesting lines of work for further investigation.

Keywords: Basque; audiovisual; production; product consumption; subsidies; dissemination.

Eskertza berezia lan hau egiteko orduan beraien testigantza, ideia eta ekarpenak eskaini dituzten guztiei eta baita ere agenda arrazoiengatik parte hartzea eskatu zitzaienean beren prestutasuna agertu, baina azkenean parte hartzerik izan ez dutenei. Mila esker guztiei bihotz-bihotzez. Erronka hau guztiona da eta guztion ekarpenik gabe nekez aurkituko diogu erantzuna.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	10
2. TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA	11
2.1 Kapituluaren sarrera	11
2.2 Bide luzea, eta ez batere erraza	11
2.3 Egungo panorama: hedabideen barneratzea eta streaming plataformak	12
2.4 Euskarazko ikus-entzunezkoen egoera	18
2.5 Indarrean dauden estrategia, lege eta planak	19
2.5.1 Eusko Jaurlaritzaren Kultura Plana 2019-2022.....	19
2.5.2 EITB 2030 Estrategia.....	21
2.5.3 Ikus-entzunezko Lege Orokorra (13/2022 Legea)	22
2.5.4 Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024	25
3. HELBURUAK, HIPOTESIAK ETA METODOLOGIA	27
3.1 Helburuak	27
3.2 Hipotesiak	27
3.3 Metodologia	28
3.3.1 Metodologia kuantitatiboa: iturriak eta tresnak	28
3.3.1.1 Ikerketak eta txostenak	
3.3.1.2 Inkesta	
3.3.2 Metodologia kualitatiboa: iturriak eta tresnak.....	30
3.3.2.1 Liburuak, txostenak, ikerketa-lanak, urtekariak	
3.3.2.2 Focus group	
3.3.2.3 Sakoneko elkarrizketak	
4. EMAITZAK: datuak eta analisisa	37
4.1 Inkesta	37
4.2 Focus group	45
4.3 Elkarrizketak	47
4.4 Eztabaida	50
5. ONDORIO BIDE'TIK	72
5.1 Konklusioak eta proposamenak	72
5.2 Etorkizunera begira	74
ERREFERENTZIAK.....	77
ERANSKINAK	83
1. Eranskina: Inkestan erabilitako galdetegia	84
2. Eranskina: Inkestaren emaitza gordinak	88
3. Eranskina (konfidentziala): Informatzaileen datuak eta transkripzioak	96

1. SARRERA

Master Amaierako Lan honetan nolabaiteko hurbilpena egin da euskarazko ikus-entzunezkoen egungo kontsumoaren, produkzioaren eta sektorearen egoera aztertzeko. Horretarako, kontsumitzaile nahiz sektoreko langile eta adituen ahotsak hartu dira kontuan. Lehenengoan ikuspegia inkesta bidez jaso da, eta bigarrenena, berriz, focus group bileren eta banako elkarrizketa sakonen bidez eskuratu da. Kontsumitzaileen kasuan, zer kontsumitzen duten baino, zer kontsumituko luketen galdetu zaie. Sektoreko profesionalen kasuan, esperientziaz eta ikuspegi pertsonalaz harantzago, egungo egoeraren analisi zabalago egiten saiatu gara, eta etorkizunera begira eman beharko lirakekeen urratsen inguruko gogoeta ere egin da.

Azterlan pilotu honen bidez, euskarazko ikus-entzunezkoen panoramaren erradiografia egiten ahalegindu gara, betiere, eskuragarri dauden txostenek eskaintzen diguten ikuspegia zabaldua. Izan ere, Hego Euskal Herrian bi lagunetik bat plataforma bateko harpideduna den garaian -gazteen kasuan hamarretik ia zortzi- funtsezkoa da euskararen presentzia hutsala areagotzea plataforma erraldoi horietan (Behategia, 2022). Streaming plataformak sozializatzeko tresna bilakatu dira, eta, testuinguru honetan, zinegile, aktore, teknikari, sektoreko aditu, ikerlari eta herri mugimendu askok mintzoa goratu dute, bai euskarazko fikzioaren aldeko apustu sendoa egiteko eta, baita ere, utzirik dagoen bikoizketa eta azpigituluen sektorea berrindartzeko. Ikuspegi kuantitatibotik, datuek diote inoiz baino hobeto gaudela; hala ere, kontuan izanda zerotik gatozela, ez da oso zaila marka hori lortzea. Etengabe ari gara ekoizten euskarazko ikus-entzunezkoak (podcastak, bideo-jokoak, sare sozial desberdinetarako sorturiko edukiak, bideo-klipak...), baina modu oso barreiatuan. Horregatik, euskarazko eduki horiek guztiak bilduko dituen plataformaren eskakizuna zabaldu da: euskaratik eta euskaldunontzat sorturiko plataforma. EITBk *Primeran* plataforma garatzen ari dela iragarri du aurten, eta 2023ko urtarrilean jarriko da martxan. Emaitzen atalean emango dugu plataforma horren ezaugarrien inguruko informazio gehiago.

Lan hau egitea erabakitzearen jatorrian dago euskarazko ikus-entzunezko eskaintza urriaren arazoak ezagutu nahia eta egoera irauli dezaketen neurri eta pausoak ikertzeko interesa. Bide beretik ere, hori aztertzeko erabilitako metodologia egokia den frogatu nahi izan da, beti ere, kontziente izanik honelako lanek duten muga nagusiaz: denbora. Beraz, ikerketara egindako lehen hurbilpen honen bitartez euskarazko ikus-entzunezkoen egungo egoeraren hainbat alorretan sakondu da, eta beste hainbat eremutara ikerketa zabaltzeko atara irekia utzi da.

Sarrera honen ostean irakurleak lanaren testuingurua eta justifikazioa aurkituko du; atala horretan, ikus-entzunezkoen eta zehazki euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa eta egoera aztertuko da, egin diren hainbat ikerketarako datuak erabiliz. Gainera aztertuko ditugu ere martxan daude plan, estrategia eta legeak. Honen ostean, ikerketaren helburuak, hipotesiak eta erabilitako metodologia azalduko dira. Jarraian, lortutako datuen analisia eskaintzen da; alegia, informazioa jasotzeko erabilitako tekniken bidez (inkesta, elkarrizketak, focus groupa) eskuratu diren datuak aurkeztu eta aztertuko dira. Lanaren azken zatian, ondorioak, proposamenak eta etorkizuneko begirada jasotzen dituen atala aurkeztuko da. Amaieran, lanean zehar erabilitako informazio iturriak eta dokumentu gehigarriak aurkituko ditugu: inkestan erabilitako galdetegia (1. eranskina), inkestaren emaitza gordinak (2. eranskina) eta informatzaileen datuak eta transkripzioak (3. eranskina, konfidentziala). Azkenengo horren helburua da informatzaileen konfidentziasuna era anonimotasuna bermatzea eta etorkizunean eskuragarri egoten jarraitzea. Eranskin konfidentziala MALaren epaimahaikideei baino ez zaie helarazi.

2. TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA

2.1 Kapituluaren sarrera

Kapitulu honek lau atal nagusi izango ditu, eta bere osotasunean lortu nahi dugu eskura edukitzea zein diren gaur gaurkoz txosten publikoetan jasota dauden datuak, era horretan lehenengo erradiografia egiteko, eta baita lan honen bitartez zer ekarpen egin nahi dugun azaltzeko. Esan bezala, jarraian aurkeztuko ditugun datu hauek beharrezkoak dira egoera nolakoa den jakiteko, baina horren arrazoiak jakin ahal izateko harago joan behar dugu. Kualitatiboki errealitatea nolakoa den aztertu nahi dugu, era horretan, zailtasunak identifikatzen eta ondorio sendoagoak ateratzen saiatzeko.

Lehenbiziko atalean (2.2) arreta jarriko diogu komunikazioaren eta ikus-entzunezkoen esparruan gaur egunera arte egin dugun ibilbideari. Atal horretan ibilbide luze hori modu laburrean eta gehiegi sakondu gabe landuko da. Horren helburua da, egin dugun ibilbideaz ohartzea eta gaur egungo panoramara sarrera laburra egitea. Ondoren, bigarren atalean, egungo ikus-entzunezkoen testuingurua modu sakonagoan azalduko dugu hedabideen barneratzea eta streaming plataformak ardatz izanik. Horren helburua da, Internetek eta streaming plataformek ikus-entzunezkoen testuingurua nola aldatu duten azaltzea. Jarraian, hirugarren atalean, euskarazko ikus-entzunezkoen egoeraren laburpen txiki bat egingo da, izan ere, emaitzen atalean modu sakonagoan landuko dugu. Atal horren bitartez egin nahi da euskarazko ikus-entzunezkoen egoeraren sarrera. Eta azkenik, laugarren atalean, aztertuko ditugu aurreko ataletan azaldu dugun errealitatearen aurrean martxan dauden legeak, estrategiak eta kultur planak.

2.2 Bide luzea, eta ez batere erraza

Teknologiaren aurrerapenarekin hainbat bitarteko sortu dira historian zehar beste pertsona batzuekin elkarreragiteko. Gaur egungo panorama milaka urteren eboluzioaren emaitza da, komunikatzeko moduak etengabe aldatu eta eboluzionatu dira. Duela 5.000 urte, idazkeraren arorako eraldaketa gertatu zen, eta hori giza arrazaren aurrerapenean funtsezkoa izan zen. Honen ostean, XV. mendean, eskuizkribuentzako inprentak agertu ziren eta XVII eta XIX. mendeen bitartean egunkariaren eta tokiko albisteak zabaltzeko moduaren goraldia bizi izan zen kable bidezko telegrafoa eta hari gabeko telegrafoa garatzeari esker. XX. mendea, ikus-entzunezkoen mendea dela esan dezakegu. Mundua aldatu zuten komunikatzeko eta edukiak kontsumitzeko bide berriak agertu ziren: irratia (1920ko hamarkadan), telebista (1930eko hamarkadan), satellite bidezko komunikazioa (1960ko hamarkadan)... Lehen filma XIX. mendearen amaieran proiektatu zen arren - *Langileen irteera Lumière fabrikatik* (1895)-, XX. mendea izan zen zinemaren urrezko aroa. Hamarkadaz hamarkada teknologia eta elektronikaren aurrerapenek gero eta abiadura handiagoa hartu dute eta horrela iritsi gara egungo egunetara: telefono mugikorrak, Internet, txatak, streaming plataformak, tabletak...

Azken mendeko aurrerapenek errotik aldatu dute ikus-entzunezkoak eta komunikabideak kontsumitzeko modua. Telebista, irratia, egunkariak, zinea, antzerkia, liburuak... horiek guztien kontsumoa izugarri jaitsi da azken hamarkadetan; zehatzagoak izanda, horien kontsumoa euskarri tradizionalan izugarri jaitsi da azken hamarkadetan. Egun, aipaturiko eduki horiek guztiak mugikor bitartez kontsumitu ditzakegu, nahi dugunean, nahi dugun lekuan eta nahi dugun moduan. Egun, ez da beharrezkoa espazio zehatz batean egotea -zinema aretoa, etxea, antzokia- eduki bat kontsumitzeko. Poltsikoan eraman ditzakegu mila egunkari, mila film, mila liburu, irratia eta telebista. Zinema aretoak eta antzokiak hustu egin dira, egunkariak paperean ia desagertu egin dira eta gazteen artean izugarri egin du behera telebista kontsumoak modu linealean.

Testuinguru konplexu honetan, konplexuagoa izan da euskarak egin duen ibilbidea. Frankoren diktadura bukatzearekin batera, zailtasun eta traba handiz, euskarak eta euskal kulturak lehenengo urrats nabariak eman zituen komunikazio eta kultura esparruan -diktaduran ere, klandestinitatean, euskal kulturaren alde gogor egin zen lan- : *Egin* egunkaria (1977), *Deia* egunkaria (1977), EITB (1982), *Euskaldunon Egunkaria* (1990), *Goiena Komunikazio Taldea* (2000), *Berria* (2003)... Ekimen horiei eta bestelako euskal egileei esker iritsi ziren lehenengo euskarazko artikulua argitaratuak, lehenengo euskarazko telebista emisioa, lehenengo euskarazko serieak eta lehenengo euskarazko filmak. Azkenengo horien kasuan, aurretik hainbat egin ziren arren, aditu askok 2005.urtean kokatzen dute euskal zinemaren sorrera:

Negu luze baten ondotik, euskal zinema ere esnatu egin zen, txoriak bezala. Belaunaldi berri baten bitartez. Politika kultural berriaren bitartez. Herrigintzaren presioaren bitartez. 2005ean bukatu zen hamabi urteko lehorte. Donostiako Zinemaldian, Aupa Etxebeste estreinatuta zuten Asier Altuna eta Telmo Esnalek. 70.000 ikusletik gora zinema-aretoetan. Kritika onak. Komedia euskaldun bat. Inposible garaituen saldo handia film bakarrean (Martinez, 2022).

Egun, berriro ahuldu eta bazterreratu dute euskara Internetek eta streaming plataformek. Bi horiei esker gure eskura ditugu munduan egiten diren telebista saio, film, serie, podcast, bideo joko eta gainontzeko eduki guztiak. Panorama horretan, euskarazko produkzioa urria izanik, euskaldunok ez dugu beste aukerarik atzerriko edukiak kontsumitzea baino. Euskarazko ikus-entzunezkoen produkzio urriari bikoizketa eta azpidatzen sektore ia abandonatua gehitu behar zaio. Ez dira atzerriko film, serie eta abarrak euskarara itzultzen eta ezta euskarazko edukiak -azpitu edo bikoizketa bitartez- mundura zabaltzen. Gero eta gehiago dira hori aldatzea eskatzen duten herri mugimendu eta elkarteak.

Azaldu dugun ibilbide hori ikusita ondorio garbi bat atera daiteke: etengabe aldatzen ari den testuinguruan gaude. Beraz, euskarazko ikus-entzunezko sektore indartsua izan nahi badugu, orain da momentua apustu sendoa egiteko, bestela, berandu iritsiko gara oraingoan ere. Orain da momentua ikerketak abian jartzeko, inbertsio publikoak areagotzeko eta estrategia sendoak garatzeko.


2.2 Egungo panorama: hedabideen barneratzea eta streaming plataformak

Atal hau jorrazterakoan, AIMCren *Marzo General de Medios* txostena (2022), Barlovento Comunicación enpresaren *Análisis de la industria televisiva-audiovisual* txostena (2021), Euskal Hedabideen Behategiaren *Streaming plataformak Hego Euskal Herrian, audientzia azterketa* lana (2022), Ikusiker Paneleko 2021-2022 *Panela: Streaming plataformak, 2021-2022 Panela: Ikus-entzunezko kontsumoa, 15.Serieen kontsumoa, 7.Ikus-entzunezko gomendagarriak gaika eta euskarrika* txostenak eta Pantailak Euskaraz-en manifestua hartu dira oinarritzat.

Espainiar Estatuan hedabideen barneratzeari¹ erreparatzen badiogu, Internet da garaile: % 87,6koa izan da 2021ean. Jarraian telebista (% 83,3) eta irratia (% 54,6) ditugu. Azken urteetako eboluzioari erreparatzen badiogu, joera argia da: Internet gorantz dijoa (2003an % 26,9); telebista eta irratia, ordea, beherantz (2003an % 90,7 eta % 51,3, hurrenez hurren). Beherantz egin dute ere zineak (2003an % 9; 2021ean %1,6) aldizkariak (2003an % 53,1; 2021ean % 22,6) eta egunkariak (2003an % 39,7; 2021ean % 13,07). Hori argiagotzeko ondorengo grafiko honetan:

¹ Hedabide baten barneratzeak edo irismenak adierazten du zenbat jende ikusten, entzuten edo irakurtzen duen hedabide zehatz bat denbora jakin batean. Barneratzea ehunekotan aipatzen dugunean, populazioaren zein zatik kontsumitzen duen adierazten ari gara.

1. Grafikoa. Hedabideen audientzia orokorraren bilakaera, 1995-2021. Barneratzea (%)



Norberak egina. Datuak: AIMCren Marco General de Medios 2022 txostena (11. orrialdea).


Grafikoa aurkezturiko lehen datua 1995. urtekoa izan da, Internet sortu zen urtekoa hain zuzen ere. Bertan, argi ikusi daiteke Interneten sorrerak gainontzeko hedabideen audientzian eragin duela. Eragin hori gehiago nabarmendu da azken sei urteetan: denek egin dute dezentzera, Internetek izan ezik. Azkenengo horrek gorantza jarraitzen du.

Telebistaren eta Interneten barneratzeari adinka erreparatzen badiogu konklusio argia atera daiteke: adinak gora egin ahala telebistaren barneratze maila altuagoa da eta Internetena baxuagoa. Adinak behera egin ahala, ordea, telebistaren barneratze maila baxuagoa da eta Internetena altuagoa. Alde nabariena 75 urtetik gorako artean eta 25 eta 34 urte bitarteko artean aurkitu dezakegu. Lehenengo kasuan telebistaren barneratzea % 93,2koa da, eta Internetena % 35,1koa. Bigarrenengo kasuan, telebistaren barneratzea % 73,9koa da, eta Internetena % 97,8koa.

Testuinguru honetan, argi dago, bi hedabide nagusiak telebista eta Internet dira. Lehenengoak urteak pasa ahala indarra eta influentzia galdu du, baina oraindik sendo mantentzen da. Bigarrenak, ordea, ibilbide dezentzera laburragoa du, baina indar eta influentzia askoz handiagoa. Internet da, dudarik gabe, etorkizuna. Bere baitan ditugu, besteak beste, streaming plataformak.

Streaming plataformak 2016 inguruan hasi ziren presentzia izaten Espainiar Estatuan. Geroztik, plataforma horietako harpidedun kopuruak izugarri egin du gora; hor, Covid 19ak eragindako pandemia eta konfinamendua kontuan izan behar ditugu. Itxialdian bideo-deiak, bizkotxoak, ogia eta abar egiteaz gain inoiz baino gehiago kontsumitu genituen ikus-entzunezkoak. 2017an, Estatuko biztanleriaren % 4,3 zen plataforma bateko harpidedun. Bi urte geroago, 2019an, % 37,1. 2020an % 45,7 eta 2021ean % 58. Plataforma horien artean erregea, dudarik gabe, Netflix da: sei milioi harpidedun inguru ditu Espainiar Estatuan (Statista, 2022). Hurrengo grafikoa plataformak horrek eta gainontzekoek azken urteetan izan duten harpidedun kopuruaren eboluzioa ikusi dezakegu:

2. Grafikoa. Streaming plataformen eboluzioa espainiar Estatuan. Populazioaren (%)




Norberak egina. Datuak: AIMCren Marco General de Medios 2022 txostena (44. orrialdea).

Edukiak kontsumitzeko modu berri hauei lotuta dago biztanleriak, eta batez ere helduek, teknologia berrietara egin duten jauziarekin. Estatuko datuei erreparatuz, biztanleriaren %59k ordenagailua erabili ohi du maiz eta % 28k tableta ere bai. Internetera konexioa etxean biztanleriaren %89,6k du. Datuek diote gero eta ohikoagoa dela etxea ez den beste eremu batzuetan Internet erabiltzea: % 65ek kalean edo garraiobideetan erabili ohi du, ia % 40k lanean eta % 15ek unibertsitatean edo ikaskuntza zentroan. Azken hilean Internetera sartzeko zein euskarri erabili diren begiratzen badugu, % 94,7ren kasuan mugikor bitartez izan da, % 55,1 Smart TVaren bitartez, % 54,1 ordenagailu portatilaren bitartez, % 30,3 tabletaren bitartez, % 28,4 mahaigaineko ordenagailuaren bitartez eta % 6,9 bideokontsolen bitartez (AIMC, 2022). Eguneko Internet kontsumoari adinka erreparatzen badiogu, aipatzekoa da, 25 eta 34 urte bitartekoak direla ordu gehien igarotzen dituztenak egunean sarean, zehazki, 3 ordu eta 12 minutu. Jarraian, 35 eta 44 urte bitartekoak ditugu, 2 ordu eta 57 minuturekin. Ondoren, 15-24 urte bitartekoak (2 ordu 55 minutu), 45-54 urte bitartekoak (2 ordu eta 40 minutu) eta 55 urtetik gorakoak (1 ordu eta 42 minutu) (Barlovento Comunicación, 2021). Hala ere, badira beste zenbait iturri egunean Internet dezente gehiago erabiltzen dugula diotenak.

Bide beretik, interesgarria da Euskal Hedabideen Behategiak egin duen azterketa Streaming plataformen inguruan, Hego Euskal Herriko audientzia kontuan izanda. Horretarako CIES enpresaren 2018 eta 2021 bitarteko datuak aztertu dituzte. Jarraian atera dituzten titular batzuk ekarriko ditugu:


- 14 urtetik gorako bi pertsonatik bat da streaming plataformaren bateko harpideduna Hego Euskal Herrian. Adin tarte zehatz batzuetan, batz besteko hori dezente handiagoa da. 35-54 urte bitartean hamarretik sei, 25-34 urte bitartean hamarretik zazpi, eta 14-24 urte bitartean hamarretik ia zortzi. Datu hauek ikusita bi gauza komenta ditzakegu: alde batetik, gazteak direla plataforma horien kontsumitzaile nagusiak. Bestalde, horietan euskarazko edukiak areagotzeak gazteek sozializatzeko euskara gehiago erabiltzea eragin dezakeela.

3. Grafikoa. Streaming plataformetara harpidetutako populazioaren bilakaera Hego Euskal Herrian, 2018-2021



Iturria: Euskal Hedabideen Behategia. Streaming plataformak Hego Euskal Herrian, audientzia azterketa 2022.

- Plataforma horietako harpide gehienak 35-55 urte bitartean kokatzen dira. Azken lau urteetan 45 urtetik gorakoak joan dira poliki-poliki gehitzen. Hau lehen aipatu dugunarekin bat dator: panorama erabat aldatu da nagusiak ere gehitu direlako teknologia berriek ekarri dituzten aukeretara.
- Estatuko datuekin bat eginez, Hego Euskal Herrian Netflix plataformak ditu harpidedun gehien. Harpidetzaren bat dutenen artean (populazioaren erdia)...




- Hamar harpidedunetik zazpi moldatzen da euskaraz (populazioaren % 71). Datu hori ez dator bat plataforma horietan dauden euskarazko edukiekin (edukien % 0,02). Beraz, Behategitik dioten moduan, bikoizketa eta azpidatziatarako arrazoi sendoa da.

Aipatzekoak dira ere Ikusiker Paneletik atera diren datuak. Aplikia ikerketa-proiektuaren barruan kokatzen da Panel hori eta EHUKo eta EITBko ikertzaileez osatua dago. 2019ko udaberritik, EHUKo eta NUPeko 1000 ikaslek, 18-25 urte bitartekoak, ikusten dituzten edukien, komunikaziorako erabiltzen dituzten aparailuen eta gustuko dituzten ikus-entzunezkoen berri eman dute. Jarraian, ikerketa-taldeak aurkeztu dituen hainbat txostenetako emaitza batzuk azpimarratuko ditugu:

- Streaming plataformak zein maiztasunekin kontsumitzen dituzten galdetzean erdiek baino gehiagok erantzun dute astean 3-5 aldiz edo gehiago erabiltzen dituztela (% 29,6k astean 3-5 aldiz, eta, aldiz, % 26,7k egunero). Soilik % 6,7k erantzun du inoiz ez dituela erabili. Datu horiek ikusita, argi dago, plataforma horien kontsumoak gure agendetan presentzia handia hartu duela.

4. Grafikoa. Streaming plataformak kontsumitzeko maiztasuna.




Iturria: Ikusiker Panela. 2021-2022 Panela: Streaming plataformak.

- Audioaren hizkuntzari erreparatuta, plataforma horietako edukiak gaztelaniaz kontsumitu ohi dituzte nagusiki (% 67,7k). Ondoren, laurdena pasak ingelesez kontsumitu ohi ditu (% 26,5). Euskaraz ikusten dutenak % 0,7 dira, eta frantsesez % 0,3. Beste hizkuntzaren bat aipatzen dute beste % 4,8k. Euskarazko datu baxu hori oso kezagarria da, baina zuzenki dago lotuta dagoen eskaintzari. Lehen aipatu dugun moduan euskarazko edukiak eskuko hatzamarrekin kontatu ditzakegu.
- Azpidatziei dagokienez, herenak baino gehiagok dio ez dituela erabiltzen normalean. Erabiltzen dituztenen artean, ia guztiak gaztelaniaz (inkestaturen % 31,6k) edo ingelesez (% 30,6k) erabili ohi dituzte. % 1,4 dira euskaraz, frantsesez edo beste hizkuntza batzuetan erabiltzen dituztenak.
- Eduki horiek zin euskarri edo aparailutan kontsumitu dituzten galdetzean, ordenagailu eramangarria (% 36,7) eta Internetera konektatutako telebista -Smart TV- (% 32,6) gailendu dira. Horien ostean, mugikorra (% 14,2), tableta (% 9,3) eta mahaiko ordenagailua (% 5,0) aipatu dira.
- Kontsumitutako azken edukia zein plataformatan ikusi duten galdetzean, Netflix aipatu da gehien (kasuen % 38,7tan). Ondoren, aipatu dira Youtube (% 22) eta Instagram (% 11,8). Neurri txikiago batean azaldu dira Google (% 5,3), Amazon Prime (%3,7), Twitch (% 3,3), Nahieran (% 2,8) edo TikTok (% 2,7).
- Fikzioa ikusteko zein kanal gomendatuko luketen galdetzean FDF (% 19,8) eta Antena 3 (% 18,0) aipatu dira lehen postuetan. Ondoren, Cuatro (% 15,8) eta Tele 5 (% 8,9). ETBko kanalak gutxien gomendatu direnen artean daude: ETB3 %3,8k, ETB2 %3,7k eta ETB1 %3k. Bestalde, inkestaturen ia laurdenak (% 24k) fikziozko edukiak beste kanal batzuetan

ikustea gomendatu dute. Inkestaturen %28,6k ez luke telebista tradizionala gomendatuko fikziozko edukiak ikusteko.

5. Grafikoa. Fikzioa ikusteko gomendatutako telebista kanalak.



Iturria: Ikusiker panela. 7. Ikus-entzunezko gomendagarriak gaika eta euskarrika.

- Aurreko galdera bera egitean entretenimenduaren inguruan aldaketa batzuk nabaritu dira. Antena 3-ek emaitza altuak jasotzen jarraitu du (% 21,1). Ondoren, Tele 5 (% 20,3) eta ETB2 (% 15,3) aipatu dira da. Entreenimenduan ETB2ren emaitzak dezentete hobeak izan dira. Bide beretik ere, ETB1en emaitzak nabarmen egin dute gora (% 10,6). Inkestaturen %12,7k adierazi du ez lukeela gomendatuko telebista entretenimenduzko saioak ikusteko. Gainontzeko kanalek ondorengo datu hauek lortu dituzte: FDF (% 12,1), Cuatro (% 11,7), La 1 (% 11,3), La Sexta (% 10,5), #0 (% 10,4), Divinity (% 5,7), La 2 (% 1,5), ETB3 (% 1,1) eta beste kanal bat (% 9,2).
- Telebistako eduki informatiboko gomendagarrien inguruan galdetzean, ETBren indargunea azaleratu da². Lehenengo hiru kanal gomendatuen artean bi ETBkoak izan dira: ETB2 (% 32,4), La Sexta (% 30) eta ETB1 (% 28,4). Gomendio gehien jasotako ondorengo kanalak La 1 (% 17,4), Antena 3 (% 15,5), Tele 5 (% 13,8) eta Cuatro (% 4,1) izan dira. Inkestaturen %9,3k adierazi du ez lukeela telebista tradizionala gomendatuko eduki informatiboak jasotzeko.

Datu horien guztien bitartez adierazi nahi dugu ikus-entzunezkoen etorkizuna Interneten dagoela. Kontsumo datuek bi gauza utzi dituzte argi: batetik, Interneten dabilzanak gero eta ordu gehiago igarotzen dituzte bertan (gainontzeko ikus-entzunezko kontsumo bideen kaltean). Bestetik, Interneten ez dabilzanak gero eta gutxiago dira, adineko pertsonak testuinguru berrira moldatzen ari dira. Beraz, euskarri tradizionaletarako edukiak ekoizten jarraitu nahi badugu (telebista aparailuan ikusteko, zinema aretoan ikusteko, irrati aparailuan entzuteko...) ezin dugu duela 40 urteko ikuspuntu eta mentalitatearekin egin, estrategia berriak garatu behar dira. Bestalde, eduki horien biziraupena eta

² Hori bat dator Barlovento Comunicación enpresak 2021ean argitaratu zuen *Análisis de la industria televisiva-audiovisual* txostenean aipatzen denarekin. Bertan azaltzen da Estatuko telebista autonomikoetan informazioa dela genero nagusia (edukiaren % 28,0). Horren atzetik doaz entretenimendua (% 21,4), fikzioa (%18,0), kultura (% 18,0), lehiaketak (% 5,3), kirola (% 5,0) eta musika (% 2,9).

zabalkundea bermatu nahi badugu euskarri, plataforma eta kontsumo ohitura berrietara ere moldatu beharko ditugu. Hori da gazteengana iristeko bide bakarra.

2.4 Euskarazko ikus-entzunezkoen egoera

Kapitulu honetako aurreko bi ataletan egin dizkiogu erreferentzia laburrak egungo euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza eta produkzioari. Datuek diote ez direla euskarazko eduki asko sortzen eta hori testuinguruan kokatu beharra dago: inoiz baino eduki gehiago kontsumitzen ditugu, behar hori daukagu, eta atzerriko eskaintza inoiz baino handiagoa da. Aurretik aipatu moduan, beste herrialdeetako edukiak kontsumitzea geratzen zaigu. Argi dago oso zaila dela gaur egungo ikus-entzunezkoen eskaera euskaraz sorturiko produktuekin asetzea, hori errazteko, beharrezkoa da bikoizketa eta azpidatzen sektore sendoa izatea. EITB, euskal ikus-entzunezko sektorearen motorra izanik, urteetan sortu diren euskarazko serie bakarren egilea izan da (*Bi eta bat*, *Hasiberriak*, *Goenkale*, *Martin...*) eta baita egin diren euskarazko film askoren finantzatzailea hein handi batean (*Aupa Etxebeste!*, *Asier eta biok*, *Igelak*, *Akelarre...*). Esan beharra dago, azken urteetan ETBk sorturiko serie kopuruak izugarri egin duela behera, eta sortu diren horiek miniseriak izan direla, besteak beste, *Hondar Ahoak*, *Altsasu* eta *Alardea*. Bestalde, ETBk euskarara itzuli dituen serieak ez dira asko izan, *Merli* produkzio katalana da horietako bat. Euskarazko filmen kasuan, sektoreko profesionalek behin baino gehiagotan adierazi izan dute proiektu asko erdibidean geratzen ari direla finantzaketa faltagatik. Bide beretik, sektore sendoa ez izateak teknikoaren eta sortzaileen harrobi falta eragiten duela ere adierazi izan dute.

Telebista saioei dagokienez, ETBk programazioaren erdia eskaintzen du euskaraz. ETB1eko euskarazko eduki horiei, umeentzako marrazki bizidunak eskaintzen dituen ETB3 kanala gehitu behar zaio. Bi kanal horien audientzia datuak nahiko baxuak dira. ETB1en audientzia datuak urteak daramatza % 2,2 inguruan; egia da ere, aurten datu hobekak lortzen ari dela, baina batz bestekoa % 3tik behera mantenduz. ETB3ren kasuan, audientzia datuak dezentek baxuagoak dira, baina marrazki bizidunak eskaintzen dituzten gainontzeko telebista kateek, Estatu mailakoek, antzeko audientziak dituzte. Hor argi ikusten da generazio berrietako umeak ez direla hazten ari telebistarekin. Ziurrenik Youtube eta Internet erabiliko dute nahi dituzten marrazki bizidunak ikusteko. Hor badute ETBk eta gainontzeko telebista kateek erronka. Bide beretik, azpimarragarriak dira aurreko atalean aurkeztu ditugun datuak: argi uzten dute ETBk informazioaren eta entretenimenduaren alde egin duen apustuak emaitzak onak izan dituela, baina, era berean, agerian utzi du bere ahulgunea: fikzioa. Puntu honetan, ez ditugu ahaztu behar tokiko telebistak. Horietako batzuen kasuan (Hamaika Telebista, Goiena Telebista, Xaloe Telebista eta Kanaldude), programazio guztia euskaraz eskaintzen dute eta audientzia datu onak mantendu dituzte testuinguru berrira moldatzen jakin baitute.

Podcasten kasuan ere eskaintza inoiz baino zabalagoa da. Gero eta entzunagoak dira Estatu mailako eduki horiek gure lurraldean; horren adibide dira *Estirando el chicle*, *Nadie Sabe Nada* eta *La Vida Moderna*. Testuinguru horretan EITBk aurreko urtean jarri zuen martxan *EITB Podcast*. Bertan aurkitu ditzakegu jakintza, bizitza, musika, kirola eta aisia eta fikzioarekin erlazionaturako podcastak euskaraz eta gaztelaniaz. Euskarazko horietako batzuk arrakasta nabarmena izan dute: *Artxipielagoa* (fikzioa), *Yoko Ona* (musika eta bizipenak), *Historia eta istorioak...*

Egoera konplexu honetan, badira euskarazko ikus-entzunezkoak areagotzea eskatzen duten herri mugimenduak. Horren adibide da, *Pantailak Euskaraz* ekimena. Ekimen hori osatzen dute *Disney Euskaraz*, *Netflix Euskaraz*, *Zinemak Euskaraz* eta *Game Erauntsia* ekimen herritarrek, eta, *Tinko Euskaraz* eta *Biense* bikoiztaile euskaldunen elkarteek. Lanean zehar sakonduko dugun arren, jarraian ekimenak eskatzen dituen neurriak aipatuko ditugu³:

³ *Pantailak Euskaraz* ekimenaren manifestua ondorengo esteka honetan eskuragarri: <https://www.pantailakeuskaraz.eus/euskarazko-ikus-entzunezkoen-aldeko-manifestua/>

- Euskarazko ikus-entzunezkoen sektoreko finantzaketa publikoa argitzea eta handitzea.
- Euskal Irrati Telebista (EITB) indartzea eta hau euskararen normalizaziorako tresna bihurtzea.
- Euskarazko streaming plataforma bat sortzea.
- Streaming plataforma nagusietan euskararen presentzia bermatu eta areagotzea.
- Zinemaren Lege propioak sortzea.
- Bideo-jokoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea.
- Sortzaile plataformetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea.
- Ikus-entzunezkoen Lege propioak sortzea.
- Lurralde-administrazio bakoitzean ikus-entzunezkoen Kontseilu propioa sortzea.
- Espainiar eta Frantziar kate publikoek edukiak euskaraz eskaintzea.

Laburbilduz, EITB da euskarazko eta Euskal Herriko ikus-entzunezko sektorearen motorra. Hori horrela izanik, beharrezkoa da euskararen aldeko, fikzioaren aldeko eta bikoizketaren eta azpidatzen aldeko apustu sendoa egitea; eta batez ere, digitalizazioaren eta teknologia berrien aldeko apustu egitea. Bide horretatik, herri mugimenduen aldarrikapenak direla medio, EITBk martxan jarri ditu garai berrietara moldatzeko zenbait proiektu. Hurrengo atalean horietako batzuk aipatuko ditugu.

2.5 Indarrean dauden estrategia, lege eta planak

Testuinguru honetan badaude indarrean zenbait plan, estrategia eta lege egoera berrietara moldatzeko. Guk horietako batzuk aipatuko ditugu:

2.5.1 Eusko Jaurlaritzaren Kultura Plana 2019-2022⁴

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak badu plan bat 2019 eta 2022 urteen bitartean garatzekoa. Plan horretan, kulturak Euskadin dituen indarguneen eta ahultasunen diagnostia egiten da, jarraian atal batzuk dakarzkizuegu:

Sorkuntzak loraldia bizi du bai kalitatearen, bai aniztasunaren eta bai aitormenaren aldetik. Orain urte batzuk sinetsi ezinak ziratekeen kalitate maila eta nazioarteko oihartzuna lortu ditu, urteotan, euskal kulturak.

Euskaraz sortua da goi maila erdietsi duen kulturgintza horren parte garrantzitsu bat. Euskaraz sortutako kultura aintzat hartu gabe ezin da ulertu Euskadiko kultur egoera, horren azken urteotako loraldia.

⁴ Eusko Jaurlaritzaren Kultura Plana (2019-2022) ondorengo esteka honetan eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/50_plandep_xileg/eu_def/kultura%20plana%202019-2022.pdf

Emitza nabarmengarriek ezin dute ordea ahantza-razi kulturgintzak jardun profesional bezala bizi duen egoera ahul eta hauskorra. Sortzaileen lan baldintzek txarrera egin dute krisiaren ondorioz eta lan merkatua ere urritu egin da nabarmen. Prekaritateak bereziki gogor kolpatzen du kulturgile profesionalen alorra.

Kultura industriek ere ahultasun handiak dituzte, merkatu urriaren, enpresen neurri eskasaren eta atomizazioaren ondorioz. Eragozpen handiak dauzkate gure kultura industriek merkatu zabalagotara jauzi egin ahal izateko.

Herri txikia gara, eta barne merkatuak nekez eman dezake sortzaileak beren lanetik bizi izateko adina, edo industriek garatu ahal izateko bezainbat. Euskaraz ari diren sortzaile nahiz industriek are zailagoa dute merkatuaren arabera aurrera egitea, euskaldunen kopurua eta horien kultura ohiturak (erdereikiko joerak) kontuan hartuta.

Euskal sorkuntzaren loraldia, Euskadiko sortzaileen kalitatea eta adituen foroetan duten aitormena ez dira behar bezain ezagunak euskal gizartean. Kulturarekiko eta bereziki euskal kulturarekiko ezagutza, errespetua eta harrotasuna indartu beharra dago.

Kultur plan horretan, garatu nahi diren **lan ildo eta programa nagusiak** aipatzen dira. Horretarako kultur politikak hiru azpisistematan banatu dituzte:

- **Sorkuntza eta ekoizpena**

Atal honetan xede nagusia da kultur produktuak ekoizteko ahalmena ziurtatzea. Horretarako, deialdi irekiak bideratzen dira eta sortzaileen jarduna babesteko programak laguntzen dira: Sorkuntzarako deialdiak, ekoizpenerako deialdiak, trebakuntzarako eskaintzak, Euskal kulturaren ikusgarritasuna areagotzeko neurriak, Nazioartekotzea bultzatzeko lan ildoak...

- **Kultur eskaintza**

Kultura gizarte guztiaren eskura jartzea da atal honen xedea. Hau aurrera ateratzeko erakundeen hiru mailak daude elkarlanean: Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak. Hauek dira lan ildo nagusiak: Kultura gizarteratzeko ekipamenduen sistema: Euskadiko Antzoki Sarea (SAREA) eta liburutegien SISTEMA, nazioarteko proiektzioa duten museoak eta kultur guneak, nazioarteko proiektzioa duten jaialdiak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak (EOS) eta Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO).

- **Memoria bizia**

Atal honetan, helburua da, Euskadiren memoria bizia gordetzeko, zaintzeko, gizartearen eta egungo sorkuntzaren esku jartzeko politikak garatzea. Lan hildo nagusiak: Legeak eta arauak, ondarea babesteko eta ikertzeko deialdiak, memoriarako erakundeak, museoak eta fundazioak, memoria guneak eta Euskal Liburutegia.

2.5.2 EITB 2030 Estrategia⁵

Euskal Irrati Telebistak badu estrategia plana ere 2022 eta 2030 urteen bitartean garatzeko. Estrategia planean, beste hainbat gauzen artean, komunikabideen ingurunea European nolakoa den aztertzen da. Jarraian bertan aipatzen diren puntu nagusiak dakarzkizuegu:

- **Globalizazioa eta digitalizazioa:** Enpresa globalek sortutako edukien hedapen globaleko prozesua.
- **Sektorearen atomizazioa European:** Plataforma eta komunikabide korporatiboen kontzentrazio ekonomikoaren aurreko lehiakortasun-ahultasuna.
- **Plataformen aurrerapena:** Hazkunde esponenziala, inbertsio handiagoa eta zerbitzuen garapena ahalbidetzen duen finantzaketak lagundua.
- **Desinformazioa:** Adimen artifizialak albiste faltsuen hedapenean duen eragina.
- **Tokiko komunikabideen desagerpena:** Komunikabide publikoen sektorearen kapital-muga eta erreakzio berantiarra testuinguru sozioekonomiko globalean.

Txosten honetan EITBren erronkak zeintzuk diren ere identifikatzen dira: Ikus-entzunezko gaitasun globala, komunikabide publikoen legitimitatea, ingurune teknologiko eta sozial aldakorra, gazteekiko lotura emozionalaren galera, inbertsio- eta ekoizpen-beharra.

Bide beretik, EITBren nortasuna definitzen duten zeharkako lau ardatz aipatzen dira: **Euskara** (euskara bultzatu eta zaindu, edukien sarbidea eta kontsumoa bermatzea), **kultura** (Gure kultura osatzen duten musika, zinema, kirola, ezagutza, ohiturak eta bizimodua zaintzea Euskadin eta munduan sustatuz eta proiektatuz), **“Euskal Frame”** (euskal testuinguruan kokatutako eduki eta gai propioak eskaini) eta **zerbitzu publikoa** (EITBren helburua informazioa, entretenimendua eta prestakuntza ematea da, eduki guztietarako sarbide unibertsala eta doakoa bermatuz).

Hurrengo urteetara begira 12 lehentasun identifikatu dira (txostenean ikusgarri) eta horien aurrean ondorengo 15 ekintza-ildo edo proiektu jarriko dira martxan:

1. “Primeran” plataforma
2. EITB Miramon Faktoria
3. Edukien politika berria
4. HDaren ezarpena osatzea
5. Teknologiaren kudeaketa eta ezarpen berria
6. EITB castinga
7. Gaztea: “Targeting-estrategia”
8. EITB Nafarroa
9. Data & IA
10. EITBren kausa sozialak
11. Ikus-entzunezkoen sektorearekiko aliantza
12. 2022-2025 Kontratu Programa
13. Inbertsioen bulego teknikoa sortzea
14. EITB Lab proiektuak
15. Gardentasunaren ataria

⁵ EITB 2030 Estrategia ondorengo esteka honetan eskuragarri:

<https://www.eitb.eus/multimedia/corporativo/documentos/EITB ESTRATEGIA 2030 EUS.pdf>

2.5.3 Ikus-entzunezko Lege Orokor berria (13/2022 Legea)⁶

DSCAren (Directiva de Servicios de Comunicación Audiovisual) jarraibideei jarraituz, IKLOk (Ikus-entzunezko Lege Orokorra) eguneratu egiten du Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorrean ezarritako araubidea. Lege hori 2010etik egon da indarrean, eta orain indargabetu egiten da. 2010eko testuak ia soilik lurreko telebista digitalerako betebeharrak arautzen zituen, eta honi esker lortu nahi izan da teknologia digitalei esker ikus-entzunezko merkatuan sortutako aktore berriek antzeko betebeharrak izatea. Ministroen Kontseiluak Diputatuen Kongresura bidali zuen testua eta 2022ko maiatzaren 26an Behe Ganberak testua onartu zuen.

Jarraian, IKLOk ordezkatzeko duen behin betiko testuaren puntu nagusiak laburki aztertuko ditugu:

- **Ikus-entzunezko lan europarraren sustapena**

Kuota-betebeharrak

IKLOk telebista tradizionaleri ezartzen zien obra europarraren emisio-orduen gutxieneko kuota mantentzen da: programazioaren urteko emisio-denboraren % 51. Ehuneko horren erdia, gutxienez, Estatuko hizkuntza ofizialean edo autonomia-erkidegoetako koofizialetan egin beharko da, eta, Estatuko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoak (RTVE) ematen duenaren kasuan, azpikuota horren % 15, gutxienez, autonomia-erkidegoetako hizkuntza koofizialetako edukiei eskaini beharko da.

Gainera, hizkuntza ofiziala duten autonomia-erkidegoek ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa ematen dutenezko betebeharrak gehigarriak arautu ahal izango dituzte beren autonomia-erkidegoetan.

Antzeko betebeharrak bat dute, lehen aldiz, eskaera bitarteko telebistako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua ematen dutenek⁷: katalogoaren % 30, gutxienez, Europako lanetarako gorde beharko dute. Era berean, ehuneko horren erdia, gutxienez, Estatuko hizkuntza ofizialean edo autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetako batean egindako lanetarako gorde beharko da. Eta % 15 horretatik, gutxienez % 40 autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetako batean egindako lanetara.

Finantzaketa aurreratuaren betebeharrak

Horrez gain, alde aurreko finantzetaren betebeharrari dagokionez, gogorazi behar da DSCAk jatorrizko herrialdearen printzipioaren salbuespen bat ezartzeko aukera ematen duela, eta aukera ematen diela Estatu kideei ikus-entzunezko lan europarren ekoizpena alde aurretik finantzatzen laguntzeko betebeharrak estatu kide batean kokatutako audientziei zuzendutako zerbitzuak ematen dituztenei zabaltzeko, gure kasuan, espainiar Estatuan lortutako diru-sarreretan soilik oinarrituta finantza-ekarpena burutuz. Horrela, IKLO berriak ahalmen hori erabiltzen du, eta ikus-entzunezko lan europarrak finantzatzeko betebeharrak zabaltzen ditu, egoitza beste estatu kide batzuetan duten eta zerbitzuak Espainiara zuzentzen dituzten ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen emaileak ere har ditzaten. Aldaketa garrantzitsua da, izan ere, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak

⁶ Ikus-entzunezko Lege Orokorra ondorengo esteka honetan eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/1/2022/07/07/13/dof/spa/pdf>

⁷ Gaztelaniaz, servicio de comunicación audiovisual televisiva a petición. Ikusleak aukeratutako unean programak eta edukiak ikusteko ematen da, eta komunikazio-zerbitzuaren emaileak hautatutako programa-katalogo batean oinarrituta hautatzen du.

(MLBN), Netflix, HBO edo Disney bezalako enpresek finantzaketa aurreratuaren betebeharrak hori betetzen dutela kontrolatzea dakar.

IKLOren testu berriak telebista publikoarentzat bere diru-sarrera konputagarrien % 6 ikus-entzunezko lan europarraren finantzaketa aurreratura bideratzeko betebeharrak mantentzen du, honela: (i) gutxienez % 70 ekoizpen independentera bideratu behar da, Estatuko hizkuntza ofizialean edo autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetako batean. Azpikuota horretatik, gutxienez % 15 autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetara bideratu behar da, eta gutxienez % 30 emakumeek bakarrik zuzendu edo sortutako ikus-entzunezko lanetara; (ii) gutxienez % 45 ekoizle independenteen film zinematografikoak ekoiztera bideratu behar da; eta (iii) gutxienez % 12 animazioa eta dokumentaletara. Ehuneko horiei dagokienez, arau-testuak eskubide hiru ematen die hizkuntza ofizialak dituzten autonomia-erkidegoei: autonomia-erkidegoko ikus-entzunezko telebista-komunikazioko zerbitzu publikoa ematen dutenentzako betebeharrak gehigarriak arautzea.

Ikus-entzunezko telebista-komunikazioko zerbitzu pribatu lineala edo eskaera bitartekoa eskaintzen dutenentzat (betebeharrak hori orain plataformetara hedatzen delako), hainbat betebeharrak ezartzen dira haien diru-sarrera konputagarrien arabera, eta, horretarako, aurreko ekitaldian ikus-entzunezko telebista-komunikazioko zerbitzuak emateagatik Espainiako ikus-entzunezko merkatuan sortutako diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontuan:

- Berrogeita hamar milioi euroko edo gehiagoko diru-sarrera konputagarriak dituztenek diru-sarrera horien % 5 erabili behar dute helburu horretarako. % 5 horretatik: (i) gutxienez % 70 Estatuko edo autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialean egindako ekoizpen independentera bideratu behar da. Azpikuota horretatik, gutxienez % 15 autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetara bideratu behar da, eta gutxienez % 30 emakumeek bakarrik zuzendu edo sortutako ikus-entzunezko lanetara; eta (ii) gutxienez % 40 Estatuko hizkuntza ofizialean edo autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetako batean dauden ekoizle independenteei ekoiztutako film zinematografikoetara bideratu behar da.
- Berrogeita hamar milioi euro baino gutxiagoko eta hamar milioi euro baino gehiagoko diru-sarrera konputagarriak dituztenek horien % 5 erabiliko dute urtero ikus-entzunezko lan europarra finantzatzeko, amaitutako ikus-entzunezko lan europarra ustiatzeko eskubideak erosteko edo Zinematografia Babesteko Funtzari laguntzeko (azken finantzaketa-bide hori berritzailea da aurreko legean ezarritakoarekin alderatuta). Kuota horren % 70, gutxienez, ekoizle independenteei Estatuko hizkuntza ofizialean edo autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetako batean ekoiztutako ikus-entzunezko lanetara bideratu behar da.
- Diru-sarrera konputagarriak hamar milioi eurotik beherakoak badira, zerbitzu hori ematen dutenek ez dute horrelako betebeharrak izango.

▪ **Hizkuntza aniztasuna**

Finantzaketa aurreratuaren zati bat hizkuntza koofizialetako ikus-entzunezko edukietara derrigor bideratzeko eskatzeaz gain, aurreko azpitalean zehaztu dugun bezala, IKLOren testu berriak telebistako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuetan kultura eta hizkuntza aniztasuna eta hizkuntza koofizialak sustatu nahi ditu, ikus-entzunezko lanak Espainiako hizkuntza koofizialean azpigitulatzeko edo bikoizteko laguntza-programen bidez.

Era berean, Legebiltzarraren tramitazioan, neurri berriak sartu ziren IKLOren behin betiko testuan, hala nola Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko laguntza-funtz bat sortzea, zeina hizkuntza ofizialak dituzten autonomia-erkidegoetako erakunde eskudunei transferituko baitzaie. Erakunde horiek beren eskumenen arabera kudeatuko dituzte funts horiek.

- **Ekoizle independenteen obretan inbertitzea**

Aurreko legeari dagokionez, behin betiko onartutako IKLOren testuak ekoizle independenteen ikus-entzunezko lan europarretan egin beharreko inbertsioaren ehunekoak handitzen ditu.

Aipamen berezia egin behar zaio IKLOren testu berrian arautzen den ekoizle independentearen definizioa izapidetzean izandako aldaketak sortutako polemikari. Aldaketa horri esker, telebistari eta plataformei lotutako produkzio-etxeak independentetzat jo ahal izango dira, beren enpresa nagusietarako lan egiten ez dutenean.

- **Berdintasuna**

Berdintasuna sustatzeko, besteak beste, honako neurri hauek hartzen ditu: (i) emakumeek zuzendutako edo ekoiztutako ikus-entzunezko lanen ekoizpena bultzatzen du, Zinematografia eta Ikus-entzunezkoak Babesteko Funttsaren kargurako laguntzen deialdiaren bidez; (ii) lan independentea ekoiztera bideratutako finantzaketaren bidez, telebistako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu lineala ematen dutenek % 30 bideratu beharko dute soilik emakumeek zuzendutako edo sortutako lanetara; (iii) publizitate-mailan, debekatu egiten da emakumeen irudia modu iraingarrian edo diskriminatzailean erabiltzen duen ikus-entzunezko komunikazio komertziala; eta (iv) berariaz sartzen da emakumeen kirola gizartearentzat interes orokorrekoa den gertakari gisa, eta telebistarako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen bidez emititu behar da, irekian eta estatu-mailan.

Bestalde, IKLOk oso larritzat jotzen du diskriminazioa edo matxismoa sustatzen duten ikus-entzunezko edukien emisioa, eta MLBNri urteko txosten bat eskatzen dio, Estatuko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren emaileek emandako ikus-entzunezko programa eta edukietan emakumeek duten ordekaritzari buruzkoa.

- **RTVEren finantzaketa**

Lege-testuak ezartzen duenez, RTVEren finantzaketa audientzia beragatik lehiatzen duten ikus-entzunezko merkatuan dauden agente guztien ekarpenekin egin behar da: ikus-entzunezko telebista-zerbitzu linealaren emaileak eta eskaera bitartekoak, irekian eta ordainpekoak; eta bideoak trukatzeko plataformak, haien egoitza Espainian edo Europar Batasuneko beste herrialde batean egon arren (Espainian zerbitzuak eskaintzen badituzte). Hau da, Espainian edo Europar Batasunean ezarrita dauden eta Espainian zerbitzuak ematen dituzten (Netflix, HBO, YouTube, eta abar) bideo-plataformen betebeharrak berri bat da aldaketa hori. *On demand* eta bideo-trukeak eskaintzen dituzten plataformei ezarritako betebeharrak berri bat, RTVEren aurrekontuari urtero ekarpen bat egiteko.

Legean zehazten da ekarpen hori dagokion urtean ustiapeneko diru-sarrerara gordinen arabera kalkulatu dela, Espainiako ikus-entzunezko merkatuan zerbitzu hori emateko jardueraren ondorioz jasotako diru-sarrerak soilik sartuta.

- **Plataformen bidez bideoak trukatzeko zerbitzuak erabiltzen dituzten Espainiako influencerrentzako betebeharrak**

Legeak berariazko atal bat eskaintzen die “plataformaren bidez bideoak trukatzeko zerbitzuak erabiltzen dituzten garrantzi bereziko erabiltzaileei”. Kategoria honetan sartzen dira aldi berean baldintza hauek betetzen dituzten erabiltzaileak: (i) emandako zerbitzuak jarduera ekonomiko bat dakar, eta, horren ondorioz, zerbitzuaren titularrak diru-sarrera esanguratsuak lortzen ditu jarduera ekonomiko horren bidez; (ii) erabiltzailea ikus-entzunezko edukien argitalpen-arduraduna da; (iii) emandako zerbitzua publikoaren zati esanguratsu bati zuzenduta dago, eta eragin argia izan dezake harengan; (iv) zerbitzuaren funtzioa informazioa ematea, entretenitzea edo heztekoa da, eta zerbitzuaren helburu nagusia ikus-entzunezko edukiak banatzea da; (v) zerbitzua komunikazio-sare elektronikoen bidez eskaintzen da, eta Espainian ezarrita dago.

Betekizun horiek betetzen dituzten influencerrak ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren emailtzat hartuko dira ondorio jakin batzuetarako; besteak beste, Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzu Emaileen Estatuko Erregistroan alta emateko betebeharra eta adingabeak babesteko hainbat betebeharrak betetzea.

Puntu horietaz gain, aipagarriak dira ere adingabeen babesa indartzeko, irisgarritasuna hobetzeko eta publizitatearen mugen inguruko neurri berriak.

2.5.4 Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024⁸

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 2an onartu zuen hurrengo hiru urteetarako Euskararen Agenda Estrategikoa. Txosten horrek, beste hainbat edukiz gain, Eusko Jaurlaritzak euskararen ezagutzan eta erabileraren aurrera egiteko hartutako konpromisoak jasotzen ditu. Gure lanaren harira horietako bat aipatuko dugu:

- 117. konpromisoa. EITBren zerbitzu publikoaren izaera mantentzea eta bermatzea, komunikazio pluralerako eta hizkuntzaren normalizaziorako bitarteko gisa.

2. ekinbidea. Beharrezko erreformak burutzea, EITB benetako zerbitzu publikoa izan dadin, ikus-entzunezkoa, modernoa eta herritarren premia eta eskari berrietara egokitutakoa, objektiboa, lehiakorra eta eraginkorra. Hala, horren oinarritzko helburuetako bat izango da errealitate soziolinguistikoa kontuan hartzea eta euskararen normalizazioa sustatzea, berdintasun-printzipioa eta aniztasun politikoa, erlijiosoa eta kulturala errespetatuz.

Txosten horretan ageri da ere 2017-2020 legegintzaldian HPSk (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) bideratu dituen dirulaguntza deialdiak. Gure ikerketa lerroekin zerikusia duen bat aipatuko dugu:

- Euskara ingurune digitalean deialdia: ingurune digitalean euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko dirulaguntzak emateko deialdia.

Bide beretik, Euskararen Aholku Batzorde Osoak (EAB) Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Berezia sortu zuen, 2017ko urriaren 3an, 2017-2020 legegintzaldiko lehen bileran.

Esan bezala, Gobernu Programan euskararen arloan dagoen herri-helburua da euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea. Euskararen Agenda Estrategikoa (2021-2024) hori berrestu du eta horretarako ekintzak zehaztu dira. Horrekin batera, euskararen bilakaera soziolinguistikoaren adierazle nagusietan aurrera egiten jarraitzea da asmoa. Hori gauzatzeko Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak honako helburu estrategiko hauek ditu:

1. Herritarren euskararen ezagutza handitzen jarraitzea.
 - Helduen irakaskuntza-egitasmoa sendotzea.
2. Herritarren euskararen erabilera handitzen jarraitzea.
 - Euskararen transmisioa bermatzea.
 - Aisialdian eta kirolean euskararen erabilera handitzea.

⁸ Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024 ondorengo esteka honetan eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskara_agenda_estrategikoa/eu_def/adjuntos/EuskararenAgendaEstrategikoa_2021-2024_EUS_online.pdf

- Ingurune digitalean euskararen erabilera handitzea.
 - Hedabideetan euskararen erabilera handitzea.
 - EAEko sektore publikoan euskararen erabilera handitzea.
 - Eremu sozioekonomiko publikoan zein pribatuan euskararen erabilera handitzea.
3. Herritarren hizkuntza eskubideen bermean aurrera egitea.
- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.
4. Euskararen lurralde guztietan erakundeen arteko lankidetzaz sendotzen jarraitzea.
- Hizkuntza politika garatzeko adostasunak lantzea.
 - Erakundeen arteko lankidetzaz indartzea.

.....

Azaldu dizkizuegu atal honetan indarrean dauden lege, estrategia eta plan batzuk. Dokumentu horiek intentzio mailakoak dira, legearen kasuan, teorian, betebeharrekoa. Egoera horretan, lan pilotu honek, lehen urratsa izan nahi du egoera konplexu honetan beharrezkoak diren neurriak identifikatzeko eta hori nola egin daitekeen frogatzeko: hau da, zein metodologia izan daitekeen egokia aipaturiko helburuak lortzeko. Hurrengo atalean horren inguruan hitz egingo dugu, lanaren helburuen, hipotesien eta metodologiaren inguruan.

3. HELBURUAK, HIPOTESIAK ETA METODOLOGIA

3.1 Helburuak

Master Amaierako Lan honen helburua da lehen hurbilketa bat egitea euskarazko ikus-entzunezkoen panoramara eta kontsumoa, produkzioa eta sektorearen egungo egoera aztertzea. Labur esanda euskarazko ikus-entzunezkoen egoeraren erradiografia egitea. Horren bitartez, euskarazko sektorearen ahulguneak zeintzuk diren identifikatu nahi da, ondoren, zein neurri hartu behar diren jakin ahala izateko. Bide beretik, ondorengo puntu hauetan jarri nahi da arreta:

- Ikus-entzunezkoen kontsumo ohitura berrietan.
- Euskarazko produkzioek streaming plataforma handietan egin dezaketen ibilbidean.
- *Euskal Netflix*-ak izan beharko lituzken ezaugarrietan.
- Bikoizketa eta azpidatzen sektorean eta horrek eman ditzakeen aukeretan.
- EITBk euskarazko eta Euskal Herriko ikus-entzunezkoen motorra izanik bete behar duen paperean.
- Gainontzeko instituzio publikoek bete behar duten paperean (sustapena, diru-laguntzak, estrategiak...)
- Gazteek, herri mugimenduek, sektoreko profesionalek eta komunikazioaren esparruko adituek egiten duten egoeraren deskribapenaren analisisian.
- Sektorearen inguruan dauden eta egon beharko lirakekeen legeen, erakundeen eta kontseiluen inguruan.
- Euskal Herriko ikus-entzunezko sektorearen egoerak Kataluniakoarekin eta Galiziakoarekin duen harremanean eta desberdintasunetan.

3.2 Hipotesiak

Ikerketa lan honetan hainbat hipotesi planteatu dira euskarazko ikus-entzunezkoen egungo testuingurua nolakoa den jakinda. **Lehena**, euskarazko ikus-entzunezko egungo eskaintza eta produkzio urria urteetan jarraitu den estrategia eta politika desegokien ondorioa dela. **Bigarrena**, streaming plataformen agerpenak lagundu baino gehiago zaildu egin duela euskarazko ikus-entzunezkoen etorkizuna: eskaintza hain zabalaren aurrean zaila da gure produkzioak nabarmentzea. Aurrekontuak alderatzen baditugu, liga desberdinetan jokatzeko ari gara. Aldi berean, estrategia egokiak aurrera ateratzen badira, aukera izan daiteke euskara eta Euskal Herria munduan kokatzeko. Eta, **hirugarrena**, ikus-entzunezkoetan euskarak duen presentzia urriak zuzenean eragiten duela euskara beraren erabilera eta sozializazioan.

3.3 Metodologia

Ikerketa hau aurrera eramateko hipotesiak hoberen erantzungo dituen metodologia diseinatu dugu. Aldi berean, metodologia bera lantzeko, hau da, ikerketa aurrera ateratzeko eskura ditugun tresnak frogatu eta ikasteko, teknika bat baino gehiago erabili dugu. Euskarazko ikus-entzunezkoen produkzioaren egungo egoera nolakoa den aztertzeko, kontsumo ohiturak ezagutzeko eta etorkizunera begira sor daitezkeen bide edo lan-lerroak aztertzeko teknika kualitatibo eta kuantitatiboak erabili ditugu.

3.3.1 Metodologia kuantitatiboa: iturriak eta tresnak

3.3.1.1 Ikerketak eta txostenak

Lan honen lehen pausua izan da jada eginda dauden eta argitaratu diren liburuak, txostenak, ikerketalanak, urtekariak, aldizkariak, elkarrizketak, sareetako bideoak eta abar biltzea, aztertzea eta lantzea. Horrela, lehen hurbilketa egin dugu euskarazko ikus-entzunezkoen egungo egoerara eta irudi orokor bat osatu ere. Besteak beste, ondorengo iturri hauek erabili ditugu: *Euskal Hedabideen urtekariak* (2019-2020-2021), *Marco General de los Medios* urtekariak (2021-2022), *Barlovento Comunicación* enpresaren txostenak, *Ikusiker paneleko* txostenak, CIS-en *Cuadernos Metodológicos* liburuak, *Pantailak Euskaraz*-ek argitaratutako dokumentuak, Tabakalerak antolatutako *Streaming plataformak eta bizkuntza aniztasuna* eztabaida (YouTube ikusia), podcast gisa entzundako elkarrizketak (Josu Amezagari eta Pantailak Euskarazko Alex Aginagaldi), *Berrian* ETBren inguruan argitaratutako hainbat artikulu...


3.3.1.2 Inkesta

Printzipioak

Lehen inkestak, gaur egun inkestaren metodologia identifikatzeko erabiltzen ditugun oinarritzko ezaugarriak biltzen dituztenak, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran agertzen dira, industria-iraultzak hirietako aldirietan sortutako pobrezari eta bazterreko populazioei buruzko azterlan eta ikerketetan. Tradizioz, Charles Booth aipatzen da Ingalaterran, edo Karl Marx bera horren inguruan. Inkesta, soziologiatik ahots batzuek esan eta idatzi dutena gorabehera, ez dago, hasiera batean behintzat, botereari eta merkatuari lotuta, baizik eta justu kontrakoa, gizartea hobetzeko mugimendu erreformista eta interbentzionistek lotuta agertzen da (Alvira, 2011).

Inkestak egiteko metodoak etengabe eboluzionatzen joan dira. Posta bidezko bidalketari edo landa-metodoen bidezko autoadministrazioari eutsiz, elkarrizketa pertsonala sortu zen landa-prozedura egokiena bezala, eta hori izan zen metodo nagusia hirurogeita hamar/laurogeiko hamarkadara arte. Garai horretan, telefono bidezko elkarrizketa agertzeak elkarrizketa pertsonala deuseztatzen du gehien erabiltzen den landa-metodo gisa; hamar urte geroago, gutxi gorabehera, online inkestak, inkesta pertsonalak eta telefono bidezkoak indargabetzen ditu (Alvira, 2011).

6. Grafikoa. Inkesta egiteko metodoen eboluzioa, 1993-2014.



Iturria: Investigación y sondeos de opinión Nexo.

Inkesta bat aurrera ateratzerako orduan, hainbat dira jarraitu behar diren pausuak: laginaren diseinua, galdetegiaren eraikuntza eta neurketa, elkarrizketa, kodifikazioa, landa-lanaren jarraipena eta antolaketa, analisirako datuen prestaketa, analisi-teknikak, erregistro eta analisi softwarea eta emaitzen aurkezpena (López-Roldán eta Fachelli, 2015).

Inkestak aukera ematen du eduki edo izaera soziala (inkesta soziala, datu sozialen matrizea) duen informazioa biltzeko eta aztertzeko, eta, batez ere, izaera objektiboagoko gertakari edo gertaerei erreferentzia egiteko, non inkestatua protagonista nagusia den eta bere bizitza pertsonaleko eta sozialeko inguruneari, iraganeko gertaeren ezagutzari edo oroitzapenari, eta biztanleria termino indibidualetan karakterizatu nahi denean, nahiz eta gizarte-harremanen analisi soziala formalizatzen duten gaiak planteatu daitezkeen (López-Roldán eta Fachelli, 2015).

Informazio subjektiboa biltzeko aukera ere ematen du inkestak. Pertsonak ahoz egindako adierazpenetatik, pertsonak emandako jarrera, irudikapen, asmo, motibazio, itxaropen, iritzi eta balorazioetatik abiatuta. Alderdi horiek dira, hain zuzen ere, beren jokabidearen oinarria, eta alderdi horietara hurbilago egon gaitezke. Subjektibotasunaren eremu horretan, inkesta ez da tresnarik onena, nahiz eta balioespen-munduaren alderdi ez hain sakon batzuk neurtzera hurbil daitezkeen (López-Roldán eta Fachelli, 2015).

Diseinua

Inkestaren helburua izan da gazteek zein ikus-entzunezko kontsumitzen dituzten eta zeintzuk kontsumituko lituzketen jakitea. Horretarako, inkestaren diseinua Google-ek duen aplikazioan osatu ostean, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko komunikazio sistematik zabaltzea erabaki genuen; hau da, Fakultateko ikasleei inkesta e-mail bitartez bidaltzea.

Inkestaren diseinua tutorearekin eztabaidatu zen bakarrik denbora kontuengatik. Ez genuen aukerarik izan pilotaje bat edo kontraste bat egiteko. Baldintza onuragarrietan, inkesta berrikusi beharko litzateke, eta zenbait adituri bidali euren iritzia jasotzeko (zer iruditzen zaien, zer aldatuko luketen, formulazioa, ordena...). Orain lortu ditugun emaitzek lagunduko digute ere zenbait aldaketa egiten etorkizunerako.

Prozedura

Helburua, ahalik eta gazte kopuru handienarengana iristea zen. Horretarako, esan bezala, inkesta Fakultateko komunikazio sistematik zabaltzea lortu genuen tutoreak erredaktatutako eskaera baten laguntzaz (izan ere, ez da ohikoa sistema hori erabiltzea ikasleen lanetarako). Egoera horretan bi arazo antzeman genituen: batetik, data. Ekainaren 1ean zabaldu genuen inkesta, eta ordurako ikasle gehienak oporretan zeuden, beraz, inkesta betetzeko aukerak gutxiago ziren. Bestetik, Fakultateko e-mailaren bitartez zabaldutako mezuen kasuan, ikasle askok, zabaldu ere ez dituzte egiten. Egoera horretan, inkesta emaitza gutxi jasorik, beste bide bat hartu genuen. Fakultateko bi irakaslek, Alazne Aiestaran eta Bea Narbaizak, euren ikasleei bidali zieten inkesta e-mailez. Lehenengo irakaslearen kasuan KAPUKO-ko lehen mailako ikasleen artean; eta bigarrenaren kasuan, Ikus-entzunezko Komunikazioko 3. eta 4. mailako euskarazko taldeetan. Horretaz gain, ezaguna nuen ikasle batek 4. mailako Publizitate eta Harreman Publikoko euskarazko klaseko WhatsApp taldetik zabaldu zuen. Hiru bide horiek erabiliz 67 emaitza lortu ditugu. Ez da guk aurreikusten genuen emaitza kopurua (100 inguru), baina ideia bat egiteko baliagarria izan zaigu.

3.3.2 Metodologia kualitatiboa: iturriak eta tresnak

3.3.2.1 Ikerketak eta txostenak

Ikuspegi kualitatibotik ere baliagarriak izan zaizkigu aurreko atalean aipatu ditugun ikerketa eta txostenak. Dokumentu horiek, eta beste asko, lanaren oinarriak finkatzeko erabili dira. Horiei esker, lehenengo hipotesiak, ikerketa-galderak eta analisiak atera ditugu eta marko teorikoa osatu dugu. Horiek baliagarriak izan zaizkigu ere jarraian azalduko ditugun informazioa jasotzeko tekniken gidioia osatzeko (focus groupa eta elkarrizketak).

3.3.2.2 Focus Groupa

Ikerketa lan honetan erabili den tekniketako bat *Focus Groupa* izan da (euskaraz, eztabaida taldea). *Focus Groupak* aukera eskaini digu euskarazko ikus-entzunezko sektorearekin harremana duten hainbat profesionalen ideiak kontrastatzeko eta eztabaida sortzeko moderatzaileak planteatutako egoeren aurrean.

Jarraian, lehenik eta behin, teknika honen printzipioak azalduko ditugu. Ondoren, gure lanerako egin dugun diseinua azalduko dugu. Azkenik, prozedura azalduko dugu, hau da, diseinatutako focus groupa egin eta bukatu arte jarraitu genuen ibilbidea.

Printzipioak

Hainbat egilek, horien artean Soler (1990) nabarmentzen da, focus groupa metodo eraginkorrenetako bat bezala kontsideratu izan dute kontsumitzailearen beharrak, motibazioak, jarrerak, nahiak eta portaerak sakon ezagutu eta ulertzeko. Ildo horretatik, aipatzekoa da taldeen komunikazioaren azterketak garrantzi berezia hartu duela, hainbat egileren aldetik (Bavelas, 1950; Katz eta Lazarfield, 1955; Kinder eta Sears, 1985; Roda, 1989; Smith eta Hyman, 1950; eta abar) psikologia sozialean. Egile horiek guztiak bat datoz hura giza taldeak aztertzeko funtsezko tresnatzat hartzeko orduan, batez ere ikus-entzunezko testuinguruaren barruko lanetan (Romeo, 1998).

Taldea, nolabait praktika soziala da, ikerketakoa bezala, eta, horren ondorioz, behatzeko eta ikertzeko teknika eguneroko gai normal bihurtu da ezinbestean, helburu horren atzean lagunarteko edo familiako gaiarekin zerikusirik ez duen helburu bat dagoela kontuan hartu gabe (Gutiérrez Brito, 2008).

Eztabaida taldeek eskaintzen dute gainontzeko tekniketan ezinezkoa den ezaugarria: parte hartzaileen arteko eztabaida planteatutako gaia edo galderaren inguruan. Horrek, elkarrizketa sinple batean ezinezkoa den eremura eramaten gaitu. Egoera horretan, moderatzaileak gaiak moztea eta inposatzea ekidin behar du, behatuek, modu lasaian gaiak landu ditzaten. Moderatzailearen gidoiaren ordena ez da inposatu behar, momentuko diskurtsora moldatu behar da (Gutiérrez Brito, 2008).

Gure kasuan eztabaida taldeak hiru partaide izan zituen, horren arrazoietan aurrerago sakonduko dugu. Baina egia da, partaide kopuruaren inguruan ere asko eztabaidatu dela. Betina Freidinek, Buenos Airesko Unibertsitateko Soziologia irakasle eta ikertzaileak, hauxe dio horren inguruan:

Si bien los enfoques más tradicionales evaluaban que el número ideal de participantes en un GF (grupo focal) oscilaba entre los seis y los doce (Asbury, 1995), recientemente los investigadores se inclinan por conducir grupos más reducidos. En la revisión del número de participantes intervienen cuestiones prácticas y sustantivas. Por un lado, lograr reunir a un número considerable de personas en un día y horario convenido y por un tiempo mínimo de una hora es muy laborioso, especialmente en la investigación académica en la que habitualmente no se recurre a reclutadores profesionales (práctica habitual en las consultoras privadas) ni se ofrecen incentivos monetarios por la participación. Esto ha llevado a que varios investigadores realicen grupos habitualmente de cuatro integrantes o incluso menos (Liamputtong, 2011; Morgan, 1995; Krueger, 1995). Algunos autores refieren a los grupos pequeños compuestos por entre 4 y 6 miembros como “mini” GF (Krueger y Casey, 2009, citados en Liamputtong, 2011: 42) y recomiendan su uso por facilitar el intercambio de visiones y experiencias con mayor detalle generando datos más ricos e interesantes. Por el contrario, grupos más numerosos hacen más dificultoso para el moderador focalizar la conversación y que las intervenciones de cada miembro sean escuchadas por el resto. (Freidin, 2016).

Focus groupen aurkezpenean ezinbestekoa da bileraren helburuak argi azaltzea eta landuko den gaia testuinguruan kokatzea. Argi utzi behar zaie parte hartzaileei topaketaren helburu nagusia eta bakarra dela ikertzaileak aztergai duen gaia lantzea. Beharrezkoa da ere ikerketaren oinarri diren kezketan parte hartzearen balioa eta garrantzia ezagutaraztea (Gutiérrez Brito, 2008).

Diseinua

Focus Groupa diseinatzerako orduan ikus-entzunezko sektorearekin harremana duten hainbat profesional biltzea erabaki genuen. Helburua zen, sektore beraren barruan disziplina desberdinetan dabilzanen ahotsak biltzea eta egungo egoeraren inguruko eztabaida sortzea. Lanaren zuzendariarekin hainbat izen eztabaidatu ostean, lau pertsonaz osaturiko taldea diseinatu zen, modu honetan kodetu direnak: EA1, BL2, BM3 eta EJ4. Hauek dira haien profilaren alderdi bereizgarrienak:

EA1. Pantailak Euskaraz mugimenduko kidea. Zuzenbidean eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua.

BL2. Komunikazioaren esparruko ikerlaria eta kazetaria. Euskal hedabideen sektorearen ezagutza sakona.

BM3. Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea. Europako hizkuntza minorizatueta telebista eremuan eta kultur politiketan aditua.

EJ4. Zinema zuzendaria eta gidoigilea. Arrakasta izan duten euskarazko hainbat filmen egilea.

Esan bezala, izen horien artean zeuden ikus-entzunezkoen inguruko herri mugimenduetako ordezkariak, ikerlariak, zinema zuzendariak eta bestelako adituak. Parte-hartzaileen identitateak babestuak izan dira konfidentziasuna eta anonimotasuna bermatzeko eta etorkizunean eskuragarri egon daitezzen. Horien profilak hirugarren eranskinean (konfidentziala) daude MALaren epaimahairen esku.

Prozedura

Behin parte hartzaile posibleak erabakita (EA1, BL2, BM3 eta EJ4), kontaktuan jarri ginen beraiekin e-mail bitartez ikerketaren berri emateko eta eztabaida taldean parte hartzera gonbidatzeko. EA1ek eta BL2k lehenengo momentutik baiezkua eman ziguten. BM3ren kasuan, dataren arabera konfirmatuko zigula adierazi zigun. EJ4en erantzunik ez genuen jaso dezente egunetan, orduan, bere e-mail pertsonala aurkitu genuen (aurrekoa enpresakoa zen) eta e-maila birbidali genion. Hortik egun gutxitara, zinema proiektu handi batean murgildua zegoela adierazi zigun, eta beraz, ezingo zuela parte hartu azaldu zigun, berarekin kontaktuan jarri izana eskertuz. Egoera horretan, laugarren parte hartzaile berri baten bila hasi ginen, eta hauxe zen bilatzen genuen profila: euskal zinema zuzendaria. Zertxobait ikertu ostean hiru izen berri planteatu genituen: ET5, EL6 eta EP7.

ET5. Zinema zuzendaria eta gidogilea. Hau ere arrakasta izan duten euskarazko hainbat filmen egilea.

EL6. Zinema zuzendaria, gidogilea eta ekoizlea. Hainbat sari jaso ditu nazioartean.

EP7. Zinema zuzendaria, antzerkigilea, aktorea eta idazlea.

Horietako biren e-maila Interneten aurkitu nuen, baina ET5en kasuan ez. Orduan komunikabide batean dudak lagun batek horren telefono zenbakia lortu zidan. Hirurek ezin zutela eztabaidan parte hartu erantzun ziguten. ET5ek sektoretik zertxobait aldendua zegoela esan zigun, eta berak baino gehiago dakien norbait aurkituko genuela. EL6k proiektu batean zebilela eta denborarik ez zuela adierazi zigun, eta EP7k egun horietan oporretan egongo zela. Orduan, berriro ere, parte hartzaile berrien bila hasi ginen. Bi izen berri atera ziren: EM8 eta BA9.

EM8. Zinema eta antzerki zuzendaria, aktorea eta gidogilea.

BA9. Zinema zuzendaria eta gidogilea. Arrakasta izan duten euskarazko hainbat filmen egilea.

Horien kontaktua ere lagunak lortu zidan. EM8k berehala erantzun zigun Costa Rica aldetik zebilela antzerki ikuskizun batekin eta zaila izango zuela parte hartzea, hala ere, eztabaidan parte hartzea eskaintzea eskertu zigun. Egun batzuetara, azkenean, BA9ren baiezkua lortu genuen, zinema zuzendari baten baiezkua lortu genuen. Hori lortu genuenerako egun dezente igaro ziren eta gero eta denbora gutxiago geneukan lana aurrera ateratzeko. Orduan, ahalik eta azkarren eztabaida eguna finkatzen hasi ginen. Hainbat egun proposatu genizkien eta nahiz eta eztabaida online burutu ezinezkoa izan zen lau parte hartzaileak biltzea! Batek lana zuen, besteak oporrak... Egoera horretan, aurrera egin ezinik egun bat finkatu genuen: uztailak 4. BA9k egun horretan ahal zuela komentatu zigun, EA1ek ez zeukala argi esan zigun eta BL2k eta BM3k ezin zutela esan ziguten. Egun batzuetara, EA1ek ezin zuela komentatu zigun, eta bere ordeztu, egun horretan ahal zuen eta antzeko profila zuen pertsona bat proposatu zigun: BI10.

BI10. Pantailak Euskaraz mugimenduko kidea. Enpresen kudeaketan lizentziatua.

BL2 eta BM3ri elkarrizketa egitea erabaki genuen, ez geneukan beste aukerarik. Orduan, berriro ere parte hartzaile bila hasi ginen, izan ere, bi pertsona soilik geneuzkan focus grouperako. Lanaren zuzendariak hiru izen berri gomendatu zizkidan eta haiekin kontaktuan jarri nintzen: EB11, EX12 eta EA13.

EB11. Zinema-kritikaria eta kazetaria.

EX12. Kulturgilea, bertsolaria eta idazlea.

EA13. Telebista saioetako zuzendaria eta erredaktorea.

Lehenengo eta hirugarrenaren erantzunik ez nuen jaso, eta bigarrenaren kasuan, EX12, egun dezente pasa ostein lan kontuak zirela eta ezingo zuela adierazi zidan. Aste bat baino gutxiago geratzen zen focus grouperako eta soilik bi partaide izaten jarraitzen genuen. Azken saiakera bat egin genuen, profil oso interesgarria zuen eta lanerako oso interesgarria izan zitekeen pertsona batekin: BJ14.

BJ14. Zinegilea, idazlea eta komunikazio arloko ikerlaria.

Egun oso gutxitan baiezkoa lortu genuen. Eskerrak! Aipatu beharra dago prozesu honetan EK15ekin ere kontaktuan jarri ginela, agenda kontuak zirela eta ezin izan zuen parte hartu.

EK15. Soziolinguista eta telebista aurkezlea.

Data: 2022ko uztailearen 4a Ordua: Goizeko 10ak. Lekua: Online, Google Meet bitartez. Parte hartzaileak: BA9, BI10 eta BJ14. Iraupena: 56 minutu.

Eguna eta ordua iritsi zenean, bertan ginen online konektatuta BA9, BI10 eta ni. BJ14ren arrastorik ez. Banekin BJ14k familia kontuak zirela eta zailtasunak izango zituela konektatzeko. Bien bitartean, nik, BA9 eta BI10 elkar aurkeztu nituen. BI10k BA9ri komentatu zion ea bere arreba ezagutzen zuen proiektu batean elkarrekin aritu zirelako, eta baiezkoa izan zen. Orduan, biak hizketan hasi ziren. 10:10ean BJ14 konektatu zen eta focus groupari hasiera eman genion. Eztabaida ondo joan zen, parte hartzaileen arteko komunikazioa eta elkarreragina egon zen. Gidoia eztabaidako diskurtsora moldatu behar izan nuen eta galderen ordena aldatu behar izan nuen. Denbora kontuak zirela medio, hainbat galdera ezin izan nituen egin. BI10ek 10:50 inguruan eztabaida utzi zuen, lan bilera bat zeukalako. Gainontzeko bi partaideei beste pare bat galdera egin nizkien eta 11:06an bukatu zen eztabaida. Elkarrizketa online izan zenez, ordenagailuko aplikazio baten bitartez grabatu zen bai bideoa eta baita audioa. Horiek gordeta daude eta transkripzioak, lanaren amaieran, hirugarren eranskinen (konfidentziala) daude eskuragarri.

3.3.2.3 Sakoneko elkarrizketak

Sakoneko elkarrizketak izan dira erabilitako beste tresna kualitatibo bat. Hauetan ere euskarazko ikus-entzunezko sektoreko profesionalak izan dira protagonista, baina, helburu desberdinekin. Aurreko teknikarekin bezala, honetan ere teknika honen printzipioak, diseinua eta prozedura azalduko ditugu.

Printzipioak

Ikerketara bideratutako elkarrizketei maila profesionalean *helburudun elkarrizketak* deitu izan zaie, Webbtarren obran jada agertzen da termino hori (1932/1975); *elkarrizketa-solasaldiak* eta antzeko aipamenak ere erabili izan dira (Patton, 1990; Johnson, 2002; Johnson eta Rowlands, 2012; hemen aipatua: Valles, 2014).

Bide beretik, interesgarria da Robert Atkinsonek egiten duen elkarrizketaren definizioa (gaztelaniaz mantendu dugu ñabardurak ez galtzeko):

Una entrevista es como una conversación, pero no es una conversación. Una entrevista debería ser informal y deshilvanada, como una conversación, pero en una entrevista, la otra persona es la que habla. Tú eres la que escucha. Tu conocimiento y tu voz deberían permanecer en segundo plano, primordialmente para proporcionar apoyo y ánimo. Una entrevista debería tener un empuje claro, tal como lo tiene un ritual que separa el tiempo ritual del tiempo regular. Una entrevista te permite también hacer preguntas con más detalle que en una conversación normal. Una entrevista tiene un modo propio que permite, por un lado, mucha más profundidad y por otro, una explicación de lo obvio (Robert Atkinson, 1998:32; hemen aipatua: Valles, 2014).

Metodologo kualitatibisten (Gorden, 1969; Spradley, 1979; McCracken, 1988; Valles, 1997; Wengraf, 2001; Flick, 2000, 2004; Kvale, 2007; beste batzuen artean) gomendia da elkarrizketa espektro zabaleko galdera batekin hasia. Are hobeto, kontua ez litzateke galdetzea ere, baizik eta narrazio eremu birjina bat adieraztea eta elkarrizketatuari bidezidor egokiak irekitzen uztea. Gehieneko irekiera horren ondoren, elkarrizketatzaileak esku hartuko luke azalpenak eskatzeko, adierazitakoa gehiago lantzea eskatzeko edo beste eremu narratibo batzuei heltzeko (Valles, 2014). Hori da hain zuzen ere guk elkarrizketetan egin duguna. Geroago aipatuko ditugun BL2 eta BM3ri egindako elkarrizketak galdera zabal honekin hasi ziren: *Euskarazko ikus-entzunezkoen produktzioa nolakoa da, kalitateari, kuantitateari, diru laguntza publikoei, zabalakundeari dagokionez?* Modu horretan, galdera horren ostean, erantzuntakoaren arabera, alor batzuetan edo beste batzuetan sakontzeko aukera izan genuen galdera zehatzagoak planteatuz. BU15i egindako elkarrizketan, ordea, ez zen lehenengo galderarik egon, egoera bat planteatu zitzaion eta hortik abiatu ginen.

Sakoneko elkarrizketak gutxitan izaten dira ikerketaren datu-iturri bakarra. Ohikoagoa da, beste bide batzuetatik bildutako datuekin batera erabiltzea, hala nola, elkarrizketatzaileak kide edo parte-hartzaile gisa bizi izan duen esperientzia, behaketa naturalista, elkarrizketa informalak, dokumentu-erregistroak eta taldeko landa-ikerketak. Kasu askotan, ikertzaileek sakoneko elkarrizketak erabiltzen dituzte behaketa naturalista bidez formulatu dituzten teoriak egiaztatzeko modu gisa, kultura-toki partikularretako kide gisa parte hartuz irabazitako ezagutza modu independentean egiaztatzeko, edo ekintza, gertakari edo kokapen batzuei buruzko perspektiba edo esanahi anitzak aztertzeko (John M. Johnson, 2002: 104 -105; hemen aipatua: Valles, 2014). Gure kasuan ere elkarrizketak ez dira izan informazio-iturri bakarrak. Horretaz gain, aurretik egin diren ikerketak, elkarrizketak, azterketak eta abar erabili dira, eta noski, inkesta eta focus groupa. BL2 eta BM3ri egindako elkarrizketak informazio-iturri gisa erabili dira, baina, BU15i egindakoa, horretaz gain, formulatu ditugun teoriak eta datuak kontrastatzeko ere erabili da.

Hainbat elkarrizketa mota bereiz ditzakegu estandarizazio-mailaren arabera (norabidea, malgutasuna), hau da, bi eragileei, elkarrizketatzaileari eta elkarrizketatuari ematen zaizen askatasun- edo konstrikzio-maila desberdinen arabera. Elkarrizketa tresna irekia da, malgua, testuinguru enpiriko desberdinetara eta interakzioa gertatzen ari den bitartean molda daitekeena. Malgutasun-mailaren arabera, oinarritzko hiru elkarrizketa mota bereiz ditzakegu: egituratuak, erdi egituratuak eta egituratu gabek edo askeak (Tejero, 2021).

- **Elkarrizketa egituratuak:** Galdera irekien gidoi eta ordena zehatza dago.

- **Elkarrizketa erdi egituratuak:** Aztertu beharreko galdera eta gai multzo bat dago, baina ez dago idazketa zehatzik, ezta azalpen-ordenarik ere.
- **Elkarrizketa egituratu gabeak edo askeak:** Ez dago gidoirik, ez dago aurrez definitutako galderarik eta gairik, ezta ordenarik ere. Ikertzaileak bere ikerketa galderak besterik ez ditu buruan.

Gure kasuan, burutu ditugun elkarrizketak egituratu eta erdi egituratuen artean koka ditzakegu. Izan ere, gidoi zehatz bat egon da elkarrizketa guztietan, baina ez da ordena zehatz bat mantendu. Emandako erantzunen arabera galdera batzuk aukeratu dira eta baita horien ordena.

Discinua

Hasiera batean elkarrizketa bakarra egitea erabaki zen, BU15i. Horren helburua zen gainontzeko tekniketarik ateratako informazioa berarekin kontrastatzea eta aldi berean, informazioa lortzeko hainbat galdera egitea. Baina, aurretik aipatu dugun moduan, azkenean, BL2 eta BM3ri ere elkarrizketa egin behar izan genien agenda kontuak zirela medio.

Prozedura

BL2ren eta BM3ren kasuan, aurreko atalean lortu genuen baiezkua, eta BU15en kasuan, duen kargua kontuan hartuta, zaila ikusten genuen baiezkua ematea. Baina e-maila bidali bezain azkar baietz esan zigun.

Data: 2022ko uztailaren 6a
 Ordua: Goizeko 10:30ak.
 Lekua: Online, Google Meet bitartez.
 Elkarrizketatua: BM3.
 Iraupena: 58 minutu.

Elkarrizketa ondo joan zen eta prestatuta geneukan gidoia jarraitu genuen. Hasiera batean zertxobait laburragoa izatea aurreikusten genuen, 30 minutu inguru, baina galdera kopurua kontuan hartuta dezente luzatu zen. Focus groupean parte hartzeko aukera izan ez zuenez, elkarrizketa *txiki* bat egitea proposatu genion, horregatik ez genuen nahi gehiegi luzatzea. Informazio interesgarria atera genuen eta BU15i egiteko hainbat galdera proposatu zizkigun.

Data: 2022ko uztailaren 12a
 Ordua: Goizeko 9ak.
 Lekua: Online, Google Meet bitartez.
 Elkarrizketatua: BL2.
 Iraupena: 30 minutu.

Elkarrizketa hau ere ondo joan zen. Aurrekoa baino laburragoa izan zen galdera gutxiago egin genizkiolako. Euskal Herritik kanpoko ikus-entzunezkoen egoeraren inguruko hainbat galdera genituen prestatuta, baina lehena egitean, gai horren inguruan informazio gehiegi ez zeukala komentatu zigun. Beraz, prestatuta genituen ondorengo galdera horiek ez genizkion egin.

Data: 2022ko uztailearen 13a Ordua: Goizeko 10ak. Lekua: Telefono mugikor bitartez. Elkarrizketatua: BU15. Iraupena: 55 minutu.

Elkarrizketa hau ere Google Meet bitartez egitea aurreikusten zen. Hitzarturiko egun eta orduan konektatu ginen eta BU15 konektatzen ez zela ikustean, e-maila konprobatu genuen. BU15ek 10:05ean e-mail bat bidali zigun esanez ez zuela aukera plataforma hori erabiltzeko eta ea aukera zegoen mugikor bitartez egiteko. Nahiz eta hori ez izan erabakitakoa baietz esan genion. Elkarrizketa honek ia ordu bat iraun zuen, lanean ateratako hainbat konklusioaren inguruan eztabaidatu genuelako eta galdera dezente egin genizkiolako. Kasu honetan, erantzunaren arabera galderen ordena ere aldatu behar izan genuen.

Lehenengo bi elkarrizketen kasuan, elkarrizketa online izan zenez, ordenagailuko aplikazio baten bitartez grabatu zen bai bideoa eta baita audioa. Hirugarrenaren kasuan, telefono bitartez izan zenez, audioa bakarrik grabatu zen. Horiek gordeta daude eta transkripzioak, lanaren amaieran, hirugarren eranskinean (konfidentziala) daude eskuragarri.

.....

Dagoeneko bukatu dugu atal honekin. Lanaren helburuak, hipotesiak eta metodologia azaldu ditugu. Lehenengo bien inguruan berriro hitz egingo dugu lan honen azken orrialdeetan, konklusioak eta proposamenak garatzen ditugunean. Metodologiaren inguruko aipamenen bat ere egingo dugu. Esateko geratzen da atal hau baliagarria izan zaigula lanaren oinarriak finkatzeko eta modu ordenatu batean lanean hasteko. Metodologiaren atalean, zehazki, ohartu gara atal guztiak ondo definituta izatearen garrantziaz. Jarraian, atal honetan aipaturikoa praktikan jarriko dugu eta bertatik ateratako edukia aurkeztuko dizuegu. Eraitzen analisiari ekingo diogu.

4. EMAITZAK: datuak eta analisia

Kapitulu honetan, egin dugun ikerketatik atera ditugun edukiak aurkeztu eta aztertuko ditugu. Lehenago aipatu dugun moduan, informazio hori jasotzeko inkestak, focus groupa eta elkarrizketak baliatu ditugu. Eta noski, aurretik egindako ikerketak, txostenak, elkarrizketak, artikulatuak, liburuak, eztabaidak... ere erabili ditugu.

Jarraian aipaturiko hiru metodo horietako bakoitzetik atera ditugun datu, informazio eta eduki esanguratsuenak aurkeztuko dizkizuegu. Ondoren, lanerako erabili ditugun gainontzeko ikerketa eta txostenetako datuekin batera emaitzak analizatuko ditugu.

4.1 Inkesta

Lagina	EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleak
Kanala	E-maila eta WhatsApp
Inkesta zabalduko eguna	2022ko ekainaren 1a
Erantzun kopurua	67

Inkesta Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 67 ikasle erantzun dute. Lehenago aipatu moduan, 2022ko ekainaren 1ean zabaldu genuen fakultateko komunikazio sistematik (e-mail orokorra), bi irakasleen e-mailetik eta ikasleen WhatsApp talde batetik. Inkesta honen helburua da gazteek gaur egungo ikus-entzunezkoen eskaintza baloratzea, euskarazkoena zehazki, eta jakitea zer ikusten duten faltan eta zer kontsumituko luketen. Jarraian, hortik lortutako emaitzak aurkeztuko eta aztertuko ditugu. Horretarako, bost atal sortu ditugu: profila, kontsumo ohiturak, streaming plataformak, telebista eta fikzioa. Kontuan izan galdetegia eta inkestaren emaitza gordinak lehen eta bigarren eranskinean dituzuela eskuragarri.


Profila

Ikasle horien adinari erreparatzen badiogu gehiengoa (% 80,4) 18 eta 23 urte bitartekoa da. Hala ere, adin horretatik gorako zenbait ikasle ere parte hartu dute. Sexuari dagokionez, emakumeak izan dira gehiengoa (% 70,1). Ikasten ari diren graduari dagokionez, % 40,3 Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleak dira, % 28,4 Kazetaritza ikasleak eta % 17,9 Publizitate eta Harreman Publikoko ikasleak. Horietaz gain, Soziologia, Gizarte Lana, Antropologia eta komunikazio masterretako zenbait ikasle ere erantzun dute.

Kontsumo ohiturak

Edukietan sartuz, hauxe da ikasleei planteatu diegun lehenengo galdera: Ondorengo hauetatik zeintzuk kontsumitu ohi dituzu? Hauxe izan da erantzuna:

7. Grafikoa. Ondorengo hauetatik zeintzuk kontsumitu ohi dituzu? (%)




Google Formsek automatikoki sortutako grafikoa.

Goiko grafikoa argi ikusi dezakegu filmak (inkestatuen % 88,1ek kontsumitu ohi ditu), entretenimendua (% 83,6) eta informazioa (% 83,6) direla gehien kontsumituak. Baina filmak ez diren gainontzeko fikziozko edukiak (% 64,2), podcastak (% 59,7) eta youtuber eta streamerrak (% 65,7) ere dezente kontsumitzen dira. Gutxien kontsumituak dira bideojokoak (% 34,3) eta antzerkia (% 28,4). Horietakoren bat kontsumitzen ez badute, zergatik den ere galdetu diegu. Gehiengoak, % 79,4k, ez duelako interesik edo ez duelako gustuko erantzun du.

Jarraian horietako zeintzuk kontsumitzen dituzten euskaraz galdetu diegu. Informazioa izan ezik, gainontzeko edukien ehuneko nabarmen jaitsi da.


8. Grafikoa. Horietako zeintzuk kontsumitzen dituzu euskaraz? (%)



Google Formsek automatikoki sortutako grafikoa.

Filmak kasuan, % 88,1etik % 22,4ra jaitsi da; entretenimendua % 83,6tik % 37,9ra; filmak ez diren fikziozko edukiak % 64,2tik % 15,5era; podcastak % 59,7tik % 22,4ra; youtuber eta streamerrak % 65,7tik % 8,6ra; antzerkia % 28,4tik % 22,4ra eta bideojokoak % 34,3tik % 0ra. Informazioa puntu bat baino gutxiago erori da: % 83,6tik % 82,8ra. Horrek argi uzten digu zein den euskarazko edukien indargunea (informazioa) eta zeintzuk diren ahulguneak (gainontzeko denak), izan ere, hori estuki dago lotuta dagoen euskarazko eskaintzarekin. Ondorengo galderak argi uzten du hori:

9. Grafikoa. Euskaraz ez badituzu kontsumitzen, zein da arrazoa?



Google Formsek automatikoki sortutako grafikoa.

Emandako arrazoen ehuneko handi bat eskaintzarekin egon da erlazionatua. Hauxek dira gehien errepikatu direnak: ez daude euskaraz eskuragarri, beste hizkuntzetakoak kalitate hobegokoak dira, nahiago ditut beste hizkuntza batean kontsumitu, beste hizkuntzatan bariedade gehiago dago...

Hor argi dago arazo handia daukagula. Inoiz baino eduki gehiago produzitzen dira munduan eta ia denak gure eskura daude, zeri itxaroten ari gara euskarazko kalitatezko eduki gehiago ekoizteko?

Bide beretik, euskarazko edukien eskaintza (kantitatea, kalitatea...) baloratzeko eta hutsune nabariena identifikatzeko eskatu diegu. Emaitzak jasota, ohartu gara, lehenengo galdera ez dagoela ondo formulatua, izan ere, eskaintza nota batekin baloratzeko eskatu diegu eta izan daiteke batentzat kantitateak 0 bat merezitzea eta kalitateak, ordea, 10. Beraz, puntuazio bakarra emateko aukera izanda, zein nota jarriko luke? 5 bat? Beraz, erantzun horiei ez diegu erreparatuko. Bai erreparatuko diegu, ordea, zein hutsune nabari identifikatu duten galderari. Hauek izan dira jaso ditugun erantzun batzuk:

Kantitatea
Barietate falta
Modan dauden pelikula eta serieak ez daude euskeraz, subtítuloak ere ez.
Kantitatea eta euskarazko jatorrizko eduki gutxi
Youtube edo streamer desberdinen falta
Kultura
Filmak eta telesailak
Alde baterik, ez direla euskarazko produktu asko egiten, eta bestetik, egiten direnen artean ez daukate hainbesteko zabalkuntzarik. Gainera, ez dira produktu asko euskarara bikoizten.
Kantitatea. Ez dago euskarazko eskaintza handirik, eta gaztelania edo ingelesez askoz ere aukera gehiago dituzu, hortaz errazagoa da gustukoa zaizun zerbait euskara ez den beste hizkuntza batean aurkitzea.

Euskarazko eduki askok aurrekontu oso txikia izan ohi dute, eta ahal dutena egiten dute.

Kantitate eskasia: eduki txarra hizkuntza guztietan dago, baina kantitatean denetarik dagoenez, ez da arazo bat. Guri kantitatea falta zaigu.

Ez dago aniztasunik. Eduki ezberdinak behar dira sarean. Horrez gain, plataforma digitaletan ez dago aukerarik.

Ume/gazteentzako fikziotik at, helduentzako fikzioa euskaraz.

Gazteek ez ditugu gure intereseko gaiak aurkitzen euskaraz

Streaming plataformak

Munduan nagusi diren streaming plataformetan (Netflix, PrimeVideo, Disney+ eta HBOmax) euskarazko edukiak %0,02 dira. Filminen kasuan %0,65.

Datu hori aurkeztuta, plataforma horietan euskarazko edukiak areagotuko balira kontsumituko lituzketen galdetu diegu: % 82,1-ek baietz erantzun du, % 11,9k ez dakiela eta % 3k ezetz. Beste bik horrelako zerbait erantzun dute: *Normalean horrelako edukiak jatorrizko hizkuntzan kontsumitzen ditut, beraz, euskal edukien ekoizpena areagotuko balitz bai, bestela ez. Hala ere eduki bauen euskaratzea garrantzitsua da.*

Lerro beretik, ondorengo baieztapen hau 0tik 10era baloratzeko eskatu diegu: *Euskarazko edukiak (jatorrizko hizkuntzan eta beste hizkuntzetara egokituak mundu mailako streaming plataformetan egotea ezinbestekoa da.* % 65,1 erabat ados dago baieztapenarekin, % 22,7 oso ados dago, % 3 ados dago eta % 4,5 ez dago ados. Horrekin batera, Estatuko beste eremu batzuetan burututako ikus-entzunezkoak euskarazko azpitoluekin eskura izatea nola baloratzen duten galdetu zaie: %53ri bikain iruditu zaio, % 22,8ri oso ondo, % 12,2ri ondo, % 4,5i berdin zaio eta % 13,6ri ez zaio ideia ona iruditzen.

Euskara eta streaming plataformekin jarraituz, *Pantailak Euskaraz* mugimendua ezagutzen duten eta mugimenduarekin bat datozen galdetu diegu. Gehiengoak (% 72,7) ez du ezagutzen, eta ezagutzen dutenen artean (% 25,7) ia denak (% 22,7) ados daude mugimenduaren aldarrikapenekin. Mugimendu horren aldarrikapenetako bat da euskarazko streaming plataforma sortzea; hori beharrezkoa ikusten duten galdetzean % 68,7k baietz esan du, % 14,9k, ordea, ez du beharrezkoa ikusten. % 6k berdin zaiola erantzun du eta % 10,4k ez dakiela. Jarraian, plataforma horrek izan beharko lituzken ezaugarrien inguruan galdetu diegu. Guk hainbat ezaugarri planteatu dizkiegu azken aldi egin diren aldarrikapenak kontuan izanda, eta hauek izan dira horiekiko adostasun maila:

- Munduko serie eta film arrakastatsuak euskaratuak: % **75, 8 ados**
- Euskal errealitatean oinarrituriko fikziozko edukiak: % **71 ados**
- Euskaraz gain beste hizkuntzetako edukiak ere egotea: % **43,5**
- Gustuen arabera plataformak edukiak gomendatzea: % **50**
- Zuzeneko ikuskizunak eskaintzea (kontzertuak, antzerki ekitaldiak, kirol ekitaldiak...): % **46,8**

Horietaz gain, inkestatuek besteren bat ere planteatu dute:

- Eduki propioa sortzea, euskaraz
- Beste hizkuntza txikituak barne biltzea
- Euskaraz egindako film, telesail edo dena delakoa plataforma horretan egotea, horrela eskura ahal izateko.
- Euskal animazioarentzat espazio berezi bat.

Jarraian, ondorengo elementu hauek barneratu beharko lituzkeen galdetu diegu, hauxe da erakutsi duten adostasun maila:

- Twitchen bideo jokoei, musikari eta zineari buruz euskaraz dauden saioak: % **56,5 ados**
- Bideopodcastak (Gazteako Yoko Ona, adibidez): % **58,1**
- Euskal youtuberrak sortzen dituzten edukiak: % **50**
- Kimuak bezalako ekimenetan hautatzen diren laburmetraiak: % **74,2**

Hemen ere, inkestatuek besteren bat planteatu dute:

- Dokumentalak eta bestelako hezkuntza/informazio iturriak
- Euskal zuzendari txikien filmak, aukera emateko.

Telebista


Telebistara jauzi eginez, egin diegun lehenengo galdera izan da ea telebista euskaraz ikusten duten (modu linealean edo online). Erdiak % 50,7k ezetz erantzun du, eta % 46,3k baietz. Inkestatutakoetako batek orokorrean ez duela telebista asko ikusten erantzun du, eta beste batek, zuzenean hauxe erantzun du: Gutxi, kalitate txarra eta eskaintza urria. Baietz erantzun dutenei zein eduki ikusi ohi dituzten galdetu diegu, hauexek dira aipatu dituztenak:

Gaur egun
Youtuben beti barre libreko bakarrizketak
Teleberria, zurekin bat.
telesailen bat eta albisteak

Herri txiki infernu handi
Albistegiak, entretenimenduzko edukiak eta lehiaketaren bat
Ur Handitan, Gaur egun, Mustang miragarriak, Irabazi arte,
Ur handitan
Berriak
informatiboak
Albistegiak
Merli euskaraz era Teleberri.
Herri txiki, infernu handi. Teleberria, Irabazi Arte telesaila, Barre Librea, Biba Zuek
Albisteak edo programaren bat zehatza
Lehiaketak, haien artean zurekin bat.
Gaur egun eta Biba Zuek (ETB1)
Pilota partiduak eta albisteak
Telebista eta irratia
Telesailak
Hamaika Telebista
EITBko magazine batzuk (Ahoz aho adibidez), Gaur egun, suertatzen bada leihaketaren bat
Ur handitan, Herri txiki infernu handi eta Zurekin bat
Eitb1 eko albistegia
Kirola, programak, albisteak...
Albisteak batez ere
Informazio saioak
Entrenimenduzko saioen bat
Biba Zuek
Albistegiak eta dokumentalak, batez ere
Entrenimendua eta albisteak batez ere.
Herri Txiki Infernu Handi, albisteak, Ur Handitan, Txoriene, etab.

Telebistako euskarazko eduki horiek 1etik 10era baloratzeko eskatu diegu:

10. Grafikoa. Baloratu itzazu euskarazko edukiak telebistan.



Google Formsek automatikoki sortutako grafikoa.

Erdiak baino gehiagok (% 56,2k) 7 bat edo gehiagorekin baloratu ditu euskarazko telebista eduki horiek. %17k, ordea, ez die gainditua ematen eduki horiei.

Ondoren, euskarazko telebista edukietan zer ikusten duten faltan galdetu diegu. Jarrain erantzun batzuk bildu ditugu:

- Gazteei zuzendutako edukia
- Euskarazko fikzioa
- Gazteentzako entretenimenduzko programa gehiago
- Euskarazko dokumentalak
- Nerabe eta helduentzat telesailak
- Dinamismoa eta diru inbertsioa
- Umorezko programak botatzen ditut faltan
- Sareetan gazteei interesatzen zaizkien edukiak telebistara ekarri

Fikzioa

Fikzioaren inguruan, hauxe da egin diegun lehenengo galdera: *Zein ezaugarri izan bebar ditu euskarazko fikziozko eduki batek zuek ikus dezazun?* Guk ezaugarri batzuk planteatu dizkiegu eta hauxe da erakutsi duten adostasun maila:


- Bizitzan aplikatu ditzakegun ideiak eta egoerak aurkitzea: % **56,1** ados dago horrekin
- Ezagunak zaizkigun lokalizazioak aurkitzea: % **21,2**
- Izen ona duten euskal aktoreen presentzia: % **13,6**
- Bisualki erakargarria: % **90,9**
- Iraupen laburreko atalak: % **27,3**

Ondoren, inkestatuei beste ezaugarriren bat gehitzeko eskatu diegu. Hauxek erantzun batzuk:

- Ideia edo gidoi interesgarriak izatea.
- Istorioa interesgarria izatea, kontakizun interesgarria.
- Ez du zertan “euskaltasunean” oinarriturik egon. Esaterako, Sex Education Erresuma Batukoa da baina institutu estatubatuarretako serieen ohiko ezaugarriak hartzen ditu.
- Kalitatea izatea.
- Ezberdina izatea, zerbait berria.
- Beste herrialdeetan egin diren filmen kopia hutsak ez izatea.
- Euskal identitatea, euskal eguneroko edota kultura eta hizkuntza mundu mailan ezagunagoa egitea, oso interesgarria bata, eta jende askorentzat (Estatu Batuetan adibidez) guztiz berria izango zen. Modu erakargarri batean eginez gero, interes handia sortuko du.


Ondoren, fikziozko eduki hori zein plataforma motatan egon behar den eta atalak zein maiztasunekin kaleratu behar diren galdetu diegu. Ondorengo bi grafikoetan ditugu horien erantzunak:

11. Grafikoa. Zein plataformatan egon behar da fikziozko eduki hori?



Google Formsek automatikoki sortutako grafikoa.

12. Grafikoa. Zein maiztasunekin kaleratu behar dira atalak?



Google Formsek automatikoki sortutako grafikoa.

Inkesta honetan aurkeztu ditugun datuek indartu egin dute lehenago egin dugun diagnostia: euskarazko ikus-entzunezkoetan hutsune handia dagoela, eta zehazki, gazteei begira sorturiko edukiak hutsarena hurrera direla. Gainera, informazio arloan euskara sendo dabilela berretsi dugu.

Bide beretik, ikus-entzunezkoen inguruan gazteek dituzten interes, behar edo nahiak ezagutzeko lehen hurbilpena izan da. Hala ere, esan beharra dago inkestak bi muga nagusi izan dituela: batetik, jasotako erantzun kopuruak ez dira nahi beste izan konklusio sendoak ateratzeko. Bestetik, ondo legoke inkestan aipatu diren zenbait puntutan dezente gehiago sakontzea eta beste arlo batzuetara ere zabaltzea.

4.2 Focus group

Parte hartzaileak	BA9, BI10 eta BJ14
Kanala	Online, Google Meet bitartez
Data	2022ko uztailaren 4a, goizeko 10ak
Iraupena	56 minutu

Atal honetan, burutu genuen focus groupa aztertuko dugu. Erreminta hau erabiltzearen helburua izan da sektoreko langileak, sektorean adituak direnak eta herri mugimenduak ordezkaten dituztenak biltzea eta ikus-entzunezkoen egungo egoera aztertzea eta eztabaidatzea. Bide beretik, etorkizunera begira eman beharreko pausetan sakontzea. Horrekin hasi aurretik, gogoratu ditzagun bi gauza: batetik, horren transkripzioa hirugarren eranskinean (konfidentziala) dagoela eskuragarri; bestetik, parte hartzaileen profila zein den:

- **BA9:** Zinema zuzendaria eta gidoigilea.
- **BI10:** Pantailak Euskaraz herri mugimenduko kidea.
- **BJ14:** Film eta dokumental zuzendaria eta ikus-entzunezkoen esparruko ikerlaria.

Xehetasun gehiagorako ikus 3. Eranskina (*eranskin konfidentziala*)

Jarraian azalduko ditugu focus groupean landu diren gaiak eta horiekiko azaleratu diren ikuspegi anitzak. Era berean, nabarmenduko ditugu zertan ikusten diren adostasunak eta zertan desadostasunak.

Hasteko, esan beharra dago, adostasuna nabarmena izan dela planteatu diren gaien oinarrian. Kontuan izan behar dugu, parte hartzaileetako bik sektorean lan egiten dutela eta beraz, maila desberdinean, antzeko bizipen, arazo edota kezka izan ditzaketela. Hirugarrenak (BI10), sektorean lan egin ez arren, oso ondo ezagutzen ditu sektoreko profesionalen, kontsumitzaileen eta herri mugimenduen aldarrikapenak.

Euskarazko ikus-entzunezkoen sektorearen balorazioa egitea eskatzerako orduan, hau da, produkzioen kalitatea eta kantitatea nolako den eta diru laguntza publikoak eta zabalkundea nolakoak diren baloratzeko orduan, ikuspegi desberdinak plazaratu dira baina denak bide berean:

BA9: Gero eta zinegile gehiago euskaraz lan egiten dutenak, produkzioetan kalitate eta aniztasun handia. Atzerrian aintzatespena jaso duten proiektuak. Dirulaguntza urriak.

BJ14: Lehen aldiz euskal zinema bat dagoela esan dezakegu. Baina berandu goaz, pausu bat atzetik, ez gara iristen gainontzeko herrialdeetako zinematografiaren erritmora. Euskal filmek ikusle kopuru oso baxua izan dute, eta gaur egun ere antzera gabiz.

BI10: Ekoizpen propioa babestu behar da, baina ez da nahikoa egungo edukien kontsumoa asetzeko (streaming plataformen garaian). Bikoizketa eta azpidatzen sektorea indartu behar da, eduki oso gutxi bikoizten dira, gehienak gazteei bideratuak. Estrategia falta dago. Gaur egungo euskarazko eskaintzarekin ezinezkoa da zinemara joateko ohitura sortzea. Euskal Telebistak azken urteetan ez du bide egokia egin arlo honetan.

Azken urteetan alor horietan hobera edo txarrera egin dugun galdetzean bakoitzak alor batean jarri du arreta, baina denak lerro beretik doazela esan dezakegu:

BA9: *Zinemagintzaren panorama izugarri aldatu da serieen boomarekin. Plataformek diru asko sartu dute serieetan, lan asko sartu da eta teknikoak aurkitzea oso zaila da orain. Ikusleen aldetik ere aldatu da, zinema hutsik daude. Euskarazko serie potenteak egin behar dira munduan egon nahi badugu. Plataformekin loturak bilatu behar dira. EITBk apustua egin behar du.*

BI10: *Urte asko darama bikoizketak estankatua, egon beharko lukeen mailatik oso behera. EITBk iragarri duen plataforma albiste ona da, baina horrek edukiak beharko ditu. Sektore bezala ez dakit prest gauden, orain da momentua apustua egiteko. EITBk izan behar du sektorearen motorra. Izan behar du euskararen sustatzaile.*

BJ14: *Ez da bakarrik kultura edo hizkuntza kontu bat, aukera ekonomikoa da. Jauzi bat egin behar da, kontzeptu aldaketa bat, kontua ez da laguntzen aurrekontua zertxobait igotzea.*

EITBk babesten dituen euskarazko produkzioen proportzioaren inguruan galdetzean (azken hamalau urteetan babestu diren lanen heren bat izan dira euskaraz ekoiztiak) iritzi eta ikuspegi desberdinak azaleratu dira. Batzuen iritzi euskarazko produkzioak bakarrik babestu behar dira, beste batzuen iritzi, ordea, gaztelaniazko ere lekua utzi behar zaie. Bide beretik, gogoeta eta estrategia baten beharra dagoela aldarrikatu da eta ikus-entzunezko kontseilu baten beharra ere azpimarratu da.

Aipatzeko da, parte hartzaileen arteko elkarreragina nabarmena izan dela eta eurek ere galderaren bat egin diotela elkarri. Hauxe horren adibide bat: Euskarazko fikzioaren inguruan galdetzean, BA9k serieen gaur egungo potentzialaz hitz egin du, eta adibide bezala jarri du berak eta bere ekoiztetxeak Netflix-entzat garatu duten *Intimidad* izeneko seriea (Esan beharra dago serie hori ingelesez ez den serierik ikusiena dela munduan Netflixen⁹).

BA9: *Harritura nago Intimidad izeneko serieak lortutako zenbakiekin. Ni serieen kontrakoa nintzen orain dela hiru aste arte, baina konturatu naizenean ze dimentsio daukan, bueno egia da espezio bat dela arrakasta eduki duena mundu osoan, baina ikusten dituzu numeroak eta esaten duzu ze erremienta potentea mundu osora iristeko, zergatik ez dugu apustua egiten serieak egiteko fuerte euskaraz eta igual bost serietatik bat iristen bada horra, munduan kokatuta egongo gara eta marka edukiko dugu eta entzungo da, orain basque izango litzake, ez? Gure marka edo¹⁰.*

BJ14: *BA9, Intimidad-en hizkuntzarena, adibidez, produktore exekutiboa zuei etorri zitzaizuenean gidoitik zetorren espainolez izan behar zela, edo? Esan nahi dut Txintxuak edo dena delakoak hartzen du horrelako enkargu bat eta hor zer gaitasun eduki ahal du produktorak eragiteko edo proposamenak egiteko?*

⁹ Como "Intimidad" se ha convertido en la serie más vista de Netflix. Diez Minutos, 2022-06-23.

<https://www.diezminutos.es/teleprograma/series-tv/a40387075/intimidad-serie-netflix-mas-vista/>

¹⁰ Informatzailearen identitatea babesteko, berariaz moldatua. Jatorrizko testua eskuragarri dago hirugarren eranskinean (eranskin konfidentziala).

BA9: Bai, ba hor produktua ez dator idatzita baina planteamendua oso argi dator ze serie nahi duten egin. Gero gu sartzen garenean Marian, produktore exekutiboa, gidoiaren gaineko jarraipena egiten dago. Bilbon kokatua izanik euskara pixka bat edo behintzat errealitatearekin lotutako gauzak; ikastola baten gaur egun ezin daiteke erderaz hitz egin ez bada pribatua edo... Horrelako detaileak sartu genituen. Azkenean penagarria da zein antzekotasun daukan Bilboko errealitatearekin ze agur eta horrelako gauzak esaten dira baina gero ez da hitz egiten. Hori da paradoxikoena. Nik ikusle bezala askotan esaten duzu zergatik denbora guztia laztana eta agur... hitz esanguratsu horiek hor. Guk azkenean egin duguna da euren produktua, saiatu produktu on bat egiten eta serie txukun bat egiten. Hor bidean euskara pixka bat sartu dugu baina ez daukazu maniobratzeko aukera asko. Euren produktua da, oso gainean daude eta hori horrela da. Orain, euskarazko serie bat planteatu daiteke Netflix-i eta Netflix-ek hori onartu? Hori da egin behar dena, modu batera edo bestera beti gaztelerazko merkaturazko zabalagoa da baina ematen badiogu diferentzial bat bai kalitatearen aldetik edo istorioaren aldetik edo zeozer oso berezia aurkezten badugu nik uste ez lukeela izango inongo arazorik. Badaude iparraldeko herrialdeetako ba Islandiako edo Danimarkako edo Suediako serieak punta-puntan. Hori da helburua bat. Hori ari ginen hitz egiten orain dela hamar urte pelikulekin eta orain da momentu mitiko bat, oso berezia. Apustua egiten badugu benetan, munduan egongo gara, bestela ez.

Adibide horiek azalduz, esan beharra dago, eztabaida dinamikoa eta nahiko naturala izan dela. Interesgarria izan da lehen hurbilketa moduan, sektoreko profesionalek, ikerlariek eta herri mugimenduetako kideek gai zehatz hauen inguruan duten iritzi, kezka eta aldarrikapenak jasotzeko. Hala ere, zenbait muga ere izan ditu. Lehenaz, eztabaidan baino transkripzioan oihartu ginen: eztabaidarako prestatuta geneukan galderetatik, asko egin gabe geratu ziren. Horrek hainbat arrazoi ditu: alde batetik, eztabaidak ordu bateko iraupena izan zuela. Hor kontuan izan behar dugu, zehaztutako ordua baino 10 minutu beranduago hasi ginela partaideetako bat ez zelako konektatzen. Gainera, beste partaide batek ordua baino lehenago utzi behar izan zuen bilera lan kontuengatik. Bestetik, focus group metodologia liburuetan gomendatutakoa eginez, galdera zabal batekin hasi genuen eztabaida. Horrek lehenengo galdera gehiegi luzatzea eragin zuen eta gainera erantzun oso zehatzak ez lortzea. Bigarren muga lehenengoari dago lotua: galderak egitean bakoitzak sektorearen ikuspegi bat erakutsi du, eta momentu batzuetan erantzunak eztabaida gaitik aldenitu direla esan dezakegu. Hori interesgarria izan da, baina zaildu egin du ondorioak eta iritziak alderatzeko prozesua. Hori esanda, eztabaidaren atalean argiago ikusiko dugu parte hartzaileen ikuspuntua, eta baita komentatu ditugun puntu horiek.

4.3 Elkarrizketak

Parte hartzailea	BM3	BL2	BU15
Kanala	Online, Google Meet bitartez	Online, Google Meet bitartez	Telefono mugikor bitartez
Data	2022ko uztailearen 6a	2022ko uztailearen 12a	2022ko uztailearen 13a
Iraupena	58 minutu	30 minutu	55 minutu

Lehenik eta behin, gogoratuko dugu hasiera batean soilik elkarrizketa bat egitea aurreikusten zela. EITBko zuzendaritzako kide horri egindako elkarrizketaren helburua zen aurretik ateratako datu, analisi eta konklusioak kontrastatzea, eta aldi berean, gai eta proiektu zehatzen inguruko galderak egitea. Baina, agenda kontuak zirela medio, focus groupean parte hartu behar zuten bi kide, BL2 eta BM3, elkarrizketatuak izan dira. Azkenengo bi horien profila ikerlariarena da. Lehenengoak komunikabideak, horien kontsumoa, eta komunikazioaren inguruko testuinguru berriak ditu ikergai, bigarrenak, ordea, ikus-entzunezko egitura eta hizkuntza minorizatuak babesteko sistemak.

Azkenengo bi profil horiek oso desberdinak dira, EITBko zuzendaritzan lanean ari den beste elkarrizketatuarekiko. Eta hori, argi ikusi da jasotako erantzunetan. Jarraian, horien adibide batzuk ekarri ditugu, baina lehenik, gogoratu hiru informatzaileen datuak eta transkripzioa osoak hirugarren eranskinean (konfidentziala) dituzuela eskuragarri.

BL2 eta BM3k ikuspuntu nahiko antzekoa plazaratu dute orokorrean, eta baita EITBren inguruko galderetan. Azkenengo horiek, ez dira bat etorri BU15en ikuspuntuarekin. Desadostasun handienak EITBk gaur egun euskararen inguruan betetzen duen paperean eta bete beharko lukeen paperean eman dira. Jarraian horren adibide argia dakarkizuegu:

BM3: *Euskararen egoera ETBn oso kezagarria da. Ez dago begirunerik euskarazko edukiak kontsumitu nahi dituen audientziarenganako, gainera, ETBk badu legez ezarrita hizkuntza normalkuntzaren alde lan egin behar duela eta sustatu behar dituela euskarazko ikus-entzunezko produktuak. Problema dator entretenimenduan, ez dauka programazio estrategiarik euskarazko ikus-entzunezko produktuei dagokienez, ez dago nahi bat, ez dago interes bat eta beti geratzen da bigarren plano batean gaztelaniazko ikus-entzunezko produkzioarekin edo programazio estrategiarekin alderatzen badugu. ETBk ez du eztabaidan sartu nahi ez zaiolako interesatzen eta begi aurrean duen arazoa ikusi ez duelako nahi. Badaki, badaki hor arazoa dagoela baina nahiago du beste aldera begiratu.*

BL2: *Nik uste hizkuntza ez dela arazoa, arazoa da ez dela hizkuntzaren aldeko apustua egiten. Hori da arazoa. Begiratzen badugu aurrekontua nola banatzen den, hor ere nabaritzen da ez dela hizkuntzaren aldeko apustua egiten eta arazoa beraz ez dut uste denik hizkuntza eta batzuetan ez dut uste denik ezta edukia, arazoa dela apustua, dela erabaki politikoa. Zergatik hautatzen da gauza bat egitea manera baten eta beste bat beste baten. Iragarpen eta publizitate estrategia berdina jartzen zaie euskarazko edukiei? Edo gehiago jartzen da erdarazko edukien kasuan? Eta zergatik eskegitzen da El Conquisen loneta erraldoi bat Bilboko eraikin bateko fatxadan eta zergatik ez da eskegitzen antzerako loneta bat beste eduki batzuen kasuan?*

BU15: *Aurrekontua berdina da (ETB1 eta ETB2koa), hilero-hilero guk portzentajeak neurtzen ditugu eta batek igual dauka aurrekontuaren % 48 eta besteak % 52, hurrengoan izango da % 49 eta % 51, hurrengoan % 52 eta % 48... aldatzen dijoa. Aurretik ez dakit nolakoa zen, baina nire zuzendariak, Andoni Aldekoak, agindu zigun eta ni erabat ados nago, aurrekontua erdia eta erdia izan behar zuela euskarazko kateetarako eta erdarazko kateetarako. Beti ez da izango 50 eta 50, batzuetan zertxobait gehiago ETB1en aldera eta beste batzuetan alderantziz. Hilez hile kontrolatzen dugu eta ez dago 70 eta 30, hori ziur.*

...

Hor ni banago ados, aurretik esan diren komentario batzuekin. El Conquis da, diferentzia handiaz, Euskal Telebistako saioren arrakastatsuen, diferentzia handiz, eta nik ikusle moduan ere ikusita ETB2n nolako arrakasta daukan, nik euskal ikusle bezala ere esango nuke eta zergatik ez dago horrelako bat ETB1en? Bueno ba badago eta irailan estreinatzen da. Dago eginda aurrekontu berdinarekin, produktora berdinarekin, eta lan talde berdinarekin: zuzendaria berdina da, produktioa berdina da... El Conquiseko lan talde guztia gainera euskalduna da, nik hasiera batean ez nekien eta jakin nuenean asko poztu nintzen. De hecho, pasaden ostiralean joan ziren Kariberantz.

Fikzioaren inguruan, ordea, adostasun maila altuagoa izan da hiruren artean. Argi identifikatu da azken urteetan euskarazko fikziozko eduki oso gutxi egin dituela EITBk, eta aurrekontu baxuarekin:

BM3: *Azken urteetan egon dira euskarazko fikzioak ETBrentzat ekoiztu direnak eta hor irten zen Koldo Almandoz esanez oso aurrekontu txikiarekin egin zutela lan, oso modu prekarioan eta diru gehiago eduki zezaketela, ez? Egia da, izan zutena kontuan hartuta oso produkzio dotorea irten zitzaizela, baina galdera da, zein baldintzatan? Edo zein preziotan? Horrela ez dut uste lan egin*

behar denik, horrela bederen El Conquis-eko taldeak ez duela lan egiten. Zergatik fikzioa horrela tratatu? Orain momentu honetan gainera ez dakit ETBk baduen fikziozko edukirik programazioan... esango nuke ezetz. Norbaitek galdetzen baldin badio Unai Iparragirri horren inguruan... ez egotea ya da ETBren helburua ez betetzea. Ezin gara planteatu horrelako egoera bat ETBn euskarazko fikziorik ez dagoen momentu batean.

BU15: *Ados nago ikusle bezala. Gertatzen dena da gero zuzendaritza kide bezala eta aurrekontua kudeatzea tokatzen denean zaila dela ze fikzioa oso oso garestia da. Go!azen-en kapitulu baten kostuarekin Biba Zuek-en hogeitahamazazpi kapitulu grabatu daitezke. Hori da proportzioa. Orduan EITB bezala badakigu bultzatu behar dugula bertako produkzioa, baina egia da, dauzkagun aurrekontuak ikusita, ze kanpotik ikusita asko ematen du baina telebista egitea oso garestia da, ez duela ematen egin nahi dugun guztirako. Orduan pasaden urtearen amaieran hausnarketa bat hasi genuen gure fikzioaren estrategia berrikusteko eta egiten ari garena orain da fikzioko edukiak koprodukzioan egiten saiatu plataformekin. Adibidez, Irabazi arte Disney-en ere egongo da, orduan, horrek errazagoa egiten du gure aurrekontu orokor guztia ez jateko. Orduan bai egonda pixka bat lehorte bat hausnarketa guzti hau egiten ari ginen bitartean produkzioa pixka bat gelditu egin dugulako. Ez geneukan dirua egin nahi genuen guztia egin ahal izateko, orduan pentsatu behar genuen gutxiago egingo dugu eta nik hori ez nuen nahi ze uste dut garrantzitsua dela EITBk bultzatzea fikzioaren ekoizpena edo nola egingo dugu edo nola mantenduko dugu lehengo erritmoa baina era jasangarri batean ekonomia eta aurrekontuei begiratuta. Orduan erabaki genuen, Netflix eta Amazonekin hitz egin eta gero, badaudela interes eremu batzuk amankomunean ditugunak eta horietan elkarrekin egingo dugu lan, bai Amazonekin eta bai Netflixekin fikziozko proiektuak dauzkagu esku artean eta esate baterako orain martxan jarriko den hurrengo grabaketa, orain preproduzioa fasean dagoena, ez da haurrentzat Go!azen eta Irabazi arte diren bezala, helduagoentzat da eta Iparraldean eta Hegoaldean grabatuko da eta surf eskola baten ingurukoa da.*

Azpidatziak erabiltzearen inguruan ez da adostasunik egon. BM3k galdetu du zergatik ez diren euskarazko edukiak emititzen ETB2n azpitoluak erabiliz, era horretan, euskara ez duen komunitatearengan eragiteko, erakartzeko eta gero eta familiarizatuagoak egon daitezen hizkuntzarekin eta hizkuntzarekiko. BU15i hori galdetzean, aurtun probatu dutela eta desastre bat izan dela erantzun du:

Korrikaren inguruko edukiak emititu genituen ETB2n erdarazko azpitoluekin eta aurreko programak bederatziko sharea zeukan bitartean, programa berri honek, euskaraz eginga eta gaztelarazko azpitoluekin, 1,5 eduki zuen. Hau da, audientzia jaitsi zen ia zati hamar eta momentu horretan ETB1ek 2,3ko audientzia zeukan. Orduan, egin ditugun esperimendu guztiek erakutsi digute argi eta garbi ETB2ko ikusleak derrigortzen baldin baditugu eduki oso bat euskaraz ikustera erdiko atzaparra erakusten digutela eta beste kate batera doazela. Zer esango nuke nik? Euskara ikasi nahi dutenek daukatela kate oso bat euskaraz, ETB1, eta bertara joan daitezkeela edukiak ikustera. Bai egin nahi duguna da eta horretan gabiltza eta hainbat bilera izan ditugu ikusgarritasun gehiago eman euskarari ETB2n. Gero eta gehiago egiten dugu bai albistegietan eta baita programetan euskarazko korteak sartu erdarazko azpidatziekin eta hori ezberdina da. Ikusi dugu ETB2ko ikusleek ez daukatela arazorik horrekin, baina ez dute eduki oso bat ikusi nahi azpitoluekin. Orduan, kanpotik ikusita erraza da esatea "bueno ba jarri eduki osoa" baina klaro ikusten baldin badugu hori egin dugun guztietan audientziak zati hamar egin duela eta zati hamar egiten duen momentuan, programa horretan emititzen dituzun iragarkien ingresuak ere zati hamar egiten dute. Bai ETB1ekin baina batez ere ETB2kin publizitate aldetik urtean ia hogeitaz milioi egiten ditugu eta diru hori joaten da bai ETB1 eta bai ETB2ko programak egitera. Orduan ezin dugu jokatu horrekin, alde batetik ikusten dugulako ikusleek ez dutela nahi, baina beste alde batetik hori egiten baldin badugu sarritan ETB1erako edukiak egiteko diru gutxiago izango dugulako baita.

Horiek soilik adibide batzuk izan dira dauden ikuspuntu desberdinak adierazteko. Eztabaidaren atalean, hori gehiago nabarmenduko da. Era honetan, argi ikusi dugu oso desberdina dela errealitatea ikerlari bezala ikustea edota sektoreko parte den profesional gisa. Hala ere, aipatu beharra dugu hasiera batetik aurreikusten genuela desadostasunak egongo zirela arlo zehatz horietan.

Atal honekin amaitzeko, esan beharra daukagu hiru elkarrizketa horiek oso baliagarriak izan zaizkigula ikuspegi desberdin horiek azalertzeko eta baita BU15en kasuan, martxan ari diren proiektu eta estrategiak ezagutzeko. Izan ere, ikusle moduan erraz pentsa dezakegu, euskararen egoera ETBn kezkarria dela, eta ETBk ez duela gauza handirik egiten hori aldatzeko. Baina BU15ek esandakoak, argi utzi digu, ETB bertan kezka hori ere badagoela, eta hori aldatzeko proiektu asko abian jarri dituztela. Hala ere, elkarrizketa horiek hainbat muga izan dituzte. Batetik, iraupena. Parte hartzaileen agenda kontuan izanda, ezinezkoa izan zaigu elkarrizketa luzeago eta sakonagoak burutzea, baina lehen hurbilketa moduan, baliagarri izan da. Bestetik, ondo legoke focus groupean denak bildu ahal izatea. Behin baino gehiagotan aipatu dugu BL2k eta BM3k focus groupean parte hartu behar zutela hasiera batean. Ondo legoke BU15ek ere parte hartzea eztabaidan kideen arteko elkarrengaitza sortzeko. Baina egia da ere, BU15ek focus groupean parte hartuko balu, gainontzeko partaideek ez luketela izango askatasun hori ETBren inguruko iritzia emateko. Gainera, pertsona gehiegi biltzeak, eta denbora mugatua izateak (ordubete inguru), gai oso gutxi lantzeko aukera emango liguke eta nolabait aukera hori ondo ez aprobetxatzeko arriskua izango genuke. Elkarrizketa bitartez, gai batzuk sakonago landu ahal izan ditugu. Beraz, argi dago bataz zein besteak bere alde onak eta txarrak dituela. Horregatik, argi eduki behar da hasieratik zer lortu nahi den zein metodologia erabiliz.

4.4 Eztabaida

Atal honetan, txosten, ikerketa, artikulua eta bestelako iturrietatik jasotako datuak guk egindako inkesta, focus group eta elkarrizketekin alderatuko ditugu. Horren helburua da frogatzea guk egindako ikerketak konklusio horiek berresten dituen ala ez, eta ondoren hortik ondorioak ateratzea. Jarraian, eduki berriak aurkeztuko ditugu, baina aurreko ataletan aipatu diren eduki batzuk ere errepikatuko dira eztabaidaren ikuspuntutik. Ikusiko duzue, parte hartzaileen izenak kodetuta egoteaz gain zenbatuta daude (BA9 [01], BA9 [02]...). Era horretan, horien aipu osoa irakurri nahi izanez gero, errazago identifikatuko dituzue 3. eranskinean (konfidentziala).

1. Eztabaidari hasiera emateko egungo ikus-entzunezkoen egoeraren inguruan sektoreko profesional eta adituek esan digutena alderatuko dugu. Aurretik aipatu moduan, gehiago izan dira adostasunak desadostasunak baino.

BM3 [01]: *Kalitateari dagokionez, esango nuke oso ona dela. Oso ona esaten dudanean da teknikoki eta artistikoki maila txukuna dagoela, irizpide horiei erantzuten dieten produkzioak daudela: istorio onak kontatzen dira, badaude mezu interesgarriak produkzio horien atzean eta kalitateari buruz horri erreparatzen badiogu, ba ondo. Kantitateari dagokionez, gutxi. Euskarazko ikus-entzunezkoen produkzio kantitatea txikia da; nire ustez, dagoen edo egon litekeen eskaerari erantzuteko gutxiegiak da.*

BL2 [01]: *Nik esango nuke ikus-entzunezkoen egoera dela gaur egun aurretik zana baino zailagoa, eszenan dagoelako lehen baino eskaintza gehiago eta hiper produkzio eta hiper eskaintza horren aurrean zaila delako norberaren produktu hori alde batetik jendeak ezagutzea eta bestetik jendeak kontsumitzea. Kalitate aldetik, egiten den euskarazko ikus-entzunezkoak kalitate egokia duen produktua dela esango nuke, hau da, kalitatean ez daukagula arazorik edo erronka potolorik, beti ere, gustu, subjektibitate eta abarrak alde batera utzita, erabiltzen diren baliabideak aintzat hartuta, baliabideek ere markatzen dutelako: bai giza baliabideak, diru baliabideak eta besteak.*

Kantitateari dagokionez, gutxi ekoizten dugu; batez ere, gutxiegi ekoizten dugu ikus-entzunezkoen itsaso zabal horretan euskarazko edukiak zerbait izan daitezen.

BA9 [01]: *Zinemari lotuta esango nuke harritzeko bezalako momentu berezi batean gaudela, batez ere, daudelako zinegile pilo bat euskaraz naturalki lan egiten dutenak. Jende gaztea ere oso fuerte dator kriston kalitatezko laburmetraiak edo lehen pelikula oso interesgarriak planteatzen dituzte, oso anitza da planteamendu aldetik, ez da bakarrik pelikula tipo bat egiten dela, egiten dira pelikula mota ezberdin asko. Eta uste dut kalitate aldetik oso maila ona dutela eta baita uste dut egokitzen ari dela egileen jarduna gaur egungo tendentziei. Eta bueno, gero aparte, euskaraz egindako pelikulak gidoi luzeei dagokionez, proposamen oso potenteak aurkezten dira, horrek zerikusi asko du dagoen konpetentziarekin, jende asko dabil proposamen interesgarriak planteatzen, batzuk ez dira iristen egitera, beste batzuk egiten dira. Baina bueno, bide horretan uste dut ez dela garai batean bezala, euskaraz egiten ziren pelikula asko dudarekin ateratzen ziren merkatura, egin behar zirelako egiten zirelako.*

BJ14 [01]: *Uste dut lehen aldiz beharbada orain dagoela, edo sortzen ari dela euskal zinema bat. Nolabait, beste edozein herrialdetan zinematografia bat deitzen den hori autore ezberdinak, genero ezberdinak, gauza diferenteak publiko diferenteei ikutu ditzaketenak, hori orain hasten gara ikusten. Zer pasatzen da? Hori sortzen hasten garenerako egoera aldatu egin dela; orduan, nolabaiteko, esaten zan beti ez “bueno karitateak ekarriko du publikoa ez? Karitateak ekarriko du”, eta egia da hori. Zenbat eta pelikula hobek orduan hasiko gara aurrera eginez, baina orduan ya mundua pauso bat edo pantaila bat pasatu da; gu heldu garenerako benetan gutxi gorabehera besteen modukoak izatera, orduan orain guk bi pantaila pasatu behar ditugu aldi berean.*

BI10 [01]: *Nik uste dut euskarazko zinemagintzan kalitate gehien daukana propioa dela, bertatik bertara egindako euskarazko ekoizpen propioak. Karo, horrek egon daitezke urtean, kasurik onenean, bi-hiru-lau pelikula, egiten badira. Edukietan kantitatea inportantea da, kalitatea ere oso inportantea da, baina orain bereziki streaming plataformekin asko ari gara kontsumitzen eta hori ekoizpen propioekin ezin da asetu; ezin da plataforma bat edo telebista bat elikatu. Orduan ni pasatuko naiz beste maila batera, bikoizketara, pelikulen eskubideak jaso, erosi eta bikoiztea, atzerriko pelikulak bikoiztearena. Nik lehenik eta behin uste dut badagoela orokorrean estrategia falta bat, gai honen inguruan ez dagoela garbi hemendik bost urtetara, hamar urtetara nora iritsiko garen. Bikoizketari dagokionez, momentu honetan bikoizten dira ia eksklusiboki haurrentzako dauden filmak, Zineuskadik bikoizten dituenak, urtean hamabi. Zuk ez badaukazu erreferente bat, astero eskaintza bat bi edo hiru pelikuletakoa normaltasunez, zaila da ohiturak sortzea, zuk berariaz egin behar duzu zinemara euskarazko pelikula jakin bat ikustera. Erderazko kasuetan joaten zara zinemara, ikusten duzu zer dagoen eta joaten zara pelikula bat ikustera jakin gabe aurrez zer ikusiko duzun. Euskarazkoetan ezin duzu hori egin; gaur joaten bazara zinema areto batera begiratzen duzu karteleran eta ez dago euskaraz ezer. Eta dagoen gutxi hori izango da ziurrenik haurrentzat. Zineuskadik hamabi pelikula bikoiztuta eduki eta kantitate aldetik gutxi da eta Euskal Telebistak momentu honetan ere urteetan egin duen bidea ez da egokiena izan euskarazko edukiak sortzerako garaian. Koprodukzioak eta abar egin ditu, baina bikoizketan badago arazo handi bat.*

Bide beretik, interesgarriak dira Asier Larrinagak, EITBko Euskara Zerbitzuko arduradunak, euskarazko bikoizketen inguruan bere doktore tesian emandako datuak (Larrinaga, 2019):



Asier Larrinaga. Iturria: Diario de Noticias de Álava

«Euskarazko bikoizketa, ordea, gainbehera etorri da. Batetik, Euskal Telebistak enkargatutako bikoizketa-orduetan, murrizketa zorrotza gertatu da (M. Aranburu, 2013). 1980ko hamarkadan, ETBk 1.800 ordu bikoizten zituen euskarara urtean. 1990eko hamarkadaren erdialdean, urteko 1.000 ordura jaitsi zen bolumena. 2009-2012 artean, 450 ordu bikoiztu ziren urtean, eta 2013an, 100 ordu baino ez. Bestetik, ETBtik kanpo, murrizketa hein berekoa izan da. Bikoizketaren hasierako urteetan, Euskal Telebista zen bezero bakarra baina, geroago, beste batzuk agertu ziren (Larrinaga, 2007b): Eusko Jaurlaritza, zinema-banatzaileak, elkarte pribatuak eta Donostiako Zinemaldia. Horietatik guztietatik, egun, Jaurlaritzaren Zinema Euskaraz programak baino ez dirau: 2014an, 4 filmen eta 8 marrazki-film luzeren bikoizketa lagundu zuen diruz, alegia, 20 ordu baino gutxiago (Zineuskadi, 2014a, 2014b, 2014c)».

BM3 [02]: Diru laguntza publikoei buruz, erantzun bera emango nizuke. Egon daiteke gehiago eta egon beharko litzateke diru publiko gehiago; batez ere, sektorean lanean ari diren profesionalak haien produkzioetatik bizi ahal izateko, ze gaur egun oso prekarioa da euskarazko ikus-entzunezko sektorean lan egitea eta jende gehienak lan egin behar du beste zerbaitetan ere aurrera egin ahal izateko. Egon beharko litzateke diru gehiago, baina ez bakarrik diru publikoa, diru pribatu gehiago baita ere. Egon beharko lirateke politika publiko gehiago, hain zuzen ere, diru pribatu hori erakartzeko ikus-entzunezkoen produkzioa; adibidez, pizgarri fiskalak. Zabalkundeari dagokionez, minus bat. Ez dago euskarazko ikus-entzunezkoen zabalkunderik. Ez dago etxe barruan estrategia finkorik diseinatuta eta ezta etxetik kanpora begira ere. Dagoena da oso mugatua eta oso murrizta. Hori nire ustez dator ez dagoelako halako planifikazio bat edo estrategia sendorik zabalkundea aintzat hartzen duena, sektore moduan edo elementu espezifiko moduan. Produkzioa da gauza bat, finantzaketa da beste gauza bat eta zabalkundea da beste gauza bat. Gaur egun gainera streaming plataformekin zabalkundea ez da pentsatu behar garai batean pentsatzen zen bezala. Beste dimentsio batean gaude eta beste behar batzuei erantzun behar zaie. Orduan iruditzen zait zabalkundea horrela per se ez dela kontenplazten, dena oso difuso dago egun etxean. Ez da pentsatzen estrategia komun eta zabal batetik.

BL2 [02]: Inbertsioak egiten dira, baina ez dira nahikoak, Europako beste Estatu batzuetan diru gehiago bideratzen da: ehuneko gehiago kulturara eta ikus-entzunezkoen sorkuntzara. Zabalkundeari dagokionean, hor dago erronkarik handiena. Gertatzen dena da ikus-entzunezkoak kontsumitzeko modua aldatu dela eta horrekin batera zabalkundea ere aldatu dela badakizun bezala. Horrek ere eragin du plataforma handietan kokatzen ez dena nahiko ikusezin geratzea, eta gainera, ez da soilik plataforma handietan kokatzea, erronka da doblea: behin kokatuta behar da baita ere ikusia izatea ze plataforma batek baldin badauka fondo bat hamar mila ikus-entzunezko pildorena nola eta zergatik hautatuko du erabiltzaile batek euskarazko edukiak, izan euskal sorkuntza bestelako hizkuntza batzuetan kontsumitzeko, edo izan sorkuntza euskarazko audio, bikoizketa edo azpitolu idatziekin kontsumitzeko. Hor badaukagu arazo bat.

Sektoreko profesional eta ikerlarien iritzia ikusita hauxe azpimarratu dezakegu: ahulgunea dugu kantitatean, zabalkundean eta diru-laguntza publikoetan eta indargunea kalitatean. Ahulgune gisa identifikatu ditugun alorrak elkarri lotuak daude. Diru-laguntza publikoak urriak direnez, ez dira ekoizten nahi beste euskarazko eduki. Estrategia sendorik ez dagoenez, zabalkundea ez da behar bezala lantzen. Hori esanda, argi geratu da kalitatean ez daukagula inolako arazorik. Euskarazko ikus-entzunezko lan potenteak egiten dira.

.....

2. Lehenago aipaturiko txostenetara itzuliz, Ikusiker Paneletik ateratako datuek argi utzi dute ETBren indargunea informazioa dela. Informazioa kontsumitzeko hiru kanal gomendatuen artean bi ETBkoak izan dira: ETB2 (% 32,4), La Sexta (% 30) eta ETB1 (% 28,4). Neurri txikiago batean ETBko entretenimenduzko edukiak ere gomendatu dituzte (ETB2 % 15,3 eta ETB1 % 10,6). Fikzioaren kasuan, ordea, argi ikusi da EITBko kanalak ez direla erreferentzia (% 4tik behera kanal guztiak).

Alor batzuetan ondo dabilen arren, ETB1en audientzia datuak kezkarriak dira, 2021ean % 2,2ko sharea izan zuen batz bestea. Guk unibertsitateko gazteei egindako inkestan telebista euskaraz ikusten duten galdetu diegu, erdiak (% 50,7k) ezetz erantzun du; baietz esan dutenak % 46,3 izan dira. Hori edukiei lotuta egon daitekeen arren, telebista kate guztietan gertatzen ari den joera da, gazteek gero eta gutxiago ikusten dute telebista. Horren arrazoia jakiteko, euskarazko telebista edukietan zer ikusten duten faltan galdetu diegu, eta erantzunen artean ondorengo hauek egon dira: gazteei zuzendutako edukia, euskarazko fikzioa, nerabe eta helduentzat telesailak, umorezko programak, euskarazko dokumentalak...

Egoera hori focus groupera eraman dugu ere, eta hizkuntza edo edukia den arazoa galdetu dugu:

BA9 [02]: *Nik nire etxean ikusten dut, ETB ez da opzio bat. Telebista bera ez da opzio bat askotan gure etxean. Guk beti jotzen dugu serie bat edo pelikula bat ikustera telebista ikustera baino. Aparte ETBk eskaintzen duena askotan ez zait interesatzen, hori uste dut gertatu zaigula askori ez? Eta ohitura galdu dugu. Hori da zinerekin gertatu den berdina, galdu dugu ohitura zinera joateko ba telebistarekin gauza bera, ez dago modan. Eskerrak plataforma dagoeneko mugitu dutela ze hortik egon daiteke irtenbide bat, baina telebista... gure alabentzako ez da opzio bat. Orduan adi egon behar da momentura eta erabakiak hartu segituan. Eta hor ez dakit zer gertatzen den, baina ez gaude adi. Eta telebistak zer eskaini dezake? Ba sakonagoa izatea, kritikoagoa, ez dakit, gauza asko zuk esateko "jo ba nahi dut ikusi programa hau nire izatea mehoratu egiten delako" eta entretenimendu horretan galdu egiten gara.*

BI10 [02]: *Nik uste dut 80ko hamarkadan, 90eko hamarkadan ez bazen hizkuntza arazoa ba orain ere ez du zertan izan behar. Nik uste dut edukietan dagoela arazoa, urteetan zehar egin den ibilbide horren ondorioz publikoa aldentzen joan da. Nik uste dut kasu askotan jendea ez dela identifikatuta sentitzen ETBekin. ETBk marka bezala badauka arazo bat. Nik horri, edukiei eta estrategiarik lotuta ikusten dut arazoa. Noski konpetentzia gehiago dagoela, badago streaming-a... baina bueno nik uste dut hor ez dagoela... TV3 bat, ba hizkuntza ere ez da hegemonikoa baina beste audientzia batzuk ditu, eta beste estrategia bat dauka. Nik uste ETBk hori ez duela egin, jende euskalduna aldendu duela uste dut. Eta hori dago edukiei lotuta, hasita Teleberri bat edo Gaur Egun bat, zergatik Gaur Eguna askoz motzagoa da Teleberria baino? Zergatik da kalitate hobegoko albistegi bat Teleberri eta ez Gaur Egun, ez? Zergatik prime timean larunbat batean daude ETB1en mariatxiak eta dago beste ez dakit zer? Edo zergatik asteburu honetan Gure Esku Dago-n Pirinioetako zera izan dan eta ez da aipatu ere egin eta mariatxi batzuk jarri dituzte ETBn, ez? Guzti hori bada azkenean eta nik uste edukiekin lotuta dagoela eta inondik inola hizkuntzarekin.*

Bide beretik, ondorengo hau adierazi digu egin diogun elkarrizketan **BM3 [03]k**:

Euskararen egoera ETBn oso kezkarria da. Ez dago begirunerik euskarazko edukiak kontsumitu nahi dituen audientziarenganako, gainera, ETBk badu legez ezarrita hizkuntza normalkuntzaren alde lan egin behar duela eta sustatu behar dituela euskarazko ikus-entzunezko produktuak. Eta ez bakarrik entretenimendura begira, baizik eta albistegiak, informazioa... hor nahiko lan dezente egiten duela eta nahiko lan ona egiten duela esan beharra dago. Problema dator entretenimenduan, ez dauka programazio estrategiarik euskarazko ikus-entzunezko produktuei dagokienez, ez dago nahi bat, ez dago interes bat eta beti geratzen da bigarren plano batean gaztelaniazko ikus-entzunezko produkzioarekin edo programazio estrategiarekin alderatzen badugu. Euskara ez da inondik ere arazoa, eskaintzen baldin badiozu zure audientziari edozein hizkuntzatan programazio egoki bat, produktu onak, audientzia horrek kontsumituko ditu. ETBk ez du eztabaidan sartu nahi ez zaiolako interesatzen eta begi aurrean duen arazoa ikusi ez duelako nahi. Badaki, badaki hor arazoa dagoela baina nahiago du beste aldera begiratu.

Orain arte aipaturiko iritzi eta analisi horiek ETBko zuzendaritzan dagoen kideari egindako elkarrizketan komentatu genituen, eta hauxe adierazi zigen:

BU15 [01]¹¹: *Mariatxiek justu audientzia ematen dute, lehenengo R-ari begira (rating) oso ondo egiten dute mariatxiek baina niretzat audientzia bakarrik ez da garrantzitsua, marka ere bada, eta bai iruditzen zait mariatxiak ETB1en emititzeak markari kalte egiten diola. Orduan, ni erabakiak hartzen hasi nintzenetik mariatxien emisioak ETBn asko jaitsi dira.*

Bestalde, edukiaz eta audientziaz, justu ETB1ek pasaden urtean azkenengo hamabi urteetako audientziarik altuena lortu zuen eta guk egunero neurtzen dugu audientzia, baina hilabeteari asko begiraten diogu, aurten hilero goaz aurreko bost urteen gainetik baita. Zoritxarrez, nik nahiko nuke ehuneko ehunak hitz egitea euskaraz gure herrian ze gure herrian gure hizkuntza hitz egin beharko litzateke, baina gertatzen da euskaldun gutxi daukagula Euskal Herrian. Arrazoiak mila dira eta hor ez naiz sartuko baina % 2,6 hori, ekainean ETB1en izan dugun audientzia, euskaldunon artean konparatzen badugu % 8,2 da. Orduan, derrepente 2,6 hori oso txikia dena, bihurtzen da zenbaki askoz itxuroso bat.

Aurrekoari dagokionez, interesgarria da gogoratzea 2000ko hamarkadan ETBren zuzendaria izan zenaren gogoeta:

«Norentzat ari garen jakitea oso garrantzitsua da. Gure ikusle potentzialak 1.000.000 pertsona dira, euskara hitz egiteko edo ulertzeko gai direnak. Oso zaila da etxeko berezko hizkuntza euskara ez den familia batean lehenengo aukera ETB-1 izatea. Etxean euskara erabiltzen dutenen kopura 500.000koa da, azkenean EAEn. [...] Ez dut uste inoiz ezerk, Goenkalek egin duen bezala, bildu duenik 100.000 euskaldun une berean gauza bera ikusten euskaraz. Agian ETB-1en neurria % 6-7koa da» (Zupiria, 2002, or. 7; hemen aipatua: Larrinaga, 2019).

Eten hori eginik, jarrai dezagun **BU15 [01]**en erantzunarekin.

Gure ETB1erako estrategia berriaren epizentroa da gazteak eta ikuslego familiarra ekartzea ETB1era. Zergatik? Iruditzen zaidalako ETB sortu baldin bazen euskara bultzatzeko, euskara zabaltzeko eta euskara sustatzeko, gazteekin hasi behar gara. Gazteak euskararen mundura hasieratik ekartzen ez baldin baditugu, ohitura horiek hartzen ez baldin badituzte, nagusitzen direnean ez dute euskaraz hitz egingo. Orduan hainbat proiektu jarri genituen ETB2 pixka bat zaharragoa izaten uzteko, baina batez ere ETB1era erakartzeko. Eta hor ba Zurekin Bat lehiaketa jarri genuen martxan astean zehar, orain Mihiluze etorriko da gazteak eta helduak erakartzeaz gain euskararen fokoa oraindik gehiago daukana, Abiapuntua saioa jarri genuen gazteei zuzenduta baina gai sozialen inguruan eta portzierto Circom-ek, Europako telebista publikoen elkarteak, sari bat eman zion saio horri. Orduan, jendeak esaten duenean arazoa ez dela euskara, kalitatea dala, ba ni horrekin ez nago ados. Euskaldunok gutxi gara, orduan audientziak ETB1en beti izango dira ETB2n baino txarragoak.

Eta gero, beste kontua, ETB1 eta ETB2 ez daude nire ardurapean, zuzendari bat dago albistegiatarako, Arantza Ruiz. Orduetegiarena ez dakit, ez dakit zergatik den ETB1ekoa lehenago ETB2koa baino, ez dakit ezta alderantziz izateak lagunduko lioken ETB1i. Baina baliabide aldetik badakit baliabide berdin berdinak dituztela bai ETB1ekoak eta bai ETB2koak. Albistegietan lan egiten duten kazetariak bi hizkuntzetarako sortu behar dituzte edukiak eta baliabideak berdin berdinak izaten dira. Eta euskarazko albistegia 5-10 minutu laburragoa da, Gaur Egun eta Teleberri lantalde berdinak egiten duelako, beraz, beraz plato batetik bestera joan eta eskaleta errepatatu behar dutela kontuan hartuta, Gaur Egunarentzat bukaera ordu "tope" bat dago, lantalde hori Teleberria egiteko prest egon dadin.

¹¹ Informatzailearen identitatea babesteko, berariaz moldatua. Jatorrizko testua eskuragarri dago hirugarren eranskinean (eranskin konfidentziala).

Kike Amonarriz telebista aurkezle eta soziolinguistak, *EITB-ren etorkizunaz soziolinguistaren talaiatik*¹² txostena aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarreko EITBren erreforma integrala egiteko ponentzian, 2019. urtean. Bertan, egoera aldatu dela kontuan izanda (euskararen ezagutzaren egoera¹³, ikus-entzunezkoen eskaintza eta kontsumoa...), EITBk epe motz-ertainera jarraitu beharko lukeen ibilbideaz hitz egin zuen:



Kike Amonarriz. Iturria: Barren.eus

- *Euskarazko medioak lehenetsi eta euskara EITBren hizkuntza nagusia bihurtu:*

EITBren ardatza eta lehenetsia euskarazko medioak izatea (ETB1, ETB3, Euskadi Irratia eta Gaztea) medioen arteko osagarritasuna landuz. ETB1, historikoki izan duen bigarren mailako posizioetik atera eta lehenetsunezko batera eraman behar da. Testuinguru soziolinguistiko eta soziopolitiko honetan lortzen ez badugu, egoera subordinatu hau iraunkortzeko arrisku bizia dago. Hauxe da inertziaz puskatzeko momentua.

- *Kateen arteko banaketa linguistikoaren eskema gaindützea:*

Euskarazko hedabideak (ETB1, ETB3, Euskadi Irratia eta Gaztea) euskarazko arnasgune eta espazio gisa mantendu.

- *Hala ere, eta beti ere proportzio mugatuetan, ETB1en, euskara ulertu, baina erdaraz egingo duten “Belarriprest”ei lekua eman.*
- *Erdal hiztunen presentzia kualitatibo eta neurtuari ere ateak zabalduz (elkarriketatu garrantzitsuak, EHTik kanpoko adierazpenak, kirolari erdaldunak,...). Kasu horietan bikoizketa edo azpidatziak erabil daitezke.*

ETB2, ETBSat (egungo ETB Basque) eta Radio Euskadi nabarmen elebidundu, euskaldunen eta euskarazko adierazpideei eta edukiei leku gehiago eskainiz.

- *Euskara, euskal kultura eta euskaldunak gehiago ikusarazi behar dira ETB2n eta Radio Euskadin (azken honetan, urrats nabarmenagoak eman dira alor honetan).*
- *ETB2ren kasuan, grabaturiko programa edo atal guztietan bermatu daiteke euskararen presentzia, arazorik gabe, azpidatziaren edo bikoizketaren bidez.*

¹² EITB-ren etorkizunaz soziolinguistaren talaiatik txostena ondorengo esteka honetan eskuragarri: https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/b00303a6-173b-4852-ab43-dc4036b8276c

¹³ «Une honetan, EAEn 25 urtetik beherako gazte guztiek euskaraz ulertzen dute. Hemendik 10 urtera, 35 urtetik beherako mundu guztiak ulertuko du. Beraz, egin beharreko erreformak etorkizunera begirakoa izan behar du. Ikus-entzunezko eskaintza biderkatu egin da gaur egun. Hizkuntza gutxituen eta gainerakoen artean sekulako arrakala digitala daukagu. Ez gaude 1982ko egoeran, beraz, goazen hausnartzera zertarako behar dugun EITB; eta EITBren egiteko nagusienetarikoa bat hizkuntzaren normalizazioa baldin bada, eta euskararen zabalpena baldin bada, gaurko ereduak ez du hori lortzen. Gaur egun nagusi diren gaztelaniazko kateetatik ardatza euskarazko kateetara pasatu behar da. Ardatza izan dadila ETB1 eta ez ETB2. Ardatza izan dadila Euskadi Irratia eta ez Radio Euskadi. Euskarazko kateetan “belarriprest”ei sarbideak jarri, modu oso neurtuan, eta gaztelaniazko hedabideak nabarmen elebidundu. ETB1eko fikzioa indartu behar da, arratsaldea indartu behar da, entretenimendua ere bai, eta informatiboak gaztelaniazkoekin parekatu behar dira» (Amonarriz, 2019).

- Informatiboetan, gaur egiten dena baino nabarmenago.
 - Grabaturiko entretenimenduzko saioetan euskaldunak agertzen direnean.
 - Realityetan euskarazko praktika linguistikoak bultzatu eta modu normalizatuan erakutsiz.
 - Euskarazko edukiak eman (film, serie, emanaldi...) azpizatuta edo bikoiztuta.
- *Guzti hau, gaur egungo EitBren ikus-entzule kopuru orokorreari eutsiz edo hobetuz, baina euskarazko eskaintzarako "trasea" eraginez.*
 - *Elkarbizitza linguistikoaren, eleaniztasunaren eta euskararen biziberritzearen aldeko diskurtsoak zabaltea programazio guztietan, baita euskaraz ez dakien populazioari begira.*
 - *Hizkuntza normalizazioaren aldeko JARRERA AKTIBOAK bultzatu.*
 - *Bizikidetzaren linguistikoaren BALIOAK eta euskararen berreskurapenaren aldeko DISKURTZOAK bedatu.*
 - *Herritarren aurrean JARRERA ASERTIBOAK agertu eta Euskaraldiak bultzatzen dituen HIZKUNTZA PORTAEREN ispilu eta erakustoki izan, hizkuntza obiturak aldatzeko EREDU eta ERREFERENTZIAK emanaz.*

Programazioari dagokionez ere zenbait aldaketa proposamen egin zituen:

Epe motzean, ETB1en eta ETB3ren programazioa osatu eta indartu egin beharke lirakeke:

- *ETB1eko informatiboei, ETB2ko informatiboan garrantzi eta iraupen berberak ematea, eta ordutegian dauden desoreka nabarmenak konponduz.*
- *Soziometroak agerian utzi du desoreka hau: %20k esan du albistegirik onenak ETB2renak direla, %5ek ETB1enak, eta %5ek ETBrenak oro har, nabiz eta ETBren albistegien aldeko jarrerarik nabarmenena, alde handiz, euskaldunen artean eman.*
- *ETB1eko arratsaldea indartu eta baliabidez hornitu. Desoreka nabarmena dago euskarazko eskaintzaren eta erdarazkoaren artean.*
- *Fikzioaren beharra nabarmena da. Bai bertan ekoiztutakoa, eta baita kanpoko fikzioa edo filmak (bikoiztuta edo azpizatuta). "Merli"ren kasua adibide interesgarria da.*
- *ETB3ko programazioa berritu eta sustatu. Haurren artean, erreferentzia berriak sortu behar dira, beraien arteko praktika linguistikoetan ereduak izango direnak eta euskarazko kultur produktuen kontsumoari bidea zabalduko diotenak.*
- *ETB1ek eduki sektorialagoak ere eskaini behar ditu (Ad: Teknopolis). Edozein saioke dituenetik aparte, programa horiek, audientzia ez beste helburuak dituzte, edo: eragin sektoriala, hezkuntzarako euskarriak...*

Aldaketa-prozesu bonen inflexio-puntua informatiboek programazioan duten kokapen- aldaketak markatuko du. Gaur egun, ETB2ko gaueko informatiboak du zentraltasun osoa eta bi kateetako prime-timeko programazioa horren arabera antolatzen da, ETB1eko audientziaren jarraitortasuna kaltetuz (ordu horretan eta "Eguraldia"ren ondoren ETB1en errepikatutako saio asko programatu obi da).

Ikerketa desberdinetako datuak eta guk jasotako iritziak ikusita argi dago ohitura aldaketa egon dela telebista kontsumitzerako orduan eta telebista tradizionala krisian dagoela. Aldaketa hori adin tarte guztietan eman den arren, nabariena, dudarik gabe, gazteen artean izan da. Euskal Telebistaren kasuan, urteetan zehar euskarazko edukiak bigarren mailan kokatu direla eta horrek audientzian eragin zuzena izan duela identifikatu da. Ildo horretatik, badirudi ETBren zuzendaritza berriak hori sumatu duela ere eta abian jarri dituela euskarazko edukiak indartzeko eta kontsumo ohitura berrietara moldatzeko lan-lerroak.

.....

3. Gazteek telebista gero eta gutxiago ikusten dutela komentatu dugu aurreko puntuak. Horren arrazoi nagusia dira sortu diren kontsumo ohitura berriak. Euskal Hedabideen Behategiak streaming plataformaren inguruan argitaratutako txostenak dio 14 urtetik gorako bi pertsonatik bat dela streaming plataformaren bateko harpideduna Hego Euskal Herrian. 14 eta 24 urte bitartekoen kasuan hamarretik ia zortzi dira. Gazteak -eta ez hain gazteak- plataformetan daude, eta horietan euskararen presentzia hutsaren hurrena da. Hor dudarik gabe arazo bat daukagu. EITBk 2023 hasieran *Primeran* plataforma kaleratuko du: euskarazko eta Euskal Herriko edukiak biltzen dituen plataforma. Bide horretatik, ikasleei egin genien inkestan euskarazko streaming plataforma bat izatea beharrezkoa ikusten zuten galdetu genien eta gehiengoak (% 68,7) baietz esan zuen. Eztabaida taldean plataforma horrek izan beharko litzuzkeen ezaugarrien inguruan eztabaidatu genuen:

BI10 [03]: *Plataforma berri horren iragarpena poztekoa da, baina, horrek beharko du bazka, beharko du euskarazko bazka, beharko ditu serieak... hor zer egingo da? Edukia da oinarria. Bagaude prest hori egiteko momentu honetan, sektore bezala, industria bezala? Aukera oso ona da, ikus-entzunezko lege berriak ere aukera bat zabaltzen du, eta horri heldu behar zaio.*

BA9 [03]: *Edukia. Azkenean behar dituzu edukiak izan behar direla egunerokoak eta kalitatezkoak. Nik uste dut aukera bat dela sortzen jartzeko jendea. Jende asko dago sortzeko gogoarekin, ETB bertako jende askok protagonismoa hartu beharko luke, hasteko gauzak proposatzen, egiten, formatu berriak... ez dakit, nik uste hor badagoela zer egina ez? Aprobetxatuz zerbait berria datorrela apustu bat egin produkzioarako, ekoizteko ez?*

BJ14 [02]: *Nik egia esateko ez dut oso garbi zer egin nahi duten, ez dut oso garbi ere plataforma bat beregi sortzeak zer ekarriko duen, ez litzateke hobe edukiak sortu eta gero... esan nahi dut ze horrek ekartzen du handicap bat ta da jendea eraman behar duzula zure plataformara. Beharbada, kanpotik nik ikusten dut sinpleago eduki onak egin eta gero ohitura daukazu plataforma horietan topatzen badituzu orduan ikusiko dituzu.*

BA9 [04]: *Ba nik uste dut beharrezkoa dela toki bat... eske gaur egun nahieran-ekin... ez da gaur egungo toki bat non joaten zaren, ez da atraktiboa, kalitatea ez dauka... nik uste dut behar dugula zerbait ETBko programazioa eta euskarazko programazioa modu atraktibo batean eta zuzen batean ikusteko aukera. Nik ez dakit asko proiektu honetaz, baina imajinatzen dut dela zuzenean gaur egunera egokitzea. Telebista etxe askotan ez da pizten, eta hemendik igual aukera daukazu sartzeko modu errazean eta zuzen, beraz, inportantea dela uste dut.*

BJ14 [03]: *Nik ez dut oso ondo ulertzen kontzeptua, osea esan nahi dut, beharbada da Nahieran hori zuk esaten duzun bezala ematen duela 70. hamarkadako gauza bat, moldatzea.*

BA9 [05]: *Bai, hori da.*

BJ14 [04]: *Hori beharrezkoa da, noski baietz.*

BA9 [06]: *Nik uste hori dela, azkenean plataforma zuzenean edukietara erraz eta modu elegante batean joateko bidea da.*

BJ14 [05]: *Ez dakit, nik imajinatzen dut orduan edukietarako ere egon beharko duela aurrekontu bat eta kanpoko edukiak, nik zer dakit, ba Filmin-ek egiten duen bezala serie batzuk erosi eta azpigitulatu. Horrelako gauzak egongo dira? EITB beraren edukiak? Plataforma bat elikatze... ikusteko dago.*

Bide beretik, **BL2 [03]**k ezaugarri hauek ikusten ditu beharrezkoak:

Nik esango nuke lehenengo izan beharko lukeen ezaugarrietako bat izan beharko litzatekeela hain zuzen euskara ardatz izatea. Baina euskara ardatz izateak nire ulertzeko moduan ez du esan nahi euskara gehiago gaztelera baino, esan nahi du euskara izango dela protagonista. Horrek zer esan nahi du niretzat? Ba esan nahi du, adibidez, EITBk jada hasi ahal du nahi izanez gero bere emisioak soilik euskaraz egiten, hau da, euskaraz lan egiten: euskaraz sortu, kontatu eta gero hizkuntza teknologiak baliatuta eduki horiek beste hizkuntzetara bikoiztu eta azpidatzi, inkuso automatikoki. Orduan badago teknologia jada asko garatu dena eta emaitza oso txukunak ematen dituena hori egiteko. Hori litzateke ausarta eta hori litzateke euskaraz ardatzeko urratsetako bat, eta gainera, euskararen ezagutza datuek hori egitea ahalbidetzen dute, hau da, jende gehienarengana iritsiko zara. ETB2 sortu zutenean ez zen hori egoera, gaur egun, beste leku batean gaude bai hizkuntzaren ezagutzaren aldetik, bai teknologiak ematen dituen aukeren aldetik. Bigarrena, nik uste dut egon beharko litzatekeela lotua plataforma bera izan behar dela atsegina, erabilterraza, ondo antolatua, ondo ekoitzia eta ez katalogo erdi galdu bat. Zein da Netflix, HBO, Amazon Prime eta besteen arrakastaren giltzetako bat? Erraza dela erabiltzeko, ondo funtzionatzen duela, azkarra dela, aukerak dituela eta abar. Hirugarren arrakasta arrazoiak izan behar dira ezaugarri izan ahal dena da algoritmoa. Plataformek ere algoritmoak erabiltzen dituzte, orduan, ez da soilik jartzea katalogo bat, baita ere garatu beharko genuke algoritmo bat: algoritmo bat jakiten duena Enekok ikusi baldin badu ETBko Ur handitan saioa ba eskainiko diot gomendatuta beste bat antzerakoa izan ahal dena, berari gustatu ahal zaiona eta algoritmo horiek izatea pertsonalizatuta. Beraz, ez da soilik edukia, da baita ere teknologia eta nola antolatzen dugun atzeko guztia. Eta gero, horrekin batera nire ustez egon beharko litzateke euskaraz sortutako fikzioaren aldeko apustu handi bat eta hori EITBk egin dezake eta egin beharko luke.

BU15 [02]ek, ETBko zuzendaritza taldeko kideak, hauxe esan digu orain arte komentatutakoaz:

EITBko estrategia egiten ari ginenean hainbat ikerketa enkargatu genizkien hainbat ikerketa agentziari eta emaitza horiek guztiak erreparatzean ikusi genuen lo obvio, baina zenbakiakin ikusita argiago ikusten da, bazegoela hutsune handi bat esparru digitalean edukia ikusteko, eta gazteak gero eta gehiago ikusten dituzte edukia esparru digitalean. Horrek ez du esan nahi telebistari bizkarra eman diozuenik baina egia da eta errealitatea da digitalean asko kontsumitzen dela, eta batez ere Youtuben baina baita plataformetan. Eta plataformen mundura edo Youtuberen mundura joaterakoan, erdarazko eduki asko dago, ingelesez oraindik gehiago, baina euskaraz oso gutxi. Euskal Irrati Telebistaren sorkuntzaren pilareetako bat euskara sustatzea eta bultzatzea da; orduan, zentzu horretan, EITBko zuzendaritzan argi ikusi genuen guri tokatzen zitzaigula hor lehenengo harria jartzea, eta erabaki genuen plataforma digital bat sortzea zeinek lagunduko zuen bermatzen euskal edukien presentzia esparru digitalean. Hor, asmoa, urtarilean merkaturatzea da. Orain momentuan bukatu dugu adjudikatzen plataforma digitala, bost milioiko aurrekontua dauka, dirutza jarri dugu, eta Mediapro izeneko enpresak egingo du. Orain momentuan ni nago arduradun eduki estrategiarena eta gero beste talde batzuk daude arduradun teknologiarena, beste batzuk datuena... Berez, asmoa, nahiz eta Euskal Irrati Telebistak aterako duen plataforma hau, ez dugu nahi izatea EITBren edukien plataforma bat, horretarako badaukagu Nahieran, berez asmoa da euskarazko edukiak edo Euskal Herriari buruzko edukiak produzitzen dituzten produktora txiki, zuzendari, erakunde eta instituzioekin akordioak egitea euren edukiak bertan izateko; adibidez, Tokikom, tokiko komunikabideen elkartearekin dagoeneko hitz egin dugu

eta oraindik ez dugu ezer sinatu baina eurak printzipioz begi onez ikusten dute eta ilusioa egiten die eurek ere Primeran plataforma honetan leiho bat izatea, tokiko komunikabideen edukiak ikusi nahi dituenarentzat. Festibalekin ere hitz egin dugu, adibidez, Zinemaldia eta Zinegoak, eta asmoa da gero beste askorekin hitz egitea, Zinebi, Mendi Film eta beste hainbat dokumental eta pelikula festibalekin, horien edukiak festibala bukatu eta hurrengo egunean hilabetez egon daitezten ikusgai Primeran-en edo elkarrizketak zuzendariekin edo behind the scenes edo horrelakoak. Baita Filmoteca Vasca, Basque Culinary Center... horrelako horiek. Orduan Euskal Irrati Telebistaren edukiak egongo dira, baina guk uste dugu zati txiki bat izan behar direla, % 40 gutxi gorabehera, eta gainontzekoa, beste leku batzuetatik etorritako euskal edukiak.

Plataforma berri honen inguruan oraindik erantzun ez diren funtsezko zenbait elementu daude: besteak beste, plataformarako eduki propioak sortuko diren ala ez, zein hizkuntzako edukiak eskainiko diren, dokoak izango den, ea ikusleak plataformara erakartzeko estrategia bat garatu den, teknologia eta algoritmoei dagokienez zer egingo den... Horiek guztiak erantzungo ditugu, BU15ek esandakoa iturri gisa erabiliz.

Lehenengo elementuari helduz, plataformarako eduki propioak sortuko diren ala ez, erantzuna baiezkoa da. Batez ere musika, euskara eta kulturaren inguruko edukiak sortuko dira. Dagoeneko ari dira horretarako eduki batzuk produzitzen, nahiz eta telebistan ere emitituko dituzten. Horren adibide da, *Lau teilatu* izeneko kontzertuak: hegoaldeko lau hiriburuetakoko teilatu edo terrazetan grabatutako MTV Unplugged antzeko kontzertuak. Irudiari dagokionez asko zaindutako grabazioak dira eta kontzertuaz gain, elkarrizketa txiki bat izango dute protagonistekin. Orain inbentario bat egiten ari dira Euskal Herriko abeslari esanguratsuenekin, helburua da, urtean lau atal emititzea. Horretaz gain, plataformarako dokumental, serie eta pelikulak ere produzituko dituzte.

Hizkuntza da beste elementu garrantzitsuenetako bat. Horren inguruan, iritzi desberdin asko sortu plazaratu dira. Batzuek diote euskarazko edukiak soilik eskaini behar dituela, gainontzeko hizkuntzak beste plataformetan daudelako presente. Beste batzuk, ordea, euskararen nagusitasuna aldarrikatzen dute, baina beste hizkuntzei lekua utziz. Iritziak iritzi, horrela izango da Primeran plataforma hizkuntzei dagokienez:

BU15 [03]: *Hizkuntza aldetik, guztiak egongo dira euskaraz, asmoa da % 60-70 jatorriz euskarazko edukiak izatea, eta gainontzekoa erdera, ingelesa edo beste edozein hizkuntza gutxitutakoa izatea, euskarara bikoiztua edo azpitoluekin. Ari gara hitz egiten, adibidez, Eskozia, Irlanda, Gales, Finlandia eta Norvegiako telebista publikoekin euren edukiak ere hemen egon daitezten, euskarara itzulita, noski. Hortaz aparte, aurrekontuekin gabilta orain eta ezin dut konfirmatu, diruaren araberakoa izango da, baina nahiko genukeena da produktu guztiak egotea baita ingelesez eta frantsesez, baina bueno, hori diruaren araberakoa da eta ez dakit izango dugun horrenbesteko.*

Prezioari dagokionez, doakoa izango da. Baina, baliteke puntualki eduki zehatz batzuk Primeran-en egon ahal izateko ordaindu beharra: adibidez, Zinemaldia edo Zinebiko pelikula bat ikusteko 2 euro ordaindu beharra distribuidoreek eskatzen dutelako. Hala ere, edukien % 99 dohainekoa izango da. Guk egindako inkestan, ikasleei galdetu diegu fikziozko eduki bat kontsumitzerako orduan non nahiago duten ikusi: % 37,3k dohaineko plataformetan adierazi du, % 26,9k hori berdina zaiola, % 20,9k ordainpeko plataformetan eta % 14,9k dohanik webgune edo sare sozialetan. Beraz, datu horiek erakusten digute gazteen ehuneko handi batek (% 47,8) ez duela inolako arazorik kuota bat ordaintzeko kalitatezko edukiak eskaintzen badira.

Puntu honetan, interesgarria da gogoratzea Euskal Hedabideen Behategiak streaming plataformen inguruan argitaratu duen txostenean dauden hainbat datu:

- Hego Euskal Herrian populazioaren erdia da streaming plataforma bateko harpidedun.
- Gure lurraldean Netflixek ditu harpidedun gehien (% 85), ondoren Amazon Prime Videok (% 52) eta HBOk (% 22).

- Hamar harpidedunetik zazpi moldatzen euskaraz (populazioaren % 71).

Azkenengo datu hori ikusita, argi dago, euskarazko streaming plataforma baten beharra daukagula eta euskararen ezagutza datuek hori ahalbidetzen dutela. Beste bi datuek ere bi gauza utzi dizkigute argi: Hego Euskal Herrian era honetako plataformek indar handia dutela eta zaila izango dela enpresa erraldoi horiekin konpetitzea. Hori ikusita galdera bat etorri dakiguke burura: zer egingo dut EITBk ikusleak *Primeran*-era erakartzeko? Hementxe erantzuna:

BU15 [04]: *Nahieran-eko datuak ikusita, badakigu, EITBko euskarazko eduki batzuk jende asko erakartzen dutela EITBren unibertso digitalera, adibidez, Go!azen, Irabazi Arte edo El Conquis. Orduan, horrelako edukiekin, EITBko edukiak direnak edo ez, baina batez ere EITBkoekin badakigunak jendea mobilizatzeko indar handia daukatenak, ziur aski horiek telebistan estreinatuta aurretik Primeran-en estreinatuko ditugu. Adibidez, asmoa da urtarrilean martxan jartzea Primeran eta otsailean estreinatuko dugu Irabazi Arte-ren bigarren denboraldia, ba ziur aski lehenengo kapitulua Primeran-en estreinatuko da, telebistan baino astebete lehenago. Baita ere akordioak egin nahi ditugu Euskal Herrian gertatu diren ekitaldi handiekin, adibidez, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa edo adibidez, abenduan, Ertzainak-en kontzertua dago BEC-en, ez gara helduko ze hau urtarrilean jarriko da martxan, baina jende asko pilatzen dituen horrelako ekitaldiekin jokatu nahi dugu horiek Primeran-era joan daitezen, ze uste dugu zailena izango dela jendea Primeran-era eramatea, baina gero, buruan daukagun eduki estrategiarekin, bertan daudenean, uste dugu izango ditugula eduki erakargarriak behin plataforman daudenean eduki bat ikusi ostean antzeko beste zerbait ikusi dezaten.*

Teknologia eta algoritmoen dagokienez, plataformak gomendioak egingo ditu kontsumitu dugunaren eta gure gustuen arabera:

BU15 [05]: *Bai. Ari garena gure artean eztabaidatzen eta justu atzo izan genuen elkarrizketa hau ea derrigorrezkoa izango de erregistratzea ala ez. Nire iritzia da baietz, ez datu gehiegi emanda baina behintzat datu minimoekin, ze jendea erregistratzen denean eta datu gutxi batzuk ematen dituzenean askoz errazagoa da gomendioen aldetik gehiago asmatzea. Oraindik ez daukagu argi derrigorrezkoa edo aukerazkoa izango den erregistratzea, baina bai bata izan zein bestea, kanpoko agentzia bati emango diogu seguraski datuen kudeaketa eta hausnarketa, gero hori hain zuzen erabiltzeko erabiltzaileak hobeto ezagutzeko eta horren arabera berarentzat erakargarrienak diren edukiak gomendatzeko.*

Beraz, argi dago EITBk martxan jarri behar duen *Primeran* plataforma ongietorria izango dela. Bai sektoreko profesionalak eta adituak eta baita EITBko zuzendaritzako kideak bat datoz euskararen ardaztua egon behar dela plataforma berri hori ikus-entzunezkoen esparru digitalean euskararen hutsunea oso nabaria delako. Plataforma hori euskarazko edukiak gazteen kontsumo ohitura berrietara moldatzeko tresna ere izango da.


.....

4. Streaming plataformen agerpenak izugarri igo du fikziozko edukien kontsumoa. Egun, normala da serie bat ikusten hastea, eta egun berean hainbat kapitulu ikustea. Jadanik ez dugu itxaron behar egun bat edota aste bat hurrengo kapitulua ikusteko. Hori, dudarik gabe, ikus-entzunezkoen kontsumo aldaketaren ezaugarri nagusienetako bat da. Egin dugun inkestan horren inguruan galdetu dugu eta ikasleen ia erdiak (% 47,7) erantzun du serie bat kaleratzen den egunetik atal guztiak eskuragarri izan nahi dituela. Ikasleen ia beste erdiak (% 46,2) astean atal berri bat kaleratzearekin ados dago.

Streaming plataformetan dokumentalak eta bestelako edukiak proportzio askoz txikiagoan kontsumitu ohi dira. Horien eskaintza ere ez da hain ugaria eta erakargarria izaten. Bai eduki

horietan eta baita fikziozkoetan euskararen presentzia oso baxua da, baxuegia. Hori argi ikusi dezakegu Ikusiker paneletik ateratako datuetan. Ondorengo grafikoan gazteek streaming plataformetako edukiak zein audio eta azpidatzi (erabiltzekotan) hizkuntzarekin kontsumitzen dituzten ikusi dezakegu:

13. Grafikoa. Audio eta azpidatzen hizkuntza streaming plataformetako edukietan.



Iturria: Ikusiker Panela. 31. 2021-2022 Panela: streaming plataformak.

Euskarazko datu baxu hori oso kezkarria da, baina zuzenki dago lotuta dagoen eskaintzari. Euskaraz sorturiko produkzioak oso gutxi dira eta gehienak ez daude plataforma horietan. Gainera ez dira bikoizten ezta azpidatzen euskarara beste hizkuntzetako produkzioak. Testuinguru konplexu horretan EITB da euskarazko fikzioak sortzeko dugun erraminta bakarrenetarikoa, eta azken urteetan ez da indartsu aritu horretan. Hori argi ikusi daiteke lehenago aipatu dugun Ikusiker Paneleko datu honetan: Fikzioa ikusteko zein kanal gomendatuko luketen galdetzean ETBko kanalak azkenak izan dira ehuneko oso baxuekin: ETB3 %3,8k gomendatu du, ETB2 %3,7k eta ETB1 %3k. Hala ere, esan beharra dago % 28,6k ez lukeela telebista tradizionala gomendatuko fikziozko edukiak ikusteko.

Egoera kezkarria hori focus groupera eta elkarrizketetara ere eramán dugu eta hauxe da komentatu dena (aipuren bat lehenago ere erabili dugu, baina interesgarria da testuinguru honetan gogoratzea):

BM3 [04]: Azken urteetan egon dira euskarazko fikzioak ETBrentzat ekoiztu direnak eta hor irten zen Koldo Almandoz esanez oso aurrekontu txikiarekin egin zutela lan, oso modu prekarioan eta diru gehiago eduki zezaketela, ez? Egia da, izan zutena kontuan hartuta oso produkzio dotorea irten zitzaiela, baina galdera da, zein baldintzatan? Edo zein preziotan? Horrela ez dut uste lan egin behar denik, horrela bederen El Conquis-eko taldeak ez duela lan egiten. Zergatik fikzioa horrela tratatu? Orain momentu honetan gainera ez dakit ETBk baduen fikziozko edukirik programazioan... esango nuke ezetz. Norbaitek galdetzen baldin badio Unai Iparragirri horren inguruan... ez egotea da ETBren helburua ez betetzea. Ezin gara planteatu horrelako egoera bat ETBn euskarazko fikziorik ez dagoen momentu batean.

BA9 [07]: Gaur egun lehen mailan egon behar bagara serieak euskaraz egin behar ditugu; eta horretarako apustu sendo bat behar da eta erabaki politiko bat. Munduan nahi badugu euskara kokatu, serieak egin behar ditugu euskaraz eta hori egiteko dirua behar da. Ezin da EITBk aurreko denboraldian egin zuen apustua "benga lau serie egingo ditugu eta prekario ez?". Behar da dirua, behar da jendea ordaindu txukun eta behar da kontinuitate bat: plataformekin loturak bilatu, batera joan, baina euskarazko apustua egin munduan egoteko.

EITB ez da egiten ari apustua, bueno eta atzetik datorren kultura departamentua, euskara departamentua... hor defizit bat dago eta garbi dago zerikusia duela mundua aldatu izanarekin. Daukagu ekoizte sistema orain dela hogeitorteko eta hori aldatu behar da egunero bestela ez gara egongo lehenengo mailan.

Orain, euskarazko serie bat planteatu daiteke Netflix-i eta Netflix-ek hori onartu? Hori da egin behar dena, modu batera edo bestera beti gaztelerazko merkatua zabalagoa da baina ematen badiogu diferentzial bat bai kalitatearen aldetik edo istorioaren aldetik edo zeozer oso berezia aurkezten badugu nik uste ez lukeela izango inongo arazorik. Badaude iparraldeko herrialdeetako ba Islandiako edo Danimarkako edo Suediako serieak punta-puntan. Hori da helburua bat. Hori ari ginen hitz egiten orain dela hamar urte pelikulekin eta orain da momentu mitiko bat, oso berezia. Apustua egiten badugu benetan, munduan egongo gara, bestela ez.

BJ14 [06]: Gertatzen dena da hor bi gauza direla: bat kalitatiboa edo kalitatearen aldetik. Hor esate baterako, konparazio historikoa egitearren, 80ko hamarkadan, aldeak alde, lehenengo aldiz pelikulak egiteko aukera egon zen eta diru pilo bat jarri zen lehen urteetan eta pila bat pelikula egin ziren ezagutzen ditugunak La fuga de Segovia eta abar. Baina hor hasieran zen "egin daitezela eta gero pentsatuko dugu zelan egin" eta orduan euskara geratu zan erabat, ikusi besterik ez dago, hamar urte horietan pelikula bat egin zen euskaraz, besterik ez. Nik uste dut, gero pentsatu dan bezala, euskarari lagundu egin behar zaiola edo kuoten bidez edo puntuazioen bidez... Hori da gauza bat, baina gero beste kontu bat da ere apustu bat egin behar dela esaten dugunean konturatu behar gara ez dela pixka bat igoko dugula, eske ez dakit nola esan, Euskal Telebistak iaz eman zuen diruarekin lau serie horiek egiteko, diru hori guztiarekin orain egiten ari diren Intimidad edo Balenciaga serieen kapitulu bat ordaindu daiteke? Ari gara liga ezberdinetaz hitz egiten eta orduan BA9k esan duen moduan ezin duzu hemengo teknikoei edo sortzaileei esan "bueno hemen egin a toda ostia serie bat" daukazunean gero mundua beste baldintza batzuetan eta orduan bestela gertatuko da, beste garai batzuetan gertatu dena, jendea Madrilerara joango dela edo ez dakit nora. Jendeak badaki eta hemengo teknikariak eta sortzaileak badaukate non lana egin. Orduan daude bi gauza, kalitatiboa, apustua nola egiten den, ze irizpide oso politikorekin edo hizkuntzari edo zeri lehentasuna eman; baina badago ere kantitatearena, ez da % 5 igotzea aurrekontua. Izan behar da jauzi bat, izan behar da kontzeptu aldaketa bat, ez da soluzioa izango hurrengo urtean esaten baldin badute Euskal Telebistan iaz bezala lau serie egingo dituztela, horrela ezin duzu konpetitu. 80ko hamarkadan egin ziren pelikula pila bat eta nola Jaurilaritzari kritikatzin zitzaion euskaraz batere ez egitea, orduan hiru metraje ertaineko film egin ziren, Ehun metro eta horiek, La fuga de Segovia edo horrelako baten aurrekontuaren % 10arekin edo egina, metraje ertainak gainera, ematen zuen euskarak ez zuela balio luzemetraia bat egiteko. Eta orain da gauza berdina. Hondar Ahoak bezalako gauza batek funtzionatu izana da mirari bat, bueno ez da mirari bat ze nire ustez produktu ona da, baina dau sacado a pulso, ezin diozu eskatu hori jendeari. Behin, bitan egingo dizute, baina gero horrela ezin da jarraitu.

BU15 [06]¹⁴: Ados nago. Ados nago ikusle bezala. Gertatzen dena da gero ETBko zuzendaritzako kide bezala eta aurrekontua kudeatzea tokatzen denean zaila dela ze fikzioa oso oso oso garestia da. Go!azen-en kapitulu baten kostuarekin Biba Zuek-en hogeitahamazazpi kapitulu grabatu daitezke. Hori da proportzioa. Orduan EITB bezala badakigu bultzatu behar dugula bertako produkzioa, baina egia da, dauzkagun aurrekontuak ikusita, ze kanpotik ikusita asko ematen du baina telebista egitea oso garestia da, ez duela ematen egin nahi dugun guztirako. Orduan pasaden urtearen amaieran hausnarketa bat hasi genuen gure fikzioaren estrategia berrikusteko eta egiten ari garena orain da fikzioko edukiak koprodukzioan egiten saiatu plataformekin. Adibidez, Irabazi arte Disney-en ere egongo da, orduan, horrek errazagoa egiten du gure aurrekontu orokor guztia ez jateko. Orduan, bai egonda lehorte bat hausnarketa guzti hau egiten ari ginen bitartean produkzioa pixka bat gelditu egin dugulako. Ez geneukan dirua egin nahi genuen guztia egin ahal izateko, orduan pentsatu behar genuen gutxiago egingo dugu, eta nik hori ez nuen nahi ze uste dut garrantzitsua dela EITBk bultzatzea fikzioaren ekoizpena, edo nola egingo dugu edo nola mantenduko dugu lehengo erritmoa baina era jasangarri batean ekonomia eta

¹⁴ Informatzailearen identitatea babesteko, berariaz moldatua. Jatorrizko testua eskuragarri dago hirugarren eranskinan (eranskin konfidetziala).

aurrekontuei begiratuta. Orduan erabaki genuen, Netflix eta Amazonekin hitz egin eta gero, badaudela interes eremu batzuk amankomunean ditugunak eta horietan elkarrekin egingo dugun lan. Bai Amazonekin eta bai Netflixekin fikziozko proiektuak dauzkagu esku artean eta esate baterako orain martxan jarriko den hurrengo grabaketa, orain preproduzioa fasean dagoena, ez da haurrentzat Go!azten eta Irabazi arte diren bezala, helduagoentzat da, Iparraldean eta Hegoaldean grabatuko da eta surf eskola baten ingurukoa da.

Bide beretik, BU15ek adierazi digu pandemia garaian ETBk fikzioaren aldeko apustua egin zuela, momentu horretan kirolak desagertu zirelako, orduan, kiroletarako erreserbatutako dirua fikzioa bideratu zuten. Garai hartan, ETBk ekoitzi zituen normalean ekoizten dituen serieen bikoitza: *Hondar aboak, Alardea, Altsasu...* Egoera berriro ere normalizatu denean, kirolak itzuli dira, eta beraz, fikzioarako bideratutako dirua berriro ere nahiko mugatua izatera igaro da.

Aipatu beharra dago, EITBk, telebista publiko bezala, publizitatek ateratzen duen % 6 bideratu behar duela dokumentalak eta zinea finantzatzera:

BU15 [07]: Guk urtero gutxi gorabehera sei milioi bideratzen ditugu filmak eta dokumentalak finantzatzera. Iaztik daukagu diskriminazio positibo arau bat, guk geure buruari jarri dioguna, eta diskriminatzen dugu positiboki euskarazkoak diren filmak, emakumeek zuzendutakoak eta Nafarroan presentzia daukatenak.

BU15 [08]k horren inguruan adierazi digu euskarazko oso pelikula gutxi aurkezten direla EITBren diru laguntzetara, % 20 inguru:

Gehienak erdaraz izaten dira eta hori zer da? Ba hori da la pescadilla que se muerde la cola. Batez ere zine zuzendari berriek badakite euren pelikula euskaraz egiten baldin badute rekaudazioa zinematari gutxiago izango dela, orduan, hor nonbait la pescadilla que se muerde la cola moztu beharra dago. Horregatik guk erabaki genuen gutxienez horiei baietza errazago ematea. Ez daukat hemen zerrenda, baina orain egiten baduzu errepassoa baiezkoa eman diegun euskal filmei, horietatik erdia ziur aski erderaz izan balira ezezkoa emango genieke, baina baiezkoa eman diegu behar direlako, nahiz eta editorialki, gidoi aldetik edo narratibaren aldetik pixka bat flojoak iruditu. Baina gertatzen dena da jendea eta industria bat hobetzen joaten dela esperientzia daukan heinean, orduan, ba bueno etorkizunean euskarazko filmak erdarazkoak bezain potenteak izan daitezten ba igual urte batzuetan flojoagoak direnak ekoitzi behar ditugu jendeak eta industriak esperientzia hartzeko.

Asier Larrinagak bere doktore tesian (2019) hauxe dio honetan aipatutakoaz:

«Euskarazko ikus-entzunezko komunikazioan, suspergarri baten beharra dago, euskara atzerantz egiten ari dela igartzen baita. Alde batetik, EITBren eskaintza asko murriztu da fikzioan, entretenimenduzko ikuskizunetan eta eliteko kirolean. Beste alde batetik, euskarak sarbide zaila du ikus-entzunezko plataforma digital handietan, egun aisialdiko lehen aukeretako bat direnak (...).»

Aurrekoa ikusita argi dago beharrezkoa dela euskarazko fikzioaren aldeko apustu sendoa egitea. Inoiz baino gehiago kontsumitzen dira serieak, filmak eta dokumentalak, eta horietan euskararen presentzia hutsaren hurrena da. Ezinbestekoak dira ikus-entzunezkoak euskararen erabilera sustatzeko eta horretarako eduki propioak sortzeaz gain azpidatzi eta bikoizketen sektorea indartu behar da. Testuinguru berrietara moldatzeko beharrezkoa da azken urteetan sortu diren agente berriak kontuan izatea eta lehenago aipatu den moduan elkarlana sustatzea. Elkarlana Netflixekin, Amazon Primekin, TV3ekin, TVGrek, herri ekimen eta elkarteekin...

.....

5. Aldaketez beteriko panorama honetan, Estatuko Ikus-entzunezko Lege Orokorra onartu zen 2022ko maiatzaren 26an Espainiako Kongresuan. Euskarazko eta gainontzeko hizkuntza minorizatuetao edukiak produzitzeko, zabaltzeko eta garatzeko aukeratzat hartzen zen hasiera batean, baina onartutako dokumentua hasierako ideia horretatik oso urrun geratu da:

BM3 [05]: *Nik uste dut aukera bat galdu dela hor. Aurrekoan ere kontseiluak esaten zuen aukera bat galdu dela benetan bermatzeko hizkuntza gutxituen presentzia ikus-entzunezko komunikazioaren esparruan: streaming plataformetan bereziki. Gehiago eskatu beharko lukete alderdi politikoek? Nik uste dut alderdi politikoak saiatu direla baina ez zaiela entzun eta azkenean hemen konpainia erraldoiek agintzen dutela. Orduan, haiei men egiten zaie eta uzten zaie legearen kontrako praktikak egiten, eskatzen zaie isunak ordaintzea baina gero ez dituzte ordaintzen, gainera ez dute haien etekinen zati bat lurraldean uzten edo haien eskaintza dagoen lurraldeetan uzten eta gero gizarteak ez du eman behar zaiona jasotzen. Gizartearen partetik egon dira ekimenak, ez bakarrik Euskal Herri mailan, egon dira Galizian eta egon dira Katalunian ere. Baina ikusten duzenez Ikus-entzunezko Lege Orokor berrian aukera bat galdu da eta galdu da bereziki men egin zaielako konpainia handiei. Izugarritzko boterea dute eta haiek esaten dutena azkenean praktikan jarri da lege horretan. Ez da ezer aldatu, ez da ezer aldatuko epe laburrera begira eta aldatzen baldin bada okerrera egingo du. Beraz, ez da lehen pausu bat izan.*

BL2 [04]: *Lehen pauso nimitño bat dela esan ahal da. Bada, gaiaz hitz egiten hasi da, alderdi politikoak batu dira, eskaera batzuk egin dituzte. Katalanek gogor jarri dute mahaigainean hizkuntzaren auzia eta nolabaiteko kuota txiki batzuk lortu dira. Bada lehen urrats bat, baina nimitñoa, aurretik esan bezala ikus-entzunezkoen itsasoa gaur egun horren zabala da, streaming plataformen katalogoak horren handiak dira, % 1era ere iristen ez den kuota hori ba ia-ia hutsaren hurrengoa dela. Hori zer dira azkenean, zenbat produkzio dira urtean? Zenbat telesail dira urtean? Zenbat pelikula dira urtean? Hori aztertu beharko da eta esango nuke bai izan dela urrats bat, txikia, eta erantzun diola zati baten ezintasun politiko bati eta ezadostasun politiko bati hizkuntza aniztasunean eta hizkuntza gutxiagotuen ez gutzizko aitortza eta errespetuan oinarritutakoa.*

Lerro beretik, Lege berriaren balorazio sakona egin du Pantailak Euskarazek. Horretan sakondu aurretik, gogoratuko ditugu zeintzuk diren legea ontzat emateko euskalgintzako hainbat eragilek (Kontseilua, Topagunea, Hekimen, Tokikom, Pantailak Euskaraz) ezarri zituzten gutxieneoak (Pantailak Euskaraz, 2022):

1. *Aldetz aurreko finantzaziorari dagokionez, plataformek Estatuko ekoizpena bideratu beharreko dirutik, hizkuntza gutxitu bakoitzari, gutxienez, % 8 esleitzea.*
2. *Plataformen katalogoko edukietan berezko hizkuntza gutxituei % 40 esleitzea (Estatuko edukiei gorde beharreko katalogoen %15 horretatik), baina halabeharrez jaso dadila da hizkuntza gutxitu bakoitzak gutxienez % 12 izango duela.*
3. *Diru publikoaz jadanik egindako euskarazko, katalanezko eta galizierazko bikoizketa eta aspizatziak txertatzeko betebeharra ezartzea.*
4. *TVEn ere gutxieneko kuota ezartzea: informatibo territorialak bertako hizkuntza ofizialean egitea, Clan TVko edukiak bikoiztea.*
5. *Plataformetako menuak/interfazeak euskaraz ere jartzea.*
6. *Kokapen geolokalizazio bitartez euskarazko edukiak nabarmentzea.*
7. *Autonomia-erkidegoek legea garatzeko eta euren hizkuntza ofizialak sustatzeko betekizun berriak sartzeko aukera izatea.*

Eskaera horiez gain, Estatuko gainontzeko hizkuntza gutxituen komunitateekin batera, lege berriak hizkuntza-aniztasuna oinarritzko printzipio gisa onar zezan eskatu zuten eragileek.

Hori helburutzat izanik ondorengo irakurketa hau egin du Pantailak Euskarazek onartutako Lege berriaren aurrean:

- *Herritarren eta hizkuntza alorreko eragileen presioari esker Estatuko plataformen katalogo-kuotetan, TVEn, eta streaming plataformen zerga bidezko finantzaketa aurreratuan, hizkuntza gutxituentzat kuota batzuk txertatzea lortu da, eta hori positiboa da. Halere, hizkuntza gutxitu bakoitzean bermatu beharreko kopuruak % 0,35 eta % 2,55 artekoak izango dira. Beraz, nabiko portzentaje anekdotikoak izango dira.*
- *Gainera, legeak katalogoetako kuota hauen eragina murrizten du, Espainiar Estatutik kanpo egoitza duten Netflix, HBO, Prime Video edo Disney+ bezalako nazioarteko plataformak (merkatuan nagusi direnak eta gurean ere ikusle gehien dituztenak), erregulaziotik kanpo uztean. Legearen arabera plataforma hauek “erantzukizun konpromiso bat” zehaztu beharko dute hizkuntza koofizialen presentzia bermatzeko, baina ez dira derrigortuta egongo. Plataforma handiek euren Estatuko irabazien %0,52 bideratu beharko dute hizkuntza gutxituetako ekoi-zpenetara, eta hau biztanleriaren arabera banatuko da.*
- *Diru publikoaz aurretik eginda dauden bikoizketa eta azpidatziak euren katalogoko filmetan txertatzeko plataformek izango duten betebeharra oso mugatua izango da, legeak teknikoki posible denean eta kosturik ez duenean soilik egin beharko dutela zehaztu baitu.*
- *Estatuko Telebista publikoak (TVE) eduki batzuk katalanez, galegoz, eta euskaraz eskaini beharko dituela dio legeak, eta CLAN haurrentzako kateak edukiak bikoiztu beharko dituela; hau aurrerapauso txiki bat izan daitekeela uste du Pantailak Euskarazek.*
- *Menu/interfazei dagokienez legeak ez du aurreikusten erabiltzaileei hizkuntza hautatzeko aukera emateko derrigortasunik, eta horrek, praktikan, asko zailduko du gaztelania ez den beste edozein hizkuntza erabiltzea filmen eta telesailen jatorrizko bertsio azpitu-ludunak ikustean.*
- *Erkidego Autonomoek euren TB publikoa arautzeko eta Lege hau garatzeko eskumena izango dute legearen arabera; hor egon daiteke euskararen alde eragiteko beste eremu bat.*
- *Onartu den legeak ekoi-ze independenteak kinka larrian uzten ditu, berez bai bideratutako laguntzak enpresa handiek ere eskuratzea ahalbidetu; hau oso larria da, izan ere, ekoi-ze independenteak izan dira orain arte euskaraz, eta beste hizkuntza gutxituetan, edukiak sortzeko apustua egin izan dutenak.*

Hori adierazirik, Pantailak Euskarazek BM3ren bide beretik azpimarratu du “Ikus-entzunezko Legea euskara pantailetan hauspotzeko galdutako aukera bat izan dela”. Hala ere, gaineratu dute Lege horrekin ez dela ezer amaitzen eta euskararen eremuko erakundeek asko egin dezaketela. Besteak beste, streaming plataformekin zuzeneko negoziazioa euskarazko edukiak txertatzeko (Netflixekin egin den bezala), diru publikoaz egindako azpidaketa eta bikoizketa artxibo guztiak banatzaile eta plataformen esku utzi, euskarazko bikoizketarako dirulaguntza lerroak sortu, euskarazko streaming plataforma bat sortzea, Euskal Zinemaren legea onartzea, EITBn lehentasuna, aurrekontuan eta programazioan, euskarazko katei ematea eta gaztelarazko kateetan euskara ikusgarri egitea, EITBk euskarazko fikzioa eta bikoizketa indartzea eta Ikus-entzunezko Kontseiluak sortzea (EAEn eta Nafarroan).

Bukatzeko, Pantailak Euskarazek BL2ren lerro beretik adierazi du pozgarria dela “euskaldun komunitatea ahalduntzeko baliagarriak diren dinamika berriak martxan jarri izana”.

Hurrengo puntura pasatu aurretik, goian aipatu ditugun hainbat puntutan jarriko dugu arreta: Euskal Zinemaren legea, Ikus-entzunezko Kontseilua eta lege propio baten garapena. Horien beharra behin eta berriz errepikatu da egindako focus groupean eta elkarrizketetan:


BI10 [04]: *Pantaila Euskaraz-en aldarrikapenetako bat da Ikus-entzunezko Kontseilu bat sortzea, hain zuzen, politika ahalik eta gehien ateratzeko hortik. Eraginkorra eta exekutiboa izan daitekeen kontseilu bat sortzea. Eta hori atzera bota zuen Eusko Jaurlaritzak. Ez zan ezta debatitu egin, eta hori zerbaitegatik da. Azkenean kontrola zuk baldin badaukazu EITBren gainean edo ikus-entzunezkoen eta legeen gainean ez duzu delegatu nahi, eta ikus-entzunezko kontseilua bada botere horren nolabaiteko delegazio bat.*

BL2 [05]: *Nik uste dut eskatu behar dela ausardia eta adostasuna. Ikus-entzunezko Lege propio batean traduzitu ahal da ausardia eta adostasun hori ze azkenean euskaraz oinarritzen bazara, euskarazko komunikazio politika bat abian jartzen baduzu, zentzuko da Ikus-entzunezko Lege Orokor baten bueltan zeozer egitea. Baina, agian, baita ere egin beharko da komunikazio lege orokorrako bat, ez soilik ikus-entzunezkoetan oinarritua, baita ere, bestelako komunikazio euskarri guztiak gainetik elikatuko dituena. Eskatu behar zaie baita ere ausardia, adostasuna, horri lotutako erregulazio bat eta teknologia baliatzea.*

BM3 [06]: *Zinemaren Lege propioa sortu behar da eta ez da izango soluzioa ezta ere. Ikusten duzu Katalunian lege propioa dutela baina ez dela izan soluzioa ezta ere. Hemen sortu behar dena da Ikus-entzunezko Lege propio bat, komunikazio esparruaren lege propio bat, ez bakarrik zinemarena. Eta horrek ez du dena konponduko. Beraz, pentsatu, badaude nahiko argudio justifikatzeko Komunikazioaren Lege propio baten beharra (...) Sortu behar dena da kontseilu bat jarraipena egingo diona egoerari eta ikusteko baita ere Lege Orokor horren betetzea dagoen ala ez gurean. Baina ez dago nahirik Ikus-entzunezko Kontseilua sortzeko.*

Komunikazioan aditua eta aritua den Ramon Zallok ondorengo hau adierazi zigun aurrekoaz duela urtebete egindako elkarrizketan:

«(...) no hay una sistemática de seguimiento respecto a lo que pasa en la comunicación. No se quiere ley, no se quiere saber, no se quiere estudiar. Eso lo tiene que hacer la universidad; algunos hemos hecho tesis doctorales dedicados a esto, informes, El libro Blanco de la Comunicación... Hay un campo para trabajar, pero tropiezas con el desinterés de la administración. Hay que sacar iniciativas respecto a la importancia de la comunicación sobre todo en una nación sin estado donde la comunicación es central de cara a crear país, a lo que lleva a la construcción nacional, pasando por el ámbito cultural y comunicativo. No hacerlo es una barbaridad, es algo inconcebible; no hay construcción nacional si no hay construcción comunicativa. Y sin embargo estamos donde estamos» (Iriondo, 2021).



Ramon Zallo. Iturria: BERRIA

Alor honetan argi dago interes asko elkar gurutzatzen direla. Batetik, streaming plataforma erraldoiak ditugu. Mundu mailako enpresa horiek izugarri hazi dira azken bost urteetan eta lortu duten boterea itzela da. Horien betebeharrak lege batean irudikatzea oso zaila da, argi ikusi da Ikus-entzunezko Lege Orokor berrian. Irabazi ekonomikoa da helburu bakarra edo ia bakarra enpresa horietan eta euskara bezalako hizkuntza minorizatu batek ez die errentagarritasunik suposatzen. Beraz, egoera honetan eman beharreko hiru ezinbesteko pausu identifika ditzakegu: 1. herri mugimenduak, 2. administrazioen presioa eta konpromisoa, eta 3. hori dena lege batean jasotzea. Bestetik, 2. pausua ildotik, administrazio eta gobernuen interes pertsonal eta partidistak ditugu. Jasotako ahotsetan argi ikusi da beharrezkoa dela gure lurraldean legeekin batera Ikus-entzunezko Kontseilu bat izatea.

Benetan eraginkorra eta erabakiak hartzeko aukera duen Kontseilu bat. Gure ingurura begiratzen badugu, Valentziako¹⁵ (2021. urtetik), Andaluziako (2005), Kataluniako (2000) eta baita Frantziako (1989) Ikus-entzunezko Kontseiluak aipa ditzakegu. Gertuago ere, Nafarroan, izan zuten Kontseilua 2001 eta 2011 bitartean.

Aurrera segi baino lehen, Espainiar Estatuan sortu den azken Ikus-entzunezko Kontseiluari erreparatuko diogu: Valentziakoa. Ideia bat egiteko, sortu berri den kontseiluak izango dituen funtzio batzuk aipatuko ditugu. Jose Maria Vidalen, Valentziako Ikus-entzunezko Kontseiluaren presidentearen hitzak dira Eusko Legebiltzarreko Kultura batzordean (EH Bilduk eskatuta):

«Arduratuko da operadoreek publizitate arloan legea bete dezaten; haur, gaztetxo eta adinekoei begira edukietan legea bete dadin, baita desgaitasunak dituztenei dagokienez ere; arduratuko da ikus-entzunezkoen arloko gaitan gobernu eta parlamentua aholkatzeaz, legeak proposatzeaz, txostenak eta estatistikak lantzeaz, eta hedabide publikoen kontrolean egingo du lan¹⁶».

Aipaturiko horietaz gain, Valentziako Kontseiluak beste hainbat funtzio izango ditu: albistegiaren jardunaz txostenak egingo ditu; hedabideen erregistroa egingo du; kode deontologikoak eta praktika onen kodeak osatuko ditu; herritarren aholkuak eta eskaerak jasoko ditu; ikus-entzunezko artxibo bat sortuko du; eta hedagailuen gaia landuko du (Berria, 2021).

Bide beretik, Vidalen agerraldiaren beste bi pasarte dakarzkigu:

«Orain arte lankidetzaz gutxi zegoen tokiko irrati eta telebisten eta hedabide publikoen artean. Katalanezko tokiko irratiak eta irrati publikoa elkarlanean hasi dira, eta hori bultzatuko dugu».

«Europako Batasunak behartzen gaitu kontseiluak izatera, baina Espainian gobernuak kontrolatu dituzte ikus-entzunezko hedabideak, eta horrek eragina izan du kontseilurik ez sortzeko joeran. Francoren diktaduran gobernuak kontrolatzen zuen irrati-telebista publikoa. Gero, telebista autonomikoak sortu zirenean, eredu bera erabili, eta gobernuak kontrolatutako telebistak izan dira».

Bukatzeko, esan beharra dago, Espainiar Estatuan Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorraren bidez, Ikus-entzunezko Komunikabideen Estatuko Kontseilua (CEMA) izeneko ikus-entzunezko erregulazio-kontseilu bat sortu zela, baina ez da inoiz eratu. Halakorik ez dagoenez, edukiak kontrolatzeko eskumenek, lizentzien esleipenak eta dagokion zehatzeko ahalmenak Espainiako Gobernuo Industri Ministerioaren esku jarraitzen dute.

.....


6. Azken urteetan ikus-entzunezko edukiek presentzia ikaragarria hartu dute gure egunerokoan. Ezinbesteko elementu bihurtu dira sozializatzerako orduan. Hilabete bukaeran, kontuak eginez gero, argi ikusiko dugu gure bizitzaren atal handi bat okupatu dutela. Hala ere, horrek ez du eragin euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoak gora egitea; ez behintzat gaztelaniazkoek eta ingelesezkoek egin duten neurrian. Horren arrazoi nagusia da dagoen eskaintza urria. Hori horrela izatearen arrazoiak aipatu ditugu lanean zehar (diru-laguntza urriak, estrategia sendo

¹⁵ Valentziakoa, Consejo Audiovisual de la Comunidad Valenciana (CACV); Andaluziako, Consejo Audiovisual de Andalucía (CCA); Kataluniakoa, Consell de l'Audiovisual de Catalunya (CAC); Frantziakoa, Conseil Supérieur de L'audiovisuel (CSA).

¹⁶ Berria egunkaritik atera dira deklarazioak. Ondorengo estekan albistea eskuragarri: <https://www.berria.eus/albisteak/207533/valentziako-ikus-entzunezkoen-kontseiluak-27-langile-izango-ditu.htm>

baten falta...), baina ez, ordea, horren ondorioak. Ez dugu lortu euskara maila akademikotik eta hezkuntza sistematik kaleetara eta lagun artera zabaltzea. Hori argi ikusi daiteke euskararen ezagutza eta erabilera datuetan. Ezagutzak gora egin du, baina erabilerak, ordea, ez.

14. Grafikoa. Euskararen kale erabileraren bilakaera. Euskal Herria, 1989-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra. Hizkuntzen erabileraren kale neurketa.

Euskararen kale erabilera % 12,6an kokatu zen 2021ean. 2006ko datuari erreparatzen badiogu puntu bat baino gehiago jaitsi da azken urte hauetan. Jaitsiera horrek harremana izan dezake Interneten eta streaming plataformen agerpenarekin eta ikus-entzunezkoen testuinguru berriarekin. Gaztelaniarena, ordea, datu horretatik oso urrun dago. Gaur egun (2021), % 75,8n kokatzen da. Frantsesari dagokionez, Euskal Herritarren % 8,8k erabiltzen du eta % 2,8k beste hizkuntzaren bat erabiltzen du. Beraz, Euskal Herriko kaleetan, euskaraz ari da zortzi lagunetik bat. Gehiengoak gaztelaniazko elkarriketaren batean parte hartu du, eta gainerakoak frantsesez edo beste hizkuntza batean aritu dira (Soziolinguistika Klusterra, 2021).

Jarraian, euskarak ikus-entzunezkoen unibertsoan duen presentzia urriak ekarri dituen ondorioen inguruan jaso ditugun hainbat iritzi dakarzkizuegu:

BI10 [05]: *Hitz egin da asko zinemas, telebistaz... baina badago beste gako bat gazteen artean streaming, sareak, Interneten gertatzen den guzti hori, ez? Streaming plataformak, Tik Tok eta horiek guztiak. Hori bada ere gainontzekoaren ondorio bat. Guk azkenengo hogeita hamar urteetan izango bagenu Euskal Telebista sendo bat, ikus-entzunezko sektore sendo bat, ohitura batzuk sortu dituen, gazte jendea engantxatu duena eta ohitu duena kalitatezko ikus-entzunezkoak kontsumitzen euskaraz, ziurrenik sorkuntzarako ere izango lituzke aukera gehiago edo behar gehiago. Hau, beraz, bada jarraipen bat, ikus-entzunezkoen jarraipen bat. Beste formatu bat da baina aurretik orain sortzaileak diren gazte horiek atxikimendu hori ez dutelako izan, nik uste dut, ondorioa bada ere hein handi batean gaur egun euskarazko edukiak ez sortzea.*

BL2 [06]: *Euskara ikasteko bideak hainbat dira, izan etxeko transmisioa, izan komunitate baten transmisioa edo batez ere eskola. Gertatzen dena da gero eta herritar gehiago direla sozializatuak soilik eskolan, eta orduan, behin eskola amaitzen denean salto egiten dugu lan mundura, lan mundua euskalduntzeko oso urrun gaude oraindik, eta beraz, horrek ez du laguntzen euskara sozializatzen eta euskara erabiltzen. Gero beste parte garrantzitsu bat denarekin lotuta da aisialdiarena. Aisialdiaren unean geroz eta pisu handiagoa daukate streaming plataformek, ez*

soilik streaming plataformek, batez ere ingurune digitalak dauka pisua. Ingurune digitalaren barruan streaming plataformak dira zati handi bat. Orduan eragina dauka, azkenean nik euskal hiztun bezala eta euskaraz bizi nahi duen pertsona bezala ezin dut euskaraz bizi plataforma horietan daukadan eskaintzan nahita ere ezin dudalako euskara aukeratu. Horrek eragiten du nahia aktibo bat daukan herritarrarengan, ba imajinatu nahi aktibo bat ez daukan herritarrarengan: eragina askoz handiagoa da. Erabilera eragiten du, lehen esan bezala, ezagutza handitzen da baina erabilera nolabait geratuta dago; erabiltzeko aukerak eman behar dira eta erabiltzeko plazetako bat dira streaming plataformak.

Egoera horri buelta emateko martxan jarri behar diren lan-lerroak identifikatzea ez da batere erraza. Lehenago aipatu dugun moduan, EITBren kasuan diskriminazio positiboa baliatzen hasi dira. Baina ikus-entzunezko sektorea hori baino askoz zabalagoa da: sortzaile plataformak ditugu, sare sozialak, bideo jokoak... BL2k ondorengo hau proposatzen du:

BL2 [07]: (...) Demagun Twitch bat, askoz jende gutxiagok erabiltzen du eta Twitch plataformaren izaera bera askoz ere zabalagoa, kolaboratiboagoa eta beste da. Behin erabakia hartuta errazagoa da gauzak aldatzea eta bertan kokatzea. Behin erabakia hartuta, hor ere egin behar delako konbentzimendu eta pedagogia lan bat. Plataforma txikiago batzuekin errazagoa izan ahal da bai esku hartze publikoa eta bai herritarren eskaera bideratzea. Zer egin beharko litzateke? Antzerako dispositibo bat zabaldu eta gero holakoetan eta hau ez daukat argi, baina nik sarri pentsatzen dut dauzkagula euskarazko eduki asko barreiatuta izan sare sozialetan, izan bideo joko plataformetan, ikus entzunezko plataformetan, podcastak... daukagu kriston euskarazko unibertsoa. Gutxi eta gutxien izanda ere handia dena kuantitatiboki, historian ez da inoiz egon gaur beste eduki euskaraz kontsumitzeko aukera. Gertatzen dena da oso barreiatuta dagoela eduki hori dena eta orduan sarri pentsatzen dut nola egiten dugun herritarrak jakin dezan non aurkituko duen zer edo zer dagoen zer plataformetan. Sartzen zara Netflixera eta zelan dakizu zer ikusi dezakezun euskaraz, izan jatorriz, bikoiztuta edo azpidatzen bitartez? Sartzen sara Twitchera eta berdin, zoaz Twitterera, zoaz Instagramera, TikTokera... non daude podcastak? Batzuk daude Spotifyen, beste batzuk Apple podcasten, beste batzuk Ivooxen... Orduan badaukagu behar bat euskarazko eduki hori, gune digitalean dagoen eduki hori, izan ikus-entzunezkoa edo audiozkoa, izan zuzenekoa edo diferitua, ze streamerrak eta horrelakoak ere badaude edo Youtuberrak, badaukagu behar bat marka bat edo sortzeko, ez dakit hainbeste den marka bat, baina bai zabaltzeko herri estrategia bat; hau da, jakiteko errekurtsio horiek non dauden. Ez dut uste solik direktorio bat, baina bai jendeak jakiteko errekurtsio horiek non dauden, non aurki ditzakegun eta nola egiten dugun ikusgarri jada euskaraz dagoen hori. Ze orain esan dudana, inoiz baino eduki gehiago egin ditugu, ya, bale, baina zelan jartzen zara bilatzen edukiak?

Lerro beretik, ondoren hau dio Kike Amonarrizek Eusko Legebiltzarrean aurkezturiko txostenean:

«Euskararen ikuspegitik, beraz, lehenatasun osokoa da ahalik eta ikus-entzunezko eduki gehien ekoiztu eta ikus-entzuleen eskuragarri jartzea. Hizkuntzaren garapenerako, gainera, garrantzi berebizikoa dute entretenimenduzko programek, berauen bidez euskara sustatu, erabilera indartu, erreferentzia linguistikoak hedatu, kultur edukiak gizarteratu eta hizkuntzaren funtzio ludikoa indartzen delako» (Amonarriz, 2018).

Datuek argi utzi digute Euskal Herrian euskararen ezagutza gero eta handiagoa izateak ez duela ekarri beraren erabilera. Beraz, euskararen osasunak hobera egin duen arren, funtsezko elementuan du ahulgune nagusizat: erabilera. Ikus-entzunezkoak ez dira hori konponduko duten sendagai bakarra, baina bai funtsezkoetako bat. Lanean zehar behin eta berriz errepikatu dugu euskarak ikastetxeetatik kaleetara jauzia egiteko duen beharra.

.....

7. Gauzak horrela, azken urteetan ohartu gara ikus-entzunezko sektore sendoa izatearen garrantziaz hizkuntzen normalizazio prozesurako, eta zehazki, egoera diglosikoan dauden euskara bezalako hizkuntzentzako. Jarraian, focus groupean eta elkarrizketetan parte hartu dutenek etorkizuna nola ikusten duten eta euren ikuspuntutik jarraitu beharreko pausuak zeintzuk diren azalduko dituzte:

BA9 [08]: *Nik uste dut eskatu behar dela egotea adi aldaketei, momenturo aldatzen ari da eta hemendik aurrera seguru asko azkarrago aldatuko direla gauzak. Garaietara egokitzea behar dugu, zinearen ekosistema aldatu da, zinea ikusteko modua asko aldatu da eta horretara egokitu behar gara. Serieak euskaraz ekoiztea behar-beharrezkoa da gurean argi eta garbi, ez daukat inongo dudarik. Jarraituz pelikulekin, hori uste dut gainera ez dela zerbait miña egiten duela ze jendea dago pelikulak egiten, proposamen oso desberdinak, generazio arteko diferentzia askokin eta hori oso inportantea da. Nik uste dut badaukagula euskaldunok zine ona egiten dugunaren fama edo eta bide horretatik jarraitu behar da.*

BJ14 [07]: *Nik uste dut ere zerbaitetan lehenetsuna eman behar bada serieetan dela. Ez dakit nola esan, ni ez naiz pertsonalki oso serie zalea, baina gero eta gehiago ikusten ditut nire neska laguna horretara engatxatuta dagoelako, eta azkenean egiten duzu, bilatzen duzu pelikuletan bilatzen zenuena edo saiatzeko zara... hainbeste aukera dagoenez... Eta gero nik uste dut marrazki bizidunena ere inportantea dela ze ni naiz belaunaldi batetakoa Asterix ikusten genuela euskaraz eta niretzako Asterix nire edadean oso zera zen eta orain entzun dut, adibidez, hurrengo urtean Netflix-ek egingo duela Asterix serie bat, marrazki bizidunak egongo direla ziur aski oso ondo eta nire semeak direla oso Asterix zaleak ba frantsesez ikusiko dute, imajinatzen dut. Eta horren eragina ez dugu orain neurtuko, horren eragina belaunaldi bat barru neurtuko dugu eta hori gauza handia da. Orduan, laburtuz, esango nuke pentsatu behar dela argi luzeekin, ez taktikoki. Uste dut telebistaren kontuarekin batzuetan, ikus-entzunezko legearekin eta, alderdi batzuek horrela jokatzeko dutela biharamuneko etekinak bilatuz. Lehen esaten genuenarekin ere, telebista tresna politiko gisa erabiltzen dute eta politikoki ere gauzak desberdin ikusi daitezke, ikuspegi luze batekin edo biharamuneko etekinak edukitzeko, hurrengo hauteskundeetan etekinak edukitzeko. Nik uste dut hori aldatu beharko litzatekeela; ez dakit nola ohartarazi edo ulertarazi dela izan edo ez izan.*

BM3 [07]: *Estrategia bat behar da eta estrategia digitala herri moduan euskaratik pentsatua eta euskaratik sortzen dena eta euskarazko edukiak kontsumituko dituen audientzia aintzat hartzen duena. Eta ez da bakarrik euskaraz bizi dena baizik eta gaztelaniaz bizi dena ere; hau da, euskarazko produktuak sortu behar dira gaztelaniazko komunitate horrek ere kontsumitu ditzan. Erabili nahi duzuna, bueno, askoz hobeto etorriko lirateke azpitoluak, belarria ere egiteko euskarara. Baina iruditzen zait oinarrian borondate falta dagoela eta nik uste dut hori eskatu behar zaiela erakunde publikoei. Legea hor dago, Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege espainola. Horrek mugatu egiten gaitu nolabait baina etxean guk asko dugu hobetzeko. Orain ari naitaizu hizketan telebistari buruz, Euskal Telebista guk kudeatzen dugu, guk sortu genuen, guk garatu dezakegu eta guk hobetu dezakegu bere funtzionamendua. 1982ko legeak agintzen du ETBk euskarekiko lan egin behar duela. Streaming plataformetara begira baditugu mugak, baina streaming plataformen sektorea ez da sektore osoa; Euskal Telebistak badu aipatu duzun Primeran plataforma berri hori, badu Interneteko ataria, badu gaitasuna mundu digitalera askoz hobeto egokitzeke. Erakunde publikoek, bestalde, diru gehiago jarri beharko lukete modu independentean euskarazko ikus-entzunezko produktuak sortzen ari diren pertsonak laguntzeko. Hor badago problema bat, ETB da sektorearen motorra produktora askok lan egiten dutelako ETBrentzat, baina, zer gertatuko litzateke dependentzia izugarria duten produktoren kasuan egunen batean horrek huts egiten badu? ETBrekiko gehiegizko dependentzia edukitzea ere ez da ona. Orduan bada ona motorra izatea eta izan behar du, baina administrazio publikotik diru gehiago etorri beharko litzateke modu independentean lanean ari diren profesionalak gehiago laguntzeko. ETB ez da dena, eta modu independentean lanean ari diren pertsonak oso modu prekarioan dabilta lanean, gehienak gazteak gainera. Alde guztietatik dago zer hobetu.*

BU15 [09]: *Iruditzen zait sekulako erronka daukagula transformazio digitalarekin eta hor lan asko egin behar dugula (...). Telebista publiko batek bai izan behar du oso argi bere funtzioa gizarteari laguntzea dela eta uste dut gainera gizartea momentu honetan pandemia dela, gerra dela, inflazioa dela... gure inguruan penuriak baino ez daude eta uste dut momentu honetan gizarteak behar duela inoiz baino*

laguntza gehiago alde guztietatik. Hor ETBk eta telebista publikoek, bai Televisión Españolak eta bai Fortako kate autonomikoek, badaukate lan bat egin beharra. Eta nik adibidez, bi adibide emateagatik, Abiapuntua. Programa horren helburua zan laguntzea ikuslegoari konturatu gabe dauzkan aurreiritziak identifikatzen. Nik uste dut bete zuela bere betebeharra eta de hecho Europak sari bat eman zigunean oraindik argiago ikusi nuen bere funtzioa bete zuela. Uste dut eduki horrek laguntzen duela gizarte hobe bat egiten, ze hori ikusi duten gazte eta nerabeei seguraski askori bost axola zaie baina beste askok esango dute “ba hau egiten ari naiz eta ez nuke egin beharko”. Orduan niretzat horrek bai laguntzen du gizarte hobeago bat egiten. Edo Fitorena. Fitoren kontzertua eman genuenean zuzenean, niri Fito pertsonalki ez zait gustatzen baina kontzertua etxetik ikusi nuen eta emozionatu egin nintzen argi zegoelako pandemiak gure moralara lur jota utzi duen puntu baten bat-batean hainbeste jende egotea bat eginda, musika entzuten eta Fitoren abestiak abesten eta denak pozik eta zoriontsu, horrek ere laguntzen duela puntualki eta era igual superfizialago batean baina bai laguntzen dio gizarteari gogoratzen “hemendik ateratzen garenean izan gaitzke zoriontsu”. Orduan, horrela pentsatzen jarraitzen baldin badugu eta jarraitzen badugu fokoa jartzen euskararen sustapenean eta gizarteari laguntzen, uste dut telebista publikoen etorkizuna edo behintzat ETBrena oso etorkizun polita dela eta ona. Egin behar duguna da ez ahaztu esparru digitalean oso flojo gaudela ze ETB oso flojo dago esparru digitalean eta hor pixka bat azeleragailua sakatu behar dugu eta gauzak hobeto egiten ikasi behar dugu. Baina orokorrean uste dut ETB posizio onean dagoela eta hemendik beti bezala hobetzen eta gauzak hobeto egiten jarraitu behar dugula.

Kapitulua ixteko ondo legoke gogoratzea etengabe aldatzen ari den sektorea dela ikus-entzunezkoena. Hamar urte atzera besterik ez dugu egin behar hortaz ohartzeko. 2012an, ez geneukan streaming plataformarik, apenas kontsumitzen genituen ikus-entzunezkoak Internet bitartez, zinema aretoak bete egiten ziren, ia ez geneukan podcasten berririk, albisteak Internet bitartez jasotzen genituen arren telebista, irratia eta egunkaria ziren informazio hedabide nagusiak... Beraz, batek daki nola egongo den sektorea hemendik hamar, hogeitahamar urte barru. Horregatik, adi egon behar gara aldaketei eta etengabe moldatu behar gara. Euskarak sarean aukera asko izan ditzake eta horretarako lan asko egitea falta da. EITBk 2023an martxan jarriko duen *Primeran* plataforma bada aurrerapen garrantzitsua eta baita aukera handia. Aukera euskarazko fikzioa indartzeko, sektorearen indartzeko eta finkatzeko, gazteengana iristeko eta noski, euskara zabaltzeko. Inbertsio publikoaz gain pribatuaren beharra egongo da hori aurrera ateratzeko. Eta hori lortzeko ezinbestekoa da legeriaren aldetik pausu handia ematea, instituzio, enpresa eta erakunde ezberdinen arteko elkarlana sustatzea eta ikerketa bultzatzea. Hori garatzen asko lagunduko luke, beste hainbat autonomia-erkidegoetan gertatu den moduan, Euskal Ikus-entzunezko Kontseiluak.

5. ONDORIO BIDE'TIK

5.1 Konklusioak eta proposamenak

Atal honetan, lan osoan zehar landu ditugun ideia nagusiak gogoratu ditugu eta zenbait ondorio eta proposamen plazaratuko ditugu. Eran berean, lanaren hasieran planteatutako hipotesiei berriro helduko diegu eta horiek zuzenak diren edo ez frogatuko dugu. Hori aurrera ateratzeko puntuka joango gara.

1. Ikus-entzunezkoen kontsumoak izugarri egin du gora streaming plataformak agertu zirenetik. Kontsumo ohiturak erabat aldatu dira, eta Internet bitarteko kontsumoa gailendu da euskari tradizionalako edukien galeran. Gazteen artean somatu da aldaketa hau gehien bat, baina adin tarte gehienetan joera bera da.
2. Ikus-entzunezkoak inoiz baino gehiago kontsumitzen diren testuinguru horretan euskararen egoera kezkarria da. Euskarazko produkzioek azken hamabost urteetan dezente egin duten arren gora, ez dira nahikoa egungo kontsumo eskaerentzat. Euskarazko produkzio gehiago sustatzeaz gain azpidatzi eta bikoizketen sektorea asko indartu behar da. Horretarako dirulaguntzak areagotzeaz gain estrategia sendo bat garatu behar da, erabaki politiko bat hartu behar da. Euskarazko edukien estrategia digitala ere sortzea premiazkoa da. Munduko ikus-entzunezko guztiak klik batean eskuragarri ditugun garaian euskarazko edukien ikusgarritasun falta arduratzekoa da.
3. Aurreko puntuari eutsiz, azken urteetan sortu diren euskarazko hainbat filmek arrakasta aipagarria lortu dute Euskal Herriko mugetatik kanpo. Duela 15 urte baino gehiago ekoizten diren arren ez dira nahikoa. Ezinezkoa da euskarazko eskaintzarekin zine aretoetara joateko ohitura sortzea. Era berean, zine aretoek birmoldaketa sakonaren beharra dute. Covid 19aren pandemiak areago larriagotu zuen zinema aretoen egoera kritikoa: jende askok zinea etxean kontsumitzeko ohitura hartu zuen behin betiko. Euskarazko serieen falta larria da. Beharrezkoa da etengabeko ekoizte sistema martxan jartzea eta kontinuidade bat egotea. Horretan, EITBk funtsezko papera jokatu behar du. Nazioarteko arrakasta duten serieak bikoiztea ere beharrezkoa da.
4. ETBk 40 urte bete dituen urtean hainbat puntu nabarmendu ditzakegu. Lehenik, sortze legeak dioen moduan euskarazko ikus-entzunezkoen motorra eta euskararen normalizaziorako tresna izan behar dela (5/1982 Legea). Azken urteetan gaztelaniazko edukiek lehentasun nabarmena izan dute eta hori argi identifikatu dute sektoreko profesional, aditu eta herri mugimenduek. Zuzendaritza berriak horri buelta eman nahi diola dirudi eta horretarako hainbat proiektu martxan jarri ditu. Epe laburrean ikusiko dugu ea hori betetzen den. Bigarrenik, baliabideetan eta programazioan euskarazko kateei lehentasuna emateaz gain, ETBko gaztelarazko kanaletan euskararen presentzia areagotzea funtsezkoa da erdaldunak euskarara gerturatzeko eta euskarari prestigio soziala emateko. Hirugarrenik, ETBk eta EITBk orokorrean eremu digitalean duen ahultasuna gainditu behar du. Kontsumo ohitura eta joera berriei eutsi behar die eta moldatzen jakin behar du. 2023an martxan jarriko den *Primeran* plataforma bada horretarako lehen pausu bat.
5. Euskararen ezagutza mailak gora egin du azken urteetan, baina erabilerak, ordea, ez. Euskara ikastetxeetatik kaleetara eramatea ezinbestekoa da. Ikus-entzunezkoak gure sozializazioaren gero eta parte garrantzitsuagoa diren garaian ezinbestekoa da areagotzea euskarazko ikus-entzunezkoak hizkuntza beraren osasunerako.
6. Legeei dagokienean, beharrezkoa da aktore globalen jarduera erregulatzea Estatu eta Euskal Herri mailan. Hizkuntza eskakizunak ezartzeko modu bakarra da, bai streaming plataformei

eta baita telebista, zinema eta bestelako aktoreei. Horretarako, Estatu mailako lege sendoez gain (harago doan Ikus-entzunezko Lege Orokorra) beharrezkoa da Euskal Ikus-entzunezkoen eta Zinemaren Lege propioa sortzea.

7. Euskal Ikus-entzunezko Kontseilua sortzearen beharra. Europako Kontseiluak gomendatzen du sortzea eta gure inguruan badira hainbat: nazioartean Belgika edo Frantzia aipa ditzakegu eta Estatuan Katalunia, Andaluzia edo Valentzia. Ezinbesteko tresna da ikus-entzunezko legeak betearazteko eta hizkuntza eskubideak zaintzeko. Gardentasunaren erakusgarri ere bada.
8. Etengabe aldatzen ari den sektorea da ikus-entzunezkoena. Streaming plataformak bezalako aktore berriak agertzen ari dira eta horien arteko botere harremana (telebista, plataformak, zinea...) aldatzen ari da. Horrelako aldaketek neurri, lege, proiektu eta estrategia berriak eskatzen dituzte, batez ere gurea bezalako hizkuntza eta sektore batean. Horregatik, ezinbestekoa da ikerketa sustatzea.

Puntu honetara iritsirik, planteatu genituen hipotesiak gogoratu eta aztertuko ditugu:

1. Euskarazko ikus-entzunezko egungo eskaintza eta produkzio urria urteetan jarraitu den estrategia eta politika desegokien ondorioa da.
2. Streaming plataformen agerpenak lagundu baino gehiago zaildu egin du euskarazko ikus-entzunezkoen etorkizuna: eskaintza hain zabalaren aurrean zaila da gure produkzioak nabarmentzea. Aurrekontuak alderatzen baditugu, liga desberdinetan jokatzeko ari gara. Aldi berean, estrategia egokiak aurrera ateratzen badira, aukera izan daiteke euskara eta Euskal Herria munduan kokatzeko.
3. Ikus-entzunezkoetan euskarak duen presentzia urriak zuzenean eragiten duela euskara beraren erabileran eta sozializazioan.

Lehenengo puntuari eutsiz, lanean parte hartu duten adituen iritzia kontuan hartuta, horrela dela konfirmatu dezakegu. Estrategia falta nabaria izan da azken urteetan eta ez dugu jakin sektoreak bizi izan dituen aldaketetara moldatzen. Diru-laguntza, estrategia eta proiektu sendoen faltak euskara bigarren mailan kokatu dute.

Bigarrenari dagokionez, gauza bera esan dezakegu. Egun, munduan sortzen diren ikus-entzunezko guztiak ditugu gure eskura Interneti esker. Ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitu nahi dituen batentzat zaila da egin ahal izatea (gutxi daude eta aurkitzea zaila), beraz, ez daukanarentzat euskararekiko lehentasunik ia ezinezkoa da. Euskal komunitatea txikia da eta sortzen diren proiektuak kalitatezkoak izan arren ez dute zerikusirik aurrekontuari dagokionez beste produktu gehienekin. Hala ere, mehatxua den moduan aukera ere bada. Gure lanean zinegile batek aipatu duen moduan izugarritzko erraminta izan daiteke jende askorengana iristeko. Kalitatezko edukiak eginez gero euskara, Euskal Herria eta euskaldunok munduan kokatu gaitezke. Beraz, aukera ere bada. Honetaz hauxe dio Ramon Zallok:

«Aparentemente te permite salir de tu espacio para que seas visto en muchas más partes del mundo, y eso es así, desde el punto de vista técnico; pero, desde el punto de vista real, se imponen las grandes lenguas porque tienen más capacidad de difusión utilizando esas mismas redes. Es decir, a ti te dejan asomar la cabeza, pero ellos asoman el cuerpo entero. Han agrandado el espacio comunicativo los idiomas grandes, a escala planetaria. Para comunidades nacionales como la nuestra, entre Iparralde y Hegoalde, esas comunicaciones que son abiertas a escala europea, te permiten tener una comunicación compartida» (Iriondo, 2021).

Azkenengo hipotesiarekin ere bat gatoz. Ondorioetan aipatu dugun moduan, ikus-entzunezkoek gero eta presentzia handiagoa dute gure egunerokoa eta batez ere gure sozializazioan. Euskararen presentzia ikus-entzunezkoetan hutsaren hurrena da, orduan, alde horretatik, gaztelaniak, ingelesak eta beste zenbait hizkuntzek indar handia egiten dute euskararen erabileraren kontra. Hori argi uzten dute euskararen ezagutza eta erabilera datuek. Ezagutza handitu da, baina erabilera, ordea, ez.

5.2 Etorkizunera begira

Master Amaierako Lan honek euskarazko ikus-entzunezkoen sektorearen egoeraren lehen ikuspegi bat eskaini digu. Kontuan izan behar da, MALa garatzeko denbora muga dela medio, lan hau behin behinekoa dela eta arlo askotan sakontzeko aukera eta ikerketa beste askotara zabaltzeko aukera geratu dela.

Lan honetan aztertu dira euskarazko ikus-entzunezkoen merkatuak dituen beharrak ikuspegi kualitatiboari lehentasuna emanez. Mundu horretako erabiltzaile eta profesionalek zer ikusten duten, zer sentitzen duten eta zer behar duten jaso da. Metodologia honek, datuez harago, kezkek, nahiak, eta beharrak zeintzuk diren jakitea ahalbidetu digu. Laburbilduz, bitartekaritza lana egin da sektoreko agente desberdinen artean.

Bukatzeko, Miren Azkarateri eskatu diogu egindako ikerketa lana irakurri eta aztertzeko eta lanean ateratako ondorioen artean ea zerbait azpimarragarria den adierazteko. Miren Azkarate Euskal Filologian katedraduna da (1988) eta, besteak beste, lehenengo emakume euskaltzain osoa (1992), EITBko Hizkuntza Aholkularia (2000), Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailburu (2001-2009) eta bozeramailea (2004-2009) eta EHUko Euskara Institutuko zuzendaria (2019) da. Jarraian, esan digunaren laburpena:



Miren Azkarate. Iturria: El Diario Vasco

Bat nator bete-betean azpitoluen eta bikoizketen beharrari buruzko gogoetan.

"Euskarazko bikoizketa ez da sinesgarria, naturala", hori entzun diet behin baino gehiagotan alabei (une honetan 34 eta 37 urte dituztenei); horrek eragin die atzera euskarara bikoiztutako filmak ikusteko. Gure artean ere askotan aipatu dugu nola lor daitekeen Goenkale batek zuen euskara eredu natural eta gozoa. Neure iritzia da, euskara baturako ahoskera zurrun-zurrun aplikatzeak ez diola mesederik egiten serie eta filmen bikoizketari. Hain zuzen ere, bikoizketarako ahoskera "naturala" lortzea da, nik uste, oraingo erronkarik handienetakoa.

Bide beretik, Kike Amonarrizen, Koldo Zuazoren eta Asier Larrinagaren lanek pistak eman ditzaketela adierazi digu. Hauxe dio Kike Amonarrizek bikoizketaren inguruan:

«Etorkizunera begira, hemen bikoiztaile talde potente bat beharrezkoa da. Hori galtzear dago, eta berreraikitzea ikaragarri kosta liteke. Are gehiago euskara bezalako hizkuntza minorizatu batean. Bikoizketarena sozializatzea ikaragarri kostatzen da, arrotz egiten da zenbait kasutan, eta ahotsen aniztasuna mugatua da. Talde profesional on bat beharrezkoa da, eta batez ere produktua behar dira. Azken urte hauetan oso produktu bikoiztu berri gutxi ikusi dugu. Bide hau azpidatzen bidearen batera eta modu osagarrian eraman behar da aurrera» (Amonarriz, 2019)

Jarraian, hauxe adierazi digu Miren Azkaratek:

Bikoizketa eta azpidatziena funtsezko sektorea da, zalantzarik gabe. Baina EITBk ez du interes handiegirik izan azken urteetan, sektorearen iritzia zein zen jakin arren.

Sektore sendoa ez izateak bikoizketan trebatutako jendearen falta izatea eragiten du.

Ondoren, laneko hipotesietako batetik ondorioztatu dugunaren inguruan bere desadostasuna erakutsi digu. Hauxe da hipotesia:

3. hipotesia: *Ikus-entzunezkoetan euskarak duen presentzia urriak zuzenean eragiten duela euskara beraren erabileran eta sozIALIZAZIOAN.*

Eta hauxe Miren Azkarateren gogoeta:

Euskarazko produktuak plataformetan egoteak zerbait lagundu dezake euskararen erabilerak gora egiten, baina ez da inola ere erabakigarria. Ahozko erabileran dago gakoa.

Zalantza handia dut. Ikus-entzunezkoak kontsumitzea, neurri batean, pasiboa da (besterik da txateatzea, tik-tok...). Eta erabilera aktiboa da.

Lerro beretik, euskararen kale erabilerak 2006 eta 2021 urteen bitartean puntu bat baino gehiago behera egin izana Interneten eta streaming plataformen agerpenarekin eta ikus-entzunezkoen testuinguru berriarekin erlazionatu dugu lanean. Hauxe esan digu Azkaratek horren inguruan:

Hor gaztelaniaz jarduteak ez zuen, agian, lagunduko. Baina ez dago harreman zuzenik. Haurrek gelatik kanpo euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea, hor dago gakoa. Eta argi dago haurrek kontsumitzen dituztela marrazki bizidunak euskaraz (badituzte, behintzat, eskura), baina horrek ez dakar erabilera.

Pantailak Euskarazek eskatzen duen neurrietako baten inguruan ere hitz egin digu. Hauxe da neurria: *Streaming plataforma nagusietan euskararen presentzia bermatu eta areagotzea.* Eta hauxe Azkaratek esan diguna:

Baina askoz askoz zailagoa da zerbait lortzea. Izatekotan, agian, azpidatzien bidea izan daiteke errazagoa. Baina merkatuaren legea nagusi den plataformetan indar benetan xumea du milioi bat hiztunera iristen ez den hizkuntzak.

Aurrera begira uste dut ezinbestekoa dela neurri hauek sektoreko jendearekin kontrastatzea, bereziki ikus-entzunezkoen kudeaketan ardurak dituztenekin, EITBko arduradunekin, Kultura Sailarekin... Hau da mugak non dauden detektatzea ere oso garrantzitsua da.

Bukatzeko, erabat ados agertu da lanean egin dugun ondorengo analisi honekin:

Euskarri tradizioaletarako edukiak ekoizten jarraitu nahi badugu (telebista aparailuan ikusteko, zinema aretoan ikusteko, irrati aparailuan entzuteko...) ezin dugu duela 40 urteko ikuspuntu eta mentalitatearekin egin, estrategia berriak garatu behar dira. Bestalde, eduki horien biziraupena eta zabalkundea bermatu nahi badugu euskarri, plataforma eta kontsumo ohitura berrietara ere moldatu beharko ditugu. Hori da gazteengana iristeko bide bakarra.

Dagoeneko heldu gara bukaerara. Lan honen bitartez ikuspegi desberdinak bildu nahi izan ditut eta horiei forma eman guztientzat baliagarria izan daitekeelakoan. Izan ere, lanaren hasieran aipatu dudan moduan, erronka hau guztiona da eta guztion ekarpenik gabe nekez aurkituko diogu erantzuna. Agerikoa denez, euskarazko ikus-entzunezkoena gai mamitsua da, gai zaila. Agian batzuetan pentsatu edo espero dugun baino zailagoa. Nik, lana egin aurretik, sektorearen eta gaiaren ideia bat nuen, orain, dudarik gabe, beste bat daukat. Lanaren egile gisa denbora behar dut gai honetan sakontzeko. Segituko dugu lanean.

ERREFERENTZIAK

Bibliografia

Alvira, Francisco (2011). *Cuadernos Metodológicos: La encuesta, una perspectiva general metodológica*. Madril: CIS.

Freidin, Betina (2016). “Revisando el uso de grupos focalizados en la investigación social”. *Revista Latinoamericana de Metodología de las Ciencias Sociales*, 6(1).

Gutiérrez, Jesús (2008). *Cuadernos Metodológicos: Dinámica del grupo de discusión*. Madril: CIS.

Martinez, Josu (2022). *Irudi eta euskaraz: Gure hizkuntzaren zinema. Gure zinemaren hizkuntza*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Romeo, Marina (1998). “El focus group: modelo de estudio del comportamiento de la audiencia”. *Comunicación & cultura*, 4, 39-46.

Valles, Miguel S. (2014). *Cuadernos Metodológicos: Entrevistas cualitativas*. Madril: CIS.

Txostenak eta azterlanak

AIMC (2021). *23 Navegantes en la red 2021*, eskuragarri hemen: <https://www.aimc.es/otros-estudios-trabajos/navegantes-la-red/>

AIMC (2022). *Marco General de los Medios en España*, eskuragarri hemen: <https://www.aimc.es/a1mc-c0nt3nt/uploads/2022/01/marco2022.pdf>

Barlovento Comunicación (2021). *2021 Análisis de la industria televisiva audiovisual*, eskuragarri hemen: <https://www.barloventocomunicacion.es/wp-content/uploads/2022/01/2021-ANALISIS-TELEVISIVO-BARLOVENTO-COMUNICACION-1.pdf>

Euskal Hedabideen Behategia (2022). *Streaming plataformak Hego Euskal Herrian, audientzia azterketa*, eskuragarri hemen: <https://behategia.eus/eu/streaming-plataformak-hego-euskal-herrian-audientzia-azterketa/>

Euskal Irrati Telebista (2022). *EITB 2030 Estrategia: Batzen gaituen etorkizuna*. Bilbo: EITB. Eskuragarri hemen: <https://www.eitb.eus/multimedia/corporativo/documentos/EITB ESTRATEGIA 2030 EUS.pdf>

Eusko Jaurlaritza (2019). *Kultura Plana 2019/2022*. Donostia: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/50_plandep_xileg/eu_def/kultura%20plana%202019-2022.pdf

Eusko Jaurlaritza (2021). *Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024*. Donostia: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskara_agenda_estrategikoa/eu_def/adjuntos/EuskararenAgendaEstrategikoa_2021-2024_EUS_online.pdf

Ikus-entzunezko Lege Orokorra 13/2022 (2022), eskuragarri hemen:
<https://www.boe.es/eli/es/1/2022/07/07/13/dof/spa/pdf>

Iriondo, Eneko (2021). *Komunikabideen panorama Euskal Herrian*. Gradu Amaierako Lana. Bilbo: UPV/EHU.

Kike Amonarriz (2018). *EiTB-ren etorkizunaz soziolinguistikaren talaiatik*, eskuragarri hemen:
https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/b00303a6-173b-4852-ab43-dc4036b8276c

Larrinaga, Asier (2019). *Euskal Telebistaren sorrera, garapena eta funtzioa euskararen normalizazioaren testuinguruan*. Doktore tesia. Bilbo: UPV/EHU.

López-Roldán, Pedro eta Fachelli, Sandra (2015). *Metodología de la investigación social cuantitativa*. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona. Eskuragarri hemen:
https://ddd.uab.cat/pub/caplli/2016/163564/metinvsocua_a2016_cap1-2.pdf

NOR Ikerketa Taldea (2020). “Ikus-entzunezko gomendagarriak gaika eta euskarrika”. Ikusiker Unibertsitatea Panelaren 7. Txostena. 2020ko urtarrila. Aplikata ikerketa proiektua (US17/40). UPV/EHU. <http://ikusiker.eus>

NOR Ikerketa Taldea (2021). “2021-2022 Panela: ikus-entzunezko kontsumoa”. Ikusiker Unibertsitatea Panelaren 26. Txostena. 2021eko azaroa. Aplikata ikerketa proiektua (US17/40). UPV/EHU. <http://ikusiker.eus>

NOR Ikerketa Taldea (2021). “Serieen kontsumoa”. Ikusiker Unibertsitatea Panelaren 18. Txostena. 2021eko otsaila. Aplikata ikerketa proiektua (US17/40). UPV/EHU. <http://ikusiker.eus>

NOR Ikerketa Taldea (2022). “2021-2022 Panela: streaming plataformak”. Ikusiker Unibertsitatea Panelaren 31. Txostena. 2022ko apirila. Aplikata ikerketa proiektua (US17/40). UPV/EHU. <http://ikusiker.eus>

Pantailak Euskaraz (2021). *Euskarazko ikus-entzunezkoen aldeko manifestua*, eskuragarri hemen:
<https://www.pantailakeuskaraz.eus/euskarazko-ikus-entzunezkoen-aldeko-manifestua/>

Soziolinguistika Klusterra (2021). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa*, eskuragarri hemen:
https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2022/05/hekn21_emaizen_laburpen_txostena.pdf

Statista (2022). *Número de suscriptores de las plataformas de vídeo en streaming en España en 2021 por plataforma*, eskuragarri hemen: <https://es.statista.com/estadisticas/1043679/numero-de-abonados-de-plataformas-de-video-en-streaming-espana/>

Tejero, Jesús Manuel (2021). *Técnicas de investigación cualitativa en los ámbitos sanitario y sociosanitario*. Cuenca: Universidad de Castilla-La Mancha. Eskuragarri hemen:
<https://ruidera.uclm.es/xmlui/bitstream/handle/10578/28529/04%20TECNICAS-INVESTIGACION-WEB-4.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Webgrafia

Berria (2021). *Valentziako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 27 langile izango ditu*, eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/albisteak/207533/valentziako-ikus-entzunezkoen-kontseiluak-27-langile-izango-ditu.htm> [Kontsulta eguna: 2022/08/31].

Diez Minutos (2022). *Como "Intimidación" se ha convertido en la serie más vista de Netflix*, eskuragarri hemen: <https://www.diezminutos.es/teleprograma/series-tv/a40387075/intimidacion-serie-netflix-mas-vista/>

Pantailak Euskaraz (2022). *Pantailak Euskarazek maiatzaren 26an Espainiako Kongresuan onartu zen Estatuko Ikus-entzunezko Lege Orokorren balorazioa egin du*, eskuragarri hemen: <https://www.pantailakeuskaraz.eus/2022/05/30/pantailak-euskarazek-maiatzaren-26an-espainiako-kongresuan-onartu-zen-estatuko-ikus-entzunezko-lege-orokorraren-balorazioa-egin-du/>

Nexo (2019). *El proceso de la encuesta online*, eskuragarri hemen: <https://www.webnexo.es/tag/metodologia-online/> [Kontsulta eguna: 2022/08/31].

Zuzeu (2019). *Kike Amonarriz: "Iruditzen zait post-euskalki fasean gaudela"* [web elkarrizketa], eskuragarri hemen: <https://zuzeu.eus/euskal-herria/kike-amonarriz-iruditzen-zait-post-euskalki-fasean-gaudela/> [Kontsulta eguna: 2022/09/05].

Kontsultatutako beste iturri batzuk

AIMC (2021). *Marco General de los Medios en España*, eskuragarri hemen: <https://www.aimc.es/a1mc-c0nt3nt/uploads/2021/02/marco2021.pdf>

AIMC (2020). *Marco General de los Medios en España*, eskuragarri hemen: <https://www.aimc.es/a1mc-c0nt3nt/uploads/2020/01/marco2020.pdf>

Argia (2015). *Asier Altuna: "Jolasteko aukera izan dut filmean, narrazio klasikoa eta surrealismoa ezkonduz"* [web elkarrizketa], eskuragarri hemen: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2475/asier-altuna> [Kontsulta eguna: 2022/06/29].

Azpeitia, Itziar (2019). *Beyond negativity on television entertainment: positive perspectives and research on its contribution to public television. Additional analysis: the Basque night-show magazine Sorginen Laratza at Euskal Telebista*. Doktore tesia. Bilbo: UPV/EHU.

Azpitutuluak.eus (2022). *Honi buruz*, eskuragarri hemen: <https://azpitutuluak.eus/honi-buruz> [Kontsulta eguna: 2022/07/01].

Barlovento Comunicación (2020). *Consumo de Internet vs. Televisión*, eskuragarri hemen: <https://www.barloventocomunicacion.es/wp-content/uploads/2021/01/Informe-Barlovento-consumo-Internet-Comscore-y-Televisión-Diciembre-2020.pdf>

Barlovento Comunicación (2022). *Internet, informe consumo*, eskuragarri hemen: https://www.barloventocomunicacion.es/wp-content/uploads/2022/04/Informe-audiencia-INTERNET-Marzo-2022_Barlovento.pdf

Berria Telebista (2019/09/24). *Asier Altuna eta Telmo Esnal Zurriolako Butakan*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=dJ5AxwHAXPg> [Kontsulta eguna: 2022/07/03].

- Buruxkak (2022). *Josu Martinez: "Gure zinemaren pelikula pentsa genezakeena baino dibertigarriagoa, paradoxikoagoa, eta tarteka tristeagoa da"* [web elkarrizketa], eskuragarri hemen: <http://www.buruxkak.eus/berria/josu-martinez-ldquogure-zinemaren-pelikula-pentsa-genezakeena-baino-dibertigarriagoa-paradoxikoagoa-eta-tarteka-tristeagoa-dardquo/225>
- DAMA (2022/01/20). *DAMA Habla: Asier Altuna*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=GeSu2hLI-fg> [Kontsulta eguna: 2022/07/03].
- Durangoko Azoka (2015/11/13). *KULTURRIZKETAK: Asier Altuna eta Aitor Arregi*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=seETfxumDco> [Kontsulta eguna: 2022/07/03].
- EITB (2014/03/20). *'Aupa Etxebeste', marka guztiak hautsi zituen euskal filma*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=z-of1aWKGpK> [Kontsulta eguna: 2022/07/03].
- EITB (2019/02/05). *Kike Amonarri: "EiTB tresna ezinbestekoa dugu hizkuntzaren normalizazioak aurrera egingo badu"*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ahoz-aho/bideoak/osoa/6179840/bideoa-kike-amonarri-eitbren-etorkizunaz-eta-euskarazko-edukien-beharraz/> [Kontsulta eguna: 2022/09/05].
- EITB (2022). *Euskal Telebista cierra 2021 con la mejor audiencia de los últimos 10 años*, eskuragarri hemen: <https://www.eitb.eus/es/grupo-eitb/detalle/8557605/euskal-telebista-cierra-2021-con-mejor-audiencia-de-ultimos-10-anos-eskerrik-asko/> [Kontsulta eguna: 2022/07/12].
- Eta kitto! (2022/4/29). *Josu Martinez: "Uste duguna baino gauza gehiago egiten saiatu dira irudiz eta euskaraz XX. mendean zehar"* [web elkarrizketa], eskuragarri hemen: <https://etakitto.eus/berriak/kultura/josu-martinez-uste-duguna-baino-gauza-gehiago-egiten-saiatu-dira-irudiz-eta-euskaraz-xx-mendean-zehar.html> [Kontsulta eguna: 2022/07/02].
- Euskal Hedabideen Behategia (2020). *Euskal Hedabideen Urtekaria 2020*, eskuragarri hemen: <https://behategia.eus/wp-content/uploads/2021/07/urtekaria2020-web.pdf>
- Euskal Hedabideen Behategia (2021). *Euskal Hedabideen Urtekaria 2021*, eskuragarri hemen: https://behategia.eus/wp-content/uploads/2022/03/urtekaria-2021-web_altua.pdf
- Euskal Hedabideen Behategia (2022/05/27). *Behategiaren agerraldia Legebiltzarreko Kultura eta Hizkuntza Batzardean*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=4R-JBzIqN3A> [Kontsulta eguna: 2022/07/11].
- Goiena (2015). *Asier Altuna: "Uste dut zine ona egiten ari garela"* [web elkarrizketa], eskuragarri hemen: <https://goiena.eus/debagoiena/1437664510741-asier-altuna-uste-dut-zine-ona-egiten-ari-garela> [Kontsulta eguna: 2022/06/29].
- Hala bedi (2018). *Josu Amezaga (EHU): «ETB osoa berrasmatu behar da»* [Podcast], eskuragarri hemen: <https://halabedi.eus/es/josu-amezaga-chu-etb-osoa-berrasmatu-behar-da/>
- IAB (2021). *Estudio anual de video online 2021*, eskuragarri hemen: <https://iabspain.es/estudio/estudio-anual-de-video-online-2021/>
- Manias, Miren (2015). *Euskarazko zinemaren produkzioa eta finantziakzioa (2005-2012): hamaika fikziozko film luzeren azterketa ekonomikoa*. Doktore tesia. Bilbo: UPV/EHU.
- Manias, Miren (2020). *"Arazoa ez da soilik aurrekontua"*. *Berria.eus* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1879/027/003/2020-05-29/arazoa-ez-da-soilik-aurrekontua.htm> [Kontsulta eguna: 2022/07/01].

- Manias, Miren (2020). “Hizkuntza dago jokoan”. *Berria.eus* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1876/027/002/2020-04-29/hizkuntza-dago-jokoan.htm> [Kontsulta eguna: 2022/07/01].
- Manias, Miren (2020). “Arriskuak kate txikiagoetan”. *Berria.eus* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1964/023/002/2020-07-17/arriskuak-kate-txikiagoetan.htm> [Kontsulta eguna: 2022/07/01].
- Manias, Miren (2020). “Beste eredu bat posible da”. *Berria.eus* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1876/027/002/2020-03-27/beste-eredu-bat-posible-da.htm> [Kontsulta eguna: 2022/07/01].
- Manias, Miren (2019). “Euskarazko kate txikiagoa”. *Berria.eus* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1878/028/002/2019-09-18/euskarazko-kate-txikiagoa.htm> [Kontsulta eguna: 2022/07/01].
- Manias, Miren (2019). “Euskal Filmin”. *Berria.eus* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1879/034/003/2019-09-13/euskal-filmin.htm> [Kontsulta eguna: 2022/07/01].
- Manias, Miren (2019). “Aurkezleak, kolaboratzaileak”. *Berria.eus* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1879/036/003/2019-09-11/aurkezleak-kolaboratzaileak.htm> [Kontsulta eguna: 2022/07/01].
- Manias, Miren (2019). “Ez dakite euskaraz?”. *Berria.eus* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1886/036/002/2019-05-22/ez-dakite-euskaraz.htm> [Kontsulta eguna: 2022/07/01].
- Manias, Miren (2019). “Hutsunea fikzioan dago”. *Berria.eus* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1881/033/002/2019-05-03/hutsunea-fikzioan-dago.htm> [Kontsulta eguna: 2022/07/01].
- Manias, Miren (2019). “Agintarien hautua”. *Berria.eus* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1881/026/002/2019-05-01/agintarien-hautua.htm> [Kontsulta eguna: 2022/07/01].
- Marzal, Javier (2015). *Las televisiones públicas autonómicas del siglo XXI. Nuevos escenarios tras el cierre de RTVV*. Bartzelona: Aldea global.
- Miguel, Juan Carlos eta Casado, Miguel Ángel (2012). *Televisiónes autonómicas. Evolución y crisis del modelo público de proximidad*. Bartzelona: Gedisa.
- Narbaiza, Beatriz (2016). *Komunikazio-ereduak, hizkuntza eta euskal telebistagintza*. Doktore tesia. Bilbo: UPV/EHU.
- Salces, Gorka (2016). *Euskaldunak komunikabideen aurrean: iritzien, obituren eta jarrerren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa*. Doktore tesia. Bilbo: UPV/EHU.
- Tabakalera (2022/02/24). *Streaming plataformak eta hizkuntza aniztasuna*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=hbq1JuhZCnM&t=5267s> [Kontsulta eguna: 2022/06/01].
- Tolosaldeko ataria (2021). «*Normaltzat hartu dugu egoera, hori da arazo*» [web elkarrizketa], eskuragarri hemen: <https://ataria.eus/tolosa/1624430592412-normaltzat-hartu-dugu-egoera-hori-da-arazo-inigo-arandia-pantailak-euskaraz-tinko> [Kontsulta eguna: 2022/07/02].

We are social (2021). *Digital 2021. Global overview report*, eskuragarri hemen: <https://datareportal.com/reports/digital-2021-global-overview-report>

Zinea (2015/06/01). *Miren Manias: "Egiten dugun zinema erakustea falta zaigu"*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=0x9i2Z0KXF0&t=141s>
[Kontsulta eguna: 2022/07/01]

Zinea (2022/05/05). *Josu Martinez: "Objektiboa aldatzen duzunean gauzak ezberdin ikusten dira"*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.zinea.eus/2022/05/05/josu-martinez-elkarrizketa/> [Kontsulta eguna: 2022/07/03].

Zinea (2022/05/10). *Josu Martinez: "Hegoaldea 70-80ko hamarkadetan zegoen antzeko momentuan dago Iparraldea egun"*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://www.zinea.eus/2022/05/10/josu-martinez-elkarrizketa-ii/>
[Kontsulta eguna: 2022/07/03].

Zinemak Euskaraz (2022). *Zinemak Euskarazek joan den astean EITBk eta ikus-entzunezko ekoizle-elkarteek sinatutako hitzarmen berriaren balorazioa egin du*, eskuragarri hemen: <https://www.pantailakeuskaraz.eus/2022/06/23/zinemak-euskarazek-joan-den-astea-eitbk-eta-ikus-entzunezko-ekoizle-elkarteek-sinatutako-hitzarmen-berriaren-balorazioa-egin/>

ERANSKINAK

Eranskinen aurkibidea

1. Eranskina: Inkestan erabilitako galdetegia
2. Eranskina: Inkestaren emaitza gordinak
3. Eranskina (konfidentziala): Informatzaileen datuak eta transkripzioak

Oh. Eranskin konfidentziala MALaren epaimahaikideei baino ez zaie helarazi.

1. Eranskina: Inkestan erabilitako galdetegia

Euskal ikus-entzunezko edukien etorkizuna. Zein eduki kontsumitu nahi ditugu?

Inkesta hau Multimedia Komunikazioa Masterreko MALaren (Master Amaierako Lanaren) parte da. Lanaren helburua da kontsumitzaile euskaldunen artean zer premia igartzen diren aztertzea, ondoren, kontsumitzaile horiei euskarazko produktu eraginkorrak bermatzeko.

Egilea: Eneko Iriondo

1. Adina

- 18
- 19
- 20
- 21
- ...

2. Sexua

- Emakumea
- Gizona
- Ez-bitarra

3. Gradua

- Ikus-entzunezko Komunikazioa
- Kazetaritza
- Publizitatea eta Harreman Publikoak
- ...

4. Ondorengo hauetatik zeintzuk kontsumitu ohi dituzu?

- Filmak
- Antzerkia
- Podcastak
- Fikzioa
- Entreenimendua
- Bideojokoak
- Informazioa (euskarri desberdinetan)
- Youtuberrak, streamerrak
- ...

5. Horietakoren bat kontsumitzen ez baduzu, zergatik da?

- Ez dut interesik/ez dut gustuko
- Ez dago Internet bitartez kontsumitzerik
- Ez dakit
- ...

6. Eta horietako zeintzuk euskaraz?

- Filmak
- Antzerkia
- Podcastak
- Fikzioa
- Entretenimendua
- Bideojokoak
- Informazioa (euskarri desberdinetan)
- Youtuberrak, streamerrak
- ...

7. Euskaraz ez badituzu kontsumitzen, zein da arrazoia?

- Nahiago ditut beste hizkuntza batean kontsumitu
- Beste hizkuntzetakoak kalitate hobekoak dira
- Ez daude euskaraz eskuragarri
- Ez daukat arrazoi zehatzik
- ...

8. Euskarazko edukiak kontsumitu ohi badituzu, baloratu dagoen eskaintza 1etik 10era (kantitatea, kalitatea)

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

9. Zein uste duzu dela hutsune nabariena?

.....

Munduan nagusi diren streaming plataformetan (Netflix, PrimeVideo, Disney+ eta HBOmax) euskarazko edukiak %0,02 dira. Filminen kasuan %0,65.

10. Plataforma horietan euskarazko edukiak areagotuko balira, gehiago kontsumituko zenituzke (euskarazko edukiak)?

- Bai
- Ez
- Ez dakit
- ...

11. Euskarazko edukiak (jatorrizko hizkuntzan edo beste hizkuntzetara egokituak) mundu mailako streaming plataformetan egotea ezinbestekoa da. Bat zatoz baieztapen horrekin? (1: batere ados, ez dut beharrekia ikusten / 10: erabat ados, beharrezkoa ikusten dut)

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

12. Nola baloratzen duzu euskarazko azpitoluekin eskura izatea Estatuko beste eremu batzuetan ekoiztutako ikus-entzunezkoak? (1: ez nituzke ikusiko / 10: erabat ados, ikusiko nituzke)

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

13. Ezagutzen al duzu Pantailak Euskaraz mugimendua? Bat zatoz bere helburuekin?

- Ezagutzen dut, eta bat nator
- Ezagutzen dut, eta ez nator bat
- Ez dut ezagutzen
- ...

14. Beharrezkoa ikusten duzu “euskal Netflix”-a izatea?

- Bai
- Ez
- Berdin zait
- Ez dakit

15. Zein ezaugarri izan beharko lituzke “euskal Netflix”-ak?

- Munduko serie eta film arrakastatsuak euskaratuak
- Euskal errealitatean oinarrituriko fikziozko edukiak
- Edukiak beste hizkuntzetan ere (euskaraz gain)
- Gustuen arabera plataformak edukiak gomendatzea
- Zuzeneko ikuskizunak eskaintzea (kontzertuak, antzerki ekitaldiak, kirol ekitaldiak...)
- ...

16. Ondorengo hauek barneratu beharko lituzke?

- Twitchen bideojokoei, musikari eta zineari buruz euskaraz dauden saioak
- Bideopodcastak (Gazteako *Yoko Ona*, adibidez)
- Euskal youtuberrek sortzen dituzten edukiak
- Kimuak bezalako ekimenetan hautatzen diren laburmetraiak
- ...

17. Telebistan zentratuz, ikusten al duzu telebista euskaraz? (modu linealean edo online)

- Bai
- Ez
- ...

* Ondorengo hiru galderak telebista euskaraz ikusten baduzu erantzun

18. Baiezkoa bada, zein eduki ikusi ohi dituzu?

.....

19. Nola baloratzen duzu eskaintza hori? (euskarazko edukiak telebistan). 1: ahulgunez betea / 10: bikaina.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

20. Eskaintza hobetu daitekeela uste baduzu, zer ikusten duzu faltan?

FIKZIOZKO SERIE BATEN OINARRIAK

21. Zein ezaugarri izan behar ditu euskarazko fikziozko eduki batek zuk ikus dezazun?

- Bizitzan aplikatu ditzakegun ideiak edo egoerak aurkitzea
- Ezagunak zaizkigun lokalizazioak aurkitzea
- Izen ona duten euskal aktoreen presentzia
- Bisualki erakargarria
- Iraupen laburreko atalak
- ...

22. Plataforma

- Dohaineko plataformetan ikusgai (EITB Nahieran, A la carta...)
- Ordainpeko plataformetan ikusgai (Netflix, HBO, Prime...)
- Webgune edo sare sozialetan ikusgai (dohainik)
- Horrek berdin dit
- ...

23. Maiztasuna

- Kaleratzen den egunetik atal guztiak eskuragarri egon behar dira
- Astean atal berri bat
- Egunean atal berri bat
- ...

24. Beste ezaugarriren bat?

2. Eranskina: Inkestaren emaitza gordinak

67 erantzun jaso dira

1. Adina [66 erantzun]

- 18 urte → % 6,1 (4 pertsona)
- 19 → % 9,1 (6)
- 20 → % 15,2 (10)
- 21 → % 24,2 (16)
- 22 → % 18,2 (12)
- 23 → % 7,6 (5)
- 24 → % 4,5 (3)
- 25 → % 3 (2)
- 26 → % 3 (2)
- 27 → % 4,5 (3)
- 34 → % 1,5 (1)
- 37 → % 1,5 (1)
- 41 → % 1,5 (1)

2. Sexua [67 erantzun]

- Emakumea → % 70,1 (47 pertsona)
- Gizona → % 29,9 (20 pertsona)
- Ez-bitarra → % 0

3. Gradua [67 erantzun]

- Ikus-entzunezko Komunikazioa → % 40,3 (27 pertsona)
- Kazetaritza → % 28,4 (19)
- Publizitatea eta Harreman Publikoak → % 17,9 (12)
- Soziologia → % 7,5 (5)
- Gizarte Lana → % 1,5 (1)
- Antropologia → % 1,5 (1)
- Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea eta Harreman Publikoak (Gradu bikoitza) → % 1,5 (1)
- Masterra → % 1,5 (1)

4. Ondorengo hauetatik zeintzuk kontsumitu ohi dituzu? [67 erantzun]

- Filmak → % 88,1 (59 pertsona)
- Antzerkia → % 28,4 (19)
- Podcastak → % 59,7 (40)
- Fikzioa → % 64,2 (43)
- Entreenimendua → % 83,6 (56)
- Bideojokoak → % 34,3 (23)
- Informazioa (euskarri desberdinetan) → % 83,6 (56)
- Youtuberrak, streamerrak → % 65,7 (44)
- ...

5. Horietakoren bat kontsumitzen ez baduzu, zergatik da? [63 erantzun]

- **Ez dut interesik/ez dut gustuko** → % 79,4 (50 pertsona)
- **Ez dago Internet bitartez kontsumitzerik** → % 0
- **Ez dakit** → % 14,3 (9)
- ...
- **Ez dut aukera asko izaten horrelako edukiak kontsumitzeko** → % 1,6 (1)
- **Guztiak kontsumitzen ditut** → % 1,6 (1)
- **Denbora beste zerbaitetan igarotzen dut** → % 1,6 (1)
- **Denbora falta** → % 1,6 (1)

6. Eta horietako zeintzuk euskaraz? [58 erantzun]

- **Filmak** → % 22,4 (13 pertsona)
- **Antzerkia** → % 22,4 (13)
- **Podcastak** → % 22,4 (13)
- **Fikzioa** → % 15,5 (9)
- **Entretanimendua** → % 37,9 (22)
- **Bideojokoak** → % 0
- **Informazioa (euskarri desberdinetan)** → % 82,8 (48)
- **Youtuberrak, streamerrak** → % 8,6 (5)
- ...
- **Marraski bizidunak** → % 1,7 (1)

7. Euskaraz ez badituzu kontsumitzen, zein da arrazoia? [61 erantzun]

- **Nahiago ditut beste hizkuntza batean kontsumitu** → % 23 (14 pertsona)
- **Beste hizkuntzetakoak kalitate hobegokoak dira** → % 16,4 (10)
- **Ez daude euskaraz eskuragarri** → % 36,1 (22)
- **Ez daukat arrazoi zehatzik** → % 14,8 (9)
- ...
- **Ez dagoelako asko /ohitura kontua/zorrotzegiak gara euskaraz sortzen denarekin** → % 1,6 (1)
- **Euskaraz kontsumitzen ditut, baina baita beste hizkuntzetan ere** → % 1,6 (1)
- **Beste hizkuntzetan barietate gehiago dagoelako** → % 1,6 (1)
- **Aukera handiagoa eskaintzen da beste hizkuntzetan** → % 1,6 (1)
- **Kontsumitu nahi ditudan eduki gehienak ez daude euskaraz eskuragarri** → % 1,6 (1)
- **Informazioa, Interneten adibidez, askoz ere zabalagoa da ingelesez edo erderaz (arlotan gehienetan behintzat)** → % 1,6 (1)

8. Euskarazko edukiak kontsumitu ohi badituzu, baloratu dagoen eskaintza 1etik 10era (kantitatea, kalitatea) [57 erantzun]

- **1** → % 0
- **2** → % 3,5 (2 pertsona)
- **3** → % 19,3 (11)
- **4** → % 10,5 (6)
- **5** → % 8,8 (5)
- **6** → % 24,6 (14)
- **7** → % 21,1 (12)
- **8** → % 10,5 (6)
- **9** → % 0
- **10** → % 1,8 (1)

9. Zein uste duzu dela hutsune nabariena? [44 erantzun]

- Kantitatea
- Barietate falta
- Modan dauden pelikula eta serieak ez daude euskaraz, azpigituluak ere ez.
- Kantitatea eta euskarazko jatorrizko eduki gutxi
- Youtuber edo streamer desberdinen falta
- Kultura
- Filmak eta telesailak
- Eduki gutxi daudela
- Ez dagoela ia eskaintzarik euskaraz
- Fikzioa
- Ez dagoela euskarazko eduki asko eta kalitatez egindakoa ezta ere
- Eskaintza gutxi dago
- Alde batetik, ez direla euskarazko produktu asko egiten, eta bestetik, egiten direnen artean ez daukate hainbesteko zabalkuntzarik. Gainera, ez dira produktu asko euskarara bikoizten.
- Gehien bat kantitatea
- Aukerak oso mugatuak dira
- Filmetan
- Euskarazko eduki gehiago
- Instagramer eta Youtuberrak
- Kantitatea. Ez dago euskarazko eskaintza handirik, eta gaztelania edo ingelesez askoz ere aukera gehiago dituzu, hortaz, errazagoa da gustukoa zaizun zerbait euskara ez den beste hizkuntza batean aurkitzea.
- Telesailak
- Edukiak euskaratzeko diru (edo interes) falta
- Ikus-entzunezko serietan batez ere, hizkuntzaren forma ez da errealitatean erabiltzen dena.
- Uste dut kantitate gutxi dagoela. Ezin da askorik sakondu.
- Kalitatea eta kantitatea, biak. Uste dut erlazionatuta daudela. Hain aukera gutxiren artean norberaren gustuetara egokitzen den zerbait aurkitzea zaila da.
- Eskaintza urria dela
- Dagoen edukia ez da deigarria
- Eskaintza kopurua, eta ikusgarritasuna
- Sare sozialetan batez ere
- Ez dagoela euskarazko eskaintza handirik ikus-entzunezko produktuetan
- Euskarazko eduki askok aurrekontu oso txikia izan ohi dute, eta ahal dutena egiten dute.
- Edukia
- Ez dagoela ia edukirik euskaraz, beraz, ez dago barietatea eta honek eragiten du euskaraz dagoen gutxi hori aspergarria izatea.
- Kantitate eskasia: eduki txarra hizkuntza guztietan dago, baina kantitatean denetarik dagoenez, ez da arazo bat. Guri kantitatea falta zaigu.
- Kantitatea eta barietatea
- Produktuen kalitatea. Kopuruari dagokionez gutxi egoteaz gain, ez dira kalitate oso handikoak.
- Ez dago aniztasunik. Eduki ezberdinak behar dira sarean. Horrez gain, plataforma digitaletan ez dago aukerarik.
- Euskal telebista publiko erreala baten gabezia eta honen helburu partidistak, publikoa den kalitatezko informazio iturri anitz gehiago, umeentzako eta nerabeentzako garaikideak diren eskaintza kulturalen falta (egun dagoena ez da ez erakargarria, ez garaikidea, ez anitza ez eta ugaria).
- Ez dakit

- Ume/gazteentzako fikziotik at, helduentzako fikzioa euskaraz
- Gazteek ez ditugu gure intereseko gaiak aurkitzen euskaraz
- Kantitate gutxi dago esparru jakin batzuetan
- Filmak

Munduan nagusi diren streaming plataformetan (Netflix, PrimeVideo, Disney+ eta HBOmax) euskarazko edukiak %0,02 dira. Filminen kasuan %0,65.

10. Plataforma horietan euskarazko edukiak areagotuko balira, gehiago kontsumituko zenituzke (euskarazko edukiak)? [67 erantzun]

- **Bai** → % 82,1 (55 pertsona)
- **Ez** → % 3 (2)
- **Ez dakit** → % 11,9 (8)
- ...
- Jatorrizkoan euskarazkoak balira bai, jatorrizkoa ulertzen dut badut bere horretan kontsumitzen dudalako → % 1,5 (1)
- Normalean horrelako edukiak jatorrizko hizkuntzatan kontsumitzen ditut, beraz, euskal edukien ekoizpena areagotuko balitz bai, bestela ez. Hala ere eduki hauen euskaratzea garrantzitsua da → % 1,5 (1)

11. Euskarazko edukiak (jatorrizko hizkuntzan edo beste hizkuntzetara egokituak) mundu mailako streaming plataformetan egotea ezinbestekoa da. Bat zatoz baieztapen horrekin? (1: batere ados, ez dut beharrekua ikusten / 10: erabat ados, beharrezkoa ikusten dut) [66 erantzun]

- **1** → % 0
- **2** → % 3 (2 pertsona)
- **3** → % 0
- **4** → % 1,5 (1)
- **5** → % 0
- **6** → % 3 (2)
- **7** → % 10,6 (7)
- **8** → % 16,7 (11)
- **9** → % 22,7 (15)
- **10** → % 42,4 (28)

12. Nola baloratzen duzu euskarazko azpitoluekin eskura izatea Estatuko beste eremu batzuetan ekoiztako ikus-entzunezkoak? (1: ez nituzke ikusiko / 10: erabat ados, ikusiko nituzke) [66 erantzun]

- **1** → % 4,5 (3 pertsona)
- **2** → % 0
- **3** → % 3 (2)
- **4** → % 6,1 (4)
- **5** → % 4,5 (3)
- **6** → % 6,1 (4)
- **7** → % 6,1 (4)
- **8** → % 16,7 (11)
- **9** → % 18,2 (12)
- **10** → % 34,8 (23)

13. Ezagutzen al duzu Pantailak Euskaraz mugimendua? Bat zatoz bere helburuekin?
[66 erantzun]

- **Ezagutzen dut, eta bat nator** → % 22,7 (15 pertsona)
- **Ezagutzen dut, eta ez nator bat** → % 3 (2)
- **Ez dut ezagutzen** → % 72,7 (48)
- ...
- **Ezaguna egiten zait, baina ez dakit asko horri buruz** → % 1,5 (1)

14. Beharrezkoa ikusten duzu “euskal Netflix”-a izatea? [67 erantzun]

- **Bai** → % 68,7 (46 pertsona)
- **Ez** → % 14,9 (10)
- **Berdin zait** → % 6 (4)
- **Ez dakit** → % 10,4 (7)

15. Zein ezaugarri izan beharko lituzke “euskal Netflix”-ak? [62 erantzun]

- **Munduko serie eta film arrakastatsuak euskaratuak** → % 75,8 (47 pertsona)
- **Euskal errealitatean oinarrituriko fikziozko edukiak** → % 71 (44)
- **Edukiak beste hizkuntzetan ere (euskaraz gain)** → % 43,5 (27)
- **Gustuen arabera plataformak edukiak gomendatzea** → % 50 (31)
- **Zuzeneko ikuskizunak eskaintzea (kontzertuak, antzerki ekitaldiak, kirol ekitaldiak...)** → % 46,8 (29)
- ...
- **Eduki propioak sortzea, euskaraz** → % 1,6 (1)
- **Euskal animazioarentzat espazio berezi bat** → % 1,6 (1)
- **Beste hizkuntza gutxituak barnebiltzea** → % 1,6 (1)
- **Euskaraz egindako film, telesail edo dena delakoa plataforma horretan egotea, horrela eskura ahal izateko** → % 1,6 (1)

16. Ondorengo hauek barneratu beharko lituzke? [62 erantzun]

- **Twitchen bideojokoei, musikari eta zineari buruz euskaraz dauden saioak** → % 56,5 (35 pertsona)
- **Bideopodcastak (Gazteako *Yoko Ona*, adibidez)** → % 58,1 (36)
- **Euskal youtuberrek sortzen dituzten edukiak** → % 50 (31)
- **Kimuak bezalako ekimenetan hautatzen diren laburmetraiak** → % 74,2 (46)
- ...
- **Euskal zuzendari txikien filmak, aukera emateko** → % 1,6 (1)
- **Dokumentalak eta bestelako hezkuntza/informazio iturriak** → % 1,6 (1)

17. Telebistan zentratuz, ikusten al duzu telebista euskaraz? (modu linealean edo online) [67 erantzun]

- **Bai** → % 46,3 (31)
- **Ez** → % 50,7 (34)
- ...
- **Ez dut telebista asko ikusten, orokorrean** → % 1,5 (1)
- **Gutxi, kalitate txarra eta eskaintza urria** → % 1,5 (1)

* Ondorengo hiru galderak telebista euskaraz ikusten baduzu erantzun

18. Baiezkoa bada, zein eduki ikusi ohi dituzu? [33 erantzun]

- Herri txiki infernu handi
- Albistegiak, entretenimenduzko edukiak eta lehiaketaren bat
- Ur Handitan, Gaur Egun, Mustang miragarriak, Irabazi Arte
- Ur Handitan
- Berriak
- Informatiboak
- Albistegiak
- Merli euskaraz eta Teleberri
- Herri txiki infernu handi, Teleberria, Irabazi Arte telesaila, Barre Librea, Biba Zuek
- Albisteak edo programa zehatzen bat
- Lehiaketak, haien artean Zurekin Bat
- Gaur Egun eta Biba Zuek (ETB1)
- Pilota partiduak eta albisteak
- Telebista eta irratia
- Telesailak
- Hamaika Telebista
- EITBko magazine batzuk (Ahoz Aho adibidez), Gaur Egun, suertatzen bada lehiaketaren bat
- Ur Handitan, Herri txiki infernu handi eta Zurekin Bat
- ETB1eko albistegia
- Kirola, programak, albisteak...
- Albisteak batez ere
- Informazio saioak
- Entrenimenduzko saioen bat
- Biba Zuek
- Albistegiak eta dokumentalak, batez ere
- Entrenimendua eta albisteak batez ere
- Herri txiki infernu handi, albisteak, Ur Handitan, Txoriene, etab
- Ez
- Programak
- Gaur Egun
- Youtuben beti Barre Libreko bakarriketak
- Teleberria, Zurekin Bat
- Telesailen bat eta albisteak

19. Nola baloratzen duzu eskaintza hori? (euskarazko edukiak telebistan). 1: aahulgunez betea / 10: bikaina. [41 erantzun]

- 1 → % 0
- 2 → % 0
- 3 → % 2,4 (Pertsona 1)
- 4 → % 14,6 (6)
- 5 → % 19,5 (8)
- 6 → % 7,3 (3)
- 7 → % 24,4 (10)
- 8 → % 22 (9)
- 9 → % 9,8 (4)
- 10 → % 0

20. Eskaintza hobetu daitekeela uste baduzu, zer ikusten duzu faltan? [23 erantzun]

- Gazteei zuzendutako edukia

- Fikzioan
- Euskarazko fikzioa
- Fikzioa
- Gazteentzako entretenimenduzko programa gehiago behar direlakoan nago
- Fikzio falta, dokumentalak...
- Nerabe eta helduentzat telesail gehiago jarri beharko lituzkete
- Dinamismoa eta diru inbertsioa
- Kasu batzuetan, euskararen zuzentasuna
- Gazteentzako programak
- Egiten dena ongi, baina fikzioa eta entretenimendua falta da
- Uste dut kalitatezko produktu gehiago falta direla. Baina ez bakarri Ur Handitan bezalako saio sakonak; umorezko programak botatzen ditut faltan.
- Oso faltua ematen du
- Aniztasuna eta kalitatea
- Euskarazko eduki gehiago, barietate handiagoa eta aurrekontu handiagoak
- Dinamismoa eta inbertsioa
- Kasu honetan kalitatea ez da txarra, baina eskaintza nahiko txiropa da kopuruari dagokionez
- Gazteentzako euskarazko serieak
- Fikzioa gehien bat
- Programazio hobea, reality kutzua duten programak kentzea (edo denbora gutxiago izatea antenan), umeentzako eskaintza eguneroagotu bat (gure garaiko Betizu adibide ona litzateke), nerabeei interes lekiekeen eta aldi berean baloreak lehenesten duen eskaintza aberatsago eta kalitatezkoago bat. Herri kirolen eta boxeoa berandutzea. Oro har, egungo eguneko programazioa lotsagarria da.
- Ez dakit
- Gaur egungo gazteei interesatzen zaizkien gai buruzko gauzak jartzea, “Euskal First Dates” moduko bat egin, TikToken momentu honetan “Barratik Kalera” EITBn jarri edota horrelako gehiago eskaini.
- Telesail gehiago, gazte edo helduentzat zuzenduta. Eskaintza ere handitzea, barietatea areagotuz.

FIKZIOZKO SERIE BATEN OINARRIAK

21. Zein ezaugarri izan behar ditu euskarazko fikziozko eduki batek zuk ikus dezazun? [66 erantzun]

- **Bizitzan aplika ditzakegun ideiak edo egoerak aurkitzea** → % 56,1 (37 pertsona)
- **Ezagunak zaizkigun lokalizazioak aurkitzea** → % 21,2 (14)
- **Izen ona duten euskal aktoreen presentzia** → % 13,6 (9)
- **Bisualki erakargarria** → % 90,9 (60)
- **Iraupen laburreko atalak** → % 27,3 (18)
- ...
- **Idea edo gidoi interesgarriak izatea** → % 1,5 (1)
- **Istorioko interesgarriak izatea** → % 1,5 (1)
- **Kalitatea izatea** → % 1,5 (1)
- **Kontakizun interesgarria** → % 1,5 (1)
- **Ezberdina izatea, zerbait berria** → % 1,5 (1)

22. Plataforma [67 erantzun]

- **Dohaineko plataformetan ikusgai (EITB Nahieran, A la carta...)** → % 37,3 (25 pertsona)
- **Ordainpeko plataformetan ikusgai (Netflix, HBO, Prime...)** → % 20,9 (14)
- **Webgune edo sare sozialetan ikusgai (dohainik)** → % 14,9 (10)
- **Horrek berdin dit** → % 26,9 (18)

23. Maiztasuna [65 erantzun]

- **Kaleratzen den egunetik atal guztiak eskuragarri egon behar dira** → % 47,7 (31 pertsona)
- **Astean atal berri bat** → % 46,2 (30)
- **Egunean atal berri bat** → % 4,6 (3)
- **Berdin zait** → % 1,5 (1)

24. Beste ezaugarriren bat? [6 erantzun]

- Ez du zertan “euskaltasunean” oinarriturik egon. Esaterako, Sex Education Erresuma Batukoa da, baina institutu estatubatuarretako serieen ohiko ezaugarriak hartzen ditu.
- Bertze herrialdeetan egin diren filmen kopia hutsak ez izatea
- Euskal identitatea, euskal eguneroko edota kultura eta hizkuntza mundu mailan ezagunagoa egitea, oso interesgarria baita, eta jende askorentzat (Estatu Batuetan adibidez) guztiz berria izango zen. Modu erakargarri batean eginez gero, interes handia sortuko du.
- Interesa piztu modu desberdinetan
- Ez
- Jendearekiko elkarreragina bilatzea

